

TA (a). juntagailua. Ik. **eta**.

TA-TA onomatopeia. Tiro jarraituen onomatopeia.

TÁBAKO, **tábakua** (a). izena. Tabaco. Ik. **tabákorri**.

TABÁKORRI, **tabákorrixa** (c). izena. . **TÁKORRI**. nicotiana tabacum. Tabaco. *I, joan ari estankora ta tabakorrixa ekarri./ Sasoi batian basarri askotan ereitte zan tabakorrixa*. Orri oso zabalak dituen landare hau hemen ez da orain landatzen, baina garai batean, eskasidadea edo arrazionamendua zegoenean, gerra ostean, adibidez, ezkutuan ereiten zen, arto artean eta horrelako leku gordeetan. *Tabakorrixa* edo *takorrixa* deitzen diote oraindik ere zaharrek erretzeko tabakoari.

TABÉRNA, **tabernía** (a). izena. Taberna, bar. Ik. **árdandei**, **sárdandei**. **Gizon tabernazale**, **etxe galtzaile** esaera. (Lar Antz). **Tabernatik datozenak burua bero eta anakak otz** esaera. (Antzuola) (Lar <i>Antz</i>).

TABERNÁRI, **tabernaríxa** (a). izena. Taberbero. *Tabernarixak eztagola diruik diñue*. Sin. **taberbero**.

TABERNAZÚLO, **tabernazulúa** (b). izena. (adierazkorra.) Taberna. Zentzu peioratiboan, gisa honetako esaldietan. *Mendixan obeto, egun guztia tabernazuluan sartuta baiño*. **TABERNAZULUAN SARTUTA**, batik bat.

TABERNERO1. **taberbero**, **tabernerúa** (b). izena. Tabernaria. Sin. **tabernári**. **2. taberbero**, **tabernerúa** (c). izena. Tabernazalea, zurruteroa. *Oso tabernerua izan dok bizi guztian*.

TÁBLA1. **tábla**, **táblia** (a). izena. Ohola. • **Tabla**. Ik. **ol**. **2. tábla**, **táblia** (c). izena. Harategia. *Basarritarrei uskerixia pagau eta gero tablan urria kobrau*.

TABLÓE, **-I**, **tablóia** (b). izena. 3 zm baino lodiagoko ohola. • **Tablón**. Ik. **ol**.

TAILLA, **TAILLATU** Ik. **téilla**, **teillátu**.

TÁILLER, **taillérra** (b). izena. **TAILLAR**. Taller, fábrica.

TAILLERDUN, **taillerduna** (c). izena. **TAILLARDUN**. Empresario industrial.

TAJÁDA, **tajadía** (a). izena. Xerrada. • **Filete**. *Ipiñidazu iru tajada mee ebaitta./ Zarran tajadak gusto geixao eukitzen dabe*. Sin. **filete**.

TAJADERA Ik. **déguellu**.

TÁJU1. **taju**, **tajúa** (b). izena. Taiua, antza, itxura. • **Traza**, parecido. *Gure taillerrai kuartelan tajua artzen dotsat./ Antiajo orrekin Txiki Benegasen tajua daukak*. **TAJUA ARTU** edo **EUKI**, gehienbat.

2. taju, **tajúa** (d). izena. Habilidad, maña. *Eztauka bape tajuik aixkoran./ Eztotsat lan barrixai tajuik artzen*. **3. taju**, **tajua** izena. (Eibar) "Junguran fijo jartzen dan ebaketa-tresnia, burdiñia mailluakin jota bertan ebateko." (SB <i>Eibetno</i>). </i> Sin. **epáiki**.

TAJÚTU1. tajutu (c). du aditza. Itxuratu, ondo jarri. • Acondicionar, arreglar. *Lokal au, puxkat tajutu ezkeru, ederki geratuko da.* Sendatu zentzuan jaso diogu Hilariri: *Errejimena ipiñi otxen, baiña errejimena ipiñi tta tajutu zanian e...* **2. tajutu** (c). da aditza. (adierazkorra.) Nahikoa jan edo edan. • Saciarse de comida o bebida. *Ze, oiñezkeru tajutuko itzan orraitio.* Sin. **itxuratu**.

TÁJUZ (c). adberbioa. Itxuraz, ondo samar. • Debidamente, bastante bien. *Etxia tajuz ipiñi arte ezkoiaz ezkontzera./ Tajuz jaten da Anguzarren.* Sin. **itxuraz**.

TAJÚZKO, tajuzkúa (b). izenlaguna. Itxurazkoa, on samarra. • Aceptable. *Aspadixan eztabe botatzen tajuzko pelikulaik.*

TAK1. tak (d). onomatopeia. Onomatopeya que indica el despertarse en hora intempestiva. *Naiz da oera berandu joan ni seiretarako tak..., argi./ Lo seko nenguan da tak!, esnatu naiz.* Baita, halako ordutan, sinfalta (egon, esnatu...): *Aura seiretan puntuan tak, antxe egongo da.* **2. tak!** (d).

onomatopeia. Zerbait oso azkar gertatzen dela adierazten duen onomatopeia. *Azaoketarako ziri bat izeten dok, okerra, puntan kaku txiki batekin, tak, sartu ta arekin estututa geratzen jakok korapilluoi.* Don./ *Bat da kaparría; gelditzen da ola eldu ta azkura emuten dabena, eta artu ta erreza kentzen: tak, librau.* Don./ *Lapia bai.* Orrek e, mutikuak eta, guk tak! bota. Don.

TAKA! (c). onomatopeia. Ekintza azkar baten onomatopeia. *Etorri tta, gure neskiak-eta erok alkarrekiñ igual taka erderaz.* Don./ *Arek ointxe be taka!, premixua irabazi jok.*

-TAKA(K) atzizkia. OGE-ri erantsirik, hogeí eta gehiago. Berdin berrogei, hirurogei eta abarri. *Ogetaka lagunak kabitzen die zuen komedorian./ Berrogetaka urtiak zeuzkan ordurako./ Ogetakak il zien gripiakin.* Ik. **ogétaka**.

TAKADA Ik. **takára**.

TÁKAR1. takar, takarra (b). adjektiboa. Torpe, bruto, -a, rudo, -a. *Persona ona da, baiña astua baiño takarraua.* Ik. **zakar**. **2. takar, takarra** (c). adjektiboa. Soro erpiltsu, bide harritsu eta halakoez esana. • Se dice de caminos, sembradíos, etc., ásperos. *Bide takarra dago zuenera./ Euri zakar onekin lur takarra geldittu da.* Ik. **lákár, zakar**.

TAKÁRA TAKADA. **1. takara, takaría** (c). izena. Golpecito. *Atzetik takaratxo bat emun dotsa kotxiái.* Ik. **takatéko. takaría euki** (c). esapidea. (eufemismoa.) Zoro ikutua euki. *Antoniok jaukak takaría...* **Zartaria euki** baino leunagoa. Ik. **ikutu**. **2. takara, takaria** (c). izena. Vez, tacada, golpe. *Alustizak takara baten amar tanto ein jittuk sakian./ Amar milloi tokau jakok loterixan; takara edarra dok.* TAKARA BATEN, batik bat.

TAKARKERÍA, takarkerixía (b). izena. Brusquedad. *Kerten kuadrilla orrek takarkerixia besteik eztauka.* Ik. **zakarkerixa**.

TAKARRÁRA, takarraría (b). izena. (adierazkorra.) TAKARRADA. Dinbirri-danbarra. • Estruendo, ruido. *Lope atzeko tontorrian erezen falanjíak, da Udelaxko Egomendiñ gorrixak, San Mielen gorrixak, da ango takarradia.* Fran./ *Osintxuarrak etortze zien Uberara takarraria darixola./ Bart demaseko takarrarak izan die* (trumoi-otsak).

TAKARRARAN (a). (Leintz) TAKARRAN. Lasterka. Bergaran ez da esaten, baina askok ezagutu bai. Mondragoetarrei, adar-soinuan, zera esan izan zaie. *An, bajátozak mondráutarrak takárran.* Ik. **antxíntxika**.

TAKÁRTU (c). da-du aditza. Takar bihurtu.

TAKA-TAKA (a). adberbioa. (haur hizkera.) TTAKA-TTAKA, TIKI-TAKA, TAPA-TAPA. Oinez. (haur., batik bat). *Taka-taka goiaz Uberara./ Ibai, zelako ondo ikasi dozun taka-taka.* TAKA-TAKA IKASI, IBILLI, etab. Nagusiez ere bai inoiz. *Artu bi marmintt, olaxe, mokor banatan, olaxe eskuekin, abarka baltzak, buruko paiñeluak olaxe, taka- ttaka- ttaka- ttaka, Osintxura.* Hil.

TAKATAN izena. (haur hizkera.) (Eibar) TRAKATAN. Zaldia.

TAKATÉKO, takatekúa (b). izena. Golpe. *Baloiai jo biarrian orkatillan emun jostan kriston takatekua.* Ik. **takára, zartára, zartatéko.**

TÁKET, takéta (b). izena. Gurdiak alboetan zutik daramatzen makilak. • Estacas laterales del carro. *Bi taket galdu jakun da gaixki ibili giñan burdi-garua kargatzeko.* "Taketa" Bergarar zelebrea eta estimatu bat izan zen, gauza guztiak nahi gabe aldrebes esaten zituenena: *I Martiñ, ardittara eu joango aiz ala neu geratuko nok etxian?* Sin. **burtáket.** Ik. **taketáda.**

TAKETÁDA, taketadía (c). izena. Irteera edo egintza zelebrea. "Taketa" k egiten zituenen estilokoa, alegia. *Ik dauzkak taketadak ik./ Oinddio taketada aundixauak entzun bia jittuau.* Ik. **táket.**

TAKÍAN POTÍAN (c). adberbioa. (lagunartekoa.) TAKIEN TAKIEN (LEIN.). Maiz, noiznahi. • A menudo. *Takian potian joaten da Barzelonara./ Takian potian mozkortuta ikusten dot.* Ik. **puntuán beiñ, sarri, sarritan.**

TÁKO1. táko, tákua (c). izena. Pedazo, taco. *Takua ipiñi jat mai ankiari, koje zeuan da./ Txakurra or doia ogi takua auan dabela.* **2. táko, tákua** (c). izena. Pastilla de jabón grande y rectangular. *Illia garbitzeko takua dala onena esate eben./ Jaboi-takua artu ta igurtzi mantxiai.*

«Lagarto» eta «Chimbo» jaboiei esaten zitzaizkien. Sin. **jabói-táko.** **3. táko, tákua** (c). izena. Egutegi txiki eta potoloa, Arantzazukoa, adibidez. • Calendario de hojitas. *Amandriak oinddio egunero leitzen dau takua./ Aurten eztou artu Arantzazuko takua.* **4. táko, tákua**

(d). izena. Antzinako papelezko tabako-kaxa karratua. • Caja cuadrada de tabaco de liar que fumaban nuestros abuelos. *Zuen aittajunak takua erretze jua.* Ik. **tabákorri.**

TAKÓE, -I, takóia (a). izena. Tacón.

TAKOLO adberbioa. (Aramaio) Nasai. • Holgado. *Takolo raukatela, nasai* (arropa oso nasai duelako). (Orm Aram).

TAKORRI Ik. **tabákorri.**

TALABURNI, talaburnixa (c). izena. (Elosu) Talo-pala. Sin. **taló-pála.**

TÁLDE, táldia (c). izena. Grupo; de animales, mayormente. *Talde baten e, ikustera juten danian bat, “joño, txarri-talde edarra; bat auxe dao erkiñaua.* Don. Konposatueta batik batik: **artalde, aunztalde...** Gutxi erabilia. Aspaldian berriro indartu da.

TÁLO1. tálo, tálua (b). izena. Talo. *Artiriñez eitten da talua.* Ik. **obísopo-tálo. talo-arpegíxa éuki** (c). esapidea. Aurpegi borobila eta zabala euki. IRETARGI MOSUA ere bai. Ik. **irétargi, zarpátorta.**

talua eta esnia izena. "Postre en que se toman las tortas de maíz con leche azucarada. *Armozue talue ta esnie, ta gabien be haxe.*" (SB Eibetno). **2. talo, tálua** (b). izena. (haur hizkera.) Mancha grande de barro en la ropa, hecha al caerse. *Talo edarrakin etorri jaku mutikua.* Haur hizkera, batik bat.

TALOBERO (c). izena. (Leintz) Bateko urrea, karta-jokoan.

TALÓ-PÁLA1. taló-pála, taló-pália (c). izena. Taloa erretzeko pala. *Gurian badie talo-pala zarrak.* Sin. talaburni (Elos.). **2. taló-pála, taló-pália** (d). adjektiboa. Kokoloa, mozoloa.

TÁMAIÑU, -O, támaiñua (a). izena. TAMAIÑA. Tamaño. *Personian tamaiñuai etxako begiratu biar./ Banastatxuan tamaiñoko azaburuak dauzkagu./ Olaxe bueltan eraittekua, laubos bat zerekin, erdixen, da maratillia, lasaitzeko, da eraiñ da an batzen zan tamaiña ontaraiñoko matazia.* JJp. Elosu aldean TAMAIÑU **támaiñua artu** (b). esapidea. Neurri egokia hartu. *Eranai eta lanai tamaiñua artu bia jako./ Gero tamaiña artzen zanian euliana erun.* JJp. **támaiñuan** (b). adberbioa. Neurri egokian. • En su justa medida. *Gradiatzeko arrautziakin gradiatzen dou: arrautza bi bota barrura, da uran gaiñera igotzen dabengan arrautziak, orduantxe gatza tamaiñuan.* Enr./ *Orri be lana tamaiñuan gustatzen jako* (gutxi samar, alegia). **támaiñutik fuérako, támaiñutik fuérakua** esapidea. (adierazkorra.) Fuera de tamaño, excepcional. *Txala jaukau tamaiñutik fuerakua./ Ointxe be bota dok gizurra tamaiñutik fuerakua.*

TÁMAIÑUKO, támaiñukúa (c). izenlaguna. (adierazkorra.) A zer nolako, esaldi adierazkorretan. *Oiñ espabillauta dago, baiña, txikittan tamaiñuko burugogorra izan zan ori.*

TANBOLIÑ, TANBOLIN-TXISTU lk. danboliñ.

TANBOR lk. dánbor.

TANBORTERO, tanborterua izena. "Tamborrero, atabalero." (SB <i>Eibetno).</i>

TANGANILLO, tanganiñua izena. "Ehiza-sasoian txakurreri saman ipintzen jakuen egur zatixa. • Tanganillo. Hanketan jotzen detse eta ezin dabe aintxintxiketan egin." (SB Eibetno)

TANKÉRA, tankería (c). izena. Antza, itxura. • Traza, parecido, forma. *Bertsolari tankeria artzen dostat./ Eta ik ze tankera artze jak asunto oni, ba?/ Astua dibujau naixan nabill baiña etxat tankeraik emuten.* TANKERIA ARTU edo EMON, batik bat. lk. **ítxura, tráza, antz, taju.**

TÁNTA, tántia (a). izena. TANTAKA, TANTAKIE (LEIN.). Gota. *Euri-tantak asi die./ Txorro ori tantia darixola dago.* **tántaka** (a). Tantak erortzen. *Txorrua tantaka dago.* lk. **tantán.**

TANTÁI TANTEI.1. tantái, tantáixa (d). izena. Zuhaitz luzea eta lerdena, lepatu gabekoa. Baita gorantz zuzen hazten den adar luze eta sendoa. *Ori danoi ei zan paga-tantaixa, dana pagua; egurra ei zan ori ikusgarrixa. Erri-basuak. Debekauta egote i zan egurra botatzia permiso barik.* Hil. lk. **pago-lízar, -lizar. 2. tantái, tantáixa** (d). izena. Baldoa, enbor puxketa dezentea, beheko sutarako, baldotarako edo edozertarako erabilia. • Pedazo de tronco que se echaba al fogón, se utilizaba como soporte para partir leña, etc. *-Tantaixa balduai esate jakok. Leno, beko sua zeuanian,*

tantaixa, aundi samarra zanian. Ik. **báldo, pago-tántai. 3. tantái, tantáixa** (d). izena. Babak, berakatz-sortak eta abar esekitzeko ganbaran goiatatik medialinara botatzen zen egurra. *Teillatu azpitan jeneralian len babia ta asko izeten zan etxian sekatzeko, da tanteixak esaten jaten arei. Benito. Sin. ága.*

TANTÁN, tantána (c). onomatopeia. Goteo. Tambiẽn gotera dẽbil. *Tantana ze dan? Ikusten dok? (tantaka dagoen txorroa seinalatu dit) Oixe./ Ittuiẽ;a be aundixa ero ezpaldin bada eta tantia bakarrik baldin bada, tantana. Klem./ Ganbaran tantana dago ta teillatura igo biako da.* Ik. **ittúin, txitxiñ.**

TANTÍAU (c). du aditza. Tanteat. *Etxakixat naiko daben baiña ik tantiaik disimuluakin./ Ori gu tantiatzen dabill.* **tantiúan ibilli** (c). esapidea. Tantiatzen jardun. *Nundik erren itten doten tantiuan dabill.*

TÁNTO, tántua (a). izena. Tanto, cada punto, en un juego o deporte. *Oso politta izan zan azkenengo tantua.*

TANTO, tántua (c). izena. Arropa baten punto, mantxa edo apaingarri biribila. *Soiñoko bat tanto gorrixekin, oso politta.*

TÁNTODUN, tántoduna adjektiboa. Apaingarri edo tanto biribilak dituena, jantzia gehienetan. *Alkondara tantodun zatar batekin zoian.*

TÁNTORA LAN EIÑ (c). esapidea. Sistema de trabajo que consiste en cobrar en proporción al trabajo hecho, según contrato estipulado; normalmente un porcentaje de las ganancias. *Jornalan lekuan, onenbeste lan eitten dozu ba... onenbeste pagatzen dotsut, osea tantora. Zuk eztaukazu jornal fijua; tantora zabitz. Klem./ Oingo basomutillak tantora eitten juek lan: piñuixa bota ta balixuan ainbesteko bat erendako.* Ik. **áinbesteko bat.**

1. TÁPA, tapía (a). izena. Tapa. Gurdiarenak AURREKO TAPA eta ATZEKO TAPA. Leihoarenak BENTANA-TAPA, behien askaurrekoak GANAU-TAPA. **tapak egon** (b). esapidea. Kaletarrek "tapak daudela" diote urak norbera kubritzen duenean. *Kontuz Bolintxoko presan, tapak dare ta.*

TAPA-TAPA (b). onomatopeia. Oinez pauso normalean. *Uberatik bueltia ein ddou tapa-tapa./ Ale, jaiki tta etorri tapa-tapa.* Ik. **taka-taka, táparra-táparra.**

2. TÁPA! (c). interjekzioa. Orduantxe, bertan, hantxe bertan. intj. que significa en ese preciso momento, allí mismo. *Kamiñuan buelta artzen niarduala, tapa!, ertzaiñak parian.* Ik. **taka!, tak!**

TAPÁBOKA, tapábokia (b). izena. TAPÁOKA. Bufanda. *Zelako tapaoka politta daukazun.* Orain *bufanda* gehiago. *Etim.: tapa+boca.*

TÁPARRA-TÁPARRA (c). adberbioa. Oinez pauso normalean ibiltzearen onom. *Ez, naixao dot oiñez joan; taparra-taparra orduerdi baiño len naiz etxian./ Bixok taparra-taparra etorri ga kontuak esanaz.* Ik. **taka-taka, tapa-tapa.**

TAPÁU1. tapáu (a). da-du aditza. Tapar(se). Ik. **apurtu, estali. 2. tapáu** (c). aditza. Herri kiroletan, bestearen marka hobetu. *Iria tapau baietz!* Sin. **ondu.**

TAPOE, -l, tapóia (a). izena. Tapón.

TARATULU lk. **darátillu, -o.**

TÁRDANTZA, tárdantzia (c). izena. Tandanza. *Tardantza barik etortzeko esan dotset, baiña ikusi ze ordu dan.*

TARDÁU (a). aditza. Tardar.

TÁRIA, tária (c). izena. Tarea. *Oinddio taria luzia geratze jaku, baiña illundu aurretik akabau bia da patata sartzia./ Gaurko taria ezto akabau oinddio.* NOR mugb. eta mugt. berdin.

TARIÑ, tariña (c). izena. carduelis spinus. Tarín. Txori txikia

TARRAN, tarrana (c). Esnea edo txokolatea egosi ondoren, ontziaren hondarrean eta alboetan itsatsita gelditzen dena. *Txokolatia egitten dogunian, tarrana izaten da estimauena.* lk. **arroka.**

TARRAPATAN, tarrapatana adjektiboa. "Pertsona saltseroa, denean sartzen dena. *Joakiña tarrapatan bat izen da, danekin sosio itten dala.*" (Lar Antz).

TARRAPATATA, tarrapatatia adjektiboa. "Nabarmentzen denari, bere burua erakusten duenari esaten zaio. *Ori da tarrapatatia!*" (Lar Antz).

TARRASÍAN (b). adberbioa. Arrastaka, narrasean. • A arrastras. *Ez ekarri tarrasian maixa./ Tarrasian etara giñuan tabernatik.* TARRASIAN ETARA, EKARRI... Aktiboa ia bakarrik. lk. **narras.**

TARRASKO, tarraskue adjektiboa. (Aramaio) Ganorabakoa. *Aze tarraskue ori be, ikusten dok zelan datorren!* (Orm Aram).

TARRÁT! (b). Ehuna urratzen dela adierazten duen onom. *Makurtziaz batera tarrat ein zosten prakak.* lk. **arratára.**

TART!, dart! (c). Haustura edo etenduraren onom. *Kristal orrek, kontuz ibilli ezian, tart.* **tart eiñ** (c). aditza. (adierazkorra.) Hautsi, eten. *Sokiak tart eiñ da danak ankazgora.* **tart eindda egon** (c). esapidea. Burutik jota egon. *Ori tart eindda dago.*

TÁRTA, tártia (a). izena. Tarta.

TARTAKARIN, tartakariña "Pelota botona, saltarina. • Pelota jokuan, pelota ariñegixa." (SB <i>Eibetno</i>).

TARTAKO, tartakua izena. (Eibar) Tartamudo. lk. **tartamutu.**

TARTAMÚTU1. tartamutu, tartamutúa (c). izena. Hiztotela. • Tartamudo. *Anai bixak die tartamutuak.* Hiztotelari esaneziña daukana ere esaten zaio. Sin. tartako (Eib.).**2. tartamutu, tartamutúa** (c). izena. Esanezina. • Tartamudez. *Nerbioso jartzen danian tartamutua eitte jako./ Felipek egundoko tartamutua dauka.* TARTAMUTUA EUKI, edo EGIN. Sin. **esáneziñ.**

TÁRTANA, tártania (b). izena. Ibilgailu zahar eta destartalatua, autobusa, batik bat. Tartana. *Elgetako “Osintxu-n tartanan joate giñan txikittan Arantzazura.* lk. **kátzarro,**

katxárrazar, kárraka.

TÁRTE, tártia (b). izena. Bi leku edo gertakariaren arteko unea. • Espacio entre dos lugares o momentos. *Bi klasien artian tartetxo bat izangozue komunera joateko./ Ez ari orren tartian sartu, gaixki urtengok eta.* Ik. **bíttarte. tártian izan** (b). esapidea. Partean izan. • Estar en el ajo, participar en el asunto. *Atzo burrukia egon zan Tartufuan da zuen semia be tartian ei zan.*

TÁRTEKA (c). adberbioa. A ratos. Entre medio, entre espacio y espacio. *Bakarrrik tarteka artzen dau eskribitzeko astixa./ Garisaillak, tarteka, arrixak apurtuta zeren.*

TÁRTEKO1. tárteko, tártekua (b). izena. Senidea, urrutikoa gehienbat. • Pariente, sobre todo refiriéndose a los lejanos. *Gu lengo Bergako alkatian tartekuak ga./ Eztakitt lengusuak ala ze dien baiña tartekuak bai beintzet.* Ik. **seníttarte. 2. tarteko, tartekua** (c). izenlaguna. Ez handia eta ez txikia, erdikoa, "ertaina" delakoa. • Mediano, el del medio. *Eztot ez karuena ta ez merkiena artuko, tartekua./ Kosme iru anai-arrebetatik tartekua da.* Ik. **bíttarteko, erdiko. 3. tárteko, tártekua** (c). izena. Beraien artekoa, taldekoa. • Compinche, colega. *Burruka plantak eitten ibili zien bi kuadrillak tartekuak zittuan./ Lapurran tartekuak arrapau dittue baiña lapurra ez.* Ik. **tártian izan.**

TARTUFO Ik. **kártufo.**

TAS-TAS EMON (a). dio aditza. (haur hizkera.) Jo, pasada eman. • Pegar. *Geldik ezpazare tas-tas emungotsut.*

TATÁRRAS (b). adberbioa. Arrastaka. *Tatarras eruan biar izaten dou medikuana.* Dena dela, ondorengo esaldia ere entzun daiteke: Labandu ta tatarras etorri naiz kamiñoraiño. Ik. **narras.**

TATI! (c). interjekzioa. "Umeari, jolas moduan, kentzean esaten da; gauza bat ematearen eta kentzearen keinua egiten zaionean." (Lar <i>Antz</i>).

tati eiñ (c). esapidea. (Eibar) Zirkin egin, ihes egin. *Bazan, olako Urdei edo deitzen zetsen etxekalte bat, beti biarrari nundik tati edo zirkiñ egingo ibiltzen zana. (SM Ezten).*

TÁTIIKA1. tátika, tátikia (b). izena. Táctica. *Atzera ta baztatu, zan Azkaraten tatikia.* **2. tátika, tátikia** (c). izena. Trebetasuna, abilezia. *Egundoko tatikia dauka zintzela manejatzen.* **TÁTIIKA ARTU.** Eskua hartu. *Oinddio etxotsat ordenadoriai tatikia artu.*

TÁTIIKO (d). Esaera zahar honetan agertzen den hitza, ziurrenik "tati" hitzetik datorrena: *Andra Maixa martiko (martixak 25)artian udia tatiko, andik aurrera betiko.* Ordurarte agertu eta desagertu ari dela uda, eta handik aurrera beti uda. Ik. **andramáixa martíko, kúku eiñ, tati eiñ.**

TATO izena. (haur hizkera.) Salto. (haur). *Tato eizu, maittiorrek, jausi barik. (AAG Eibes).*

TÁTIIKA, tátixia (c). izena. Akatsa, hutsa. • Tacha, fallo. *Arek jangoikuai be topauko loskio tatxan bat./ Emen eztago tatxa barekoik.*

TATXÁU (c). du aditza. Tachar. *Bigarren barbarako tatxau zittuan alkatiok, kontzejalok eta iñundienok.*

TATXÚELA, tatxúelia (b). izena. Chincheta, tachuela.

TÁUKI1. táuki, táukixa (d). adjektiboa. Ibilera gangaleko pertsona handia. • Persona grande de andares desgarrados. *Ibilera zera daukana, taukixa. Aundixa ta ibillera ola aurrerakadiakin eitten daben ortaikua. Klem.* **2. táuki, táukixa** (c). izena. (Elgeta) Lokuluxka. Sin. **lokámux**.

TAULERO, taulerue adjektiboa. (Aramaio) Inporta ez zaiona. *Aze taulerue da ori. (Orm Aram).*

TAUPA-TAUPA onomatopeia. Bihotz-taupaden onomatopeia.

TAUPÁDA, taupadía (c). izena. TAUPARA. Taupara. Latido de corazón *Udalaitzen gora biotzak demaseko taupadak eitten zotan.*

TAUTÍK PE (c). esapidea. TUTIK PE. Tutik ere. • Ni pizca. *Bergan jaixua izan arren eztaki euskeraz tautik pe./ Afalorduan eztau tautik pe esan./ Nere ama iñude jun ei zan bai, Madrillera, da erderaz tautik pez. Ben.* Gaur egun TUTIK PE da nagusi, baina adinekoek bestea diote. ENTENDIDU, ESAN, JAKIN aditzekin batez ere.

TÁZA, tázia (a). izena. Taza. Eskulekudunari esaten zaio. Ik. **kátillu, kíkara**.

TAZAKÁRA, tazakaría (a). izena. El contenido de una taza. *Iru tazakara kafe artuittu.*

TE, téia (c). izena. . Te. Informante batek *txixa bedarrari deitzen dio hala.*

TÉATRO, téatrua (a). izena. TRÉATO. Teatro. *Ze moduzkua izen da ba tréatua.* Oso adinekoek TREATO.

TÉILLA, teillía (a). izena. TÁILLA. Teja.
TÁILLA diote batzuek.

TEILLÁPASA, teillápasia (d). izena. Teilatuan apurtuta dauden teilak aldatze lana. *Erretilla premiñaik eztago, baiña teillapasa on batena bai.*

TEILLAPE1. teillape, teillapia (c). izena. Techado.**2. teillape, teillapia** (c). Teilatu-hegalpean geratzen den lekua, euririk sartzen ez den horma-kontra.

TEILLA PERRETXÍKU, teilla perretxikúa (c). izena. . russula emetica. Gusto mikatza duen eta gehienek jaten ez duten perretxiku ugaria.

TEILLÁTU, teillatúa (a). izena. TAILLATU. Tejado. TEILLAT Ik. **teillatu-afári, erremu. teillatútik izúrrauta egon** esapidea. (eufemismoa.) Burutik jota egon.

TEILLATU-AFÁRI, teillatu-afaríxa (d). izena. Etxe berri bati teillatua ematen zaionean igeltseroek eta jabeek egin ohi duten afaria. *Erremua ifintzeakok, erremua esateakok. Eta ba teillatu-afaixa ero, bazkaixa ero. Sebas.* Sin. **montxor, ostroko**. Ik. **mantxarráda**.

TEILLÁTUPE1. teillátupe, teillátupia (c). izena. Se usa, al menos en los caseríos, al referirse a personas que viven bajo el mismo techado, sin vivir en la misma vivienda. *Teillatupe batian bizi zien uezaba ta errenterua./ Gu aspaldittik ezagutze gaittuk, teillatupe baten jaiotakuak gaittuk eta.* **2.**

teillátupe, teillátupia (c). izena. Teilatuaren azpian, dagoen lekua. Klean GUARDILLA deitzen zaio etxebizitzatarako atondua dagoenari. Baserrian GANBARA gisa erabili ohi da leku hori. *Guardillia artu dau Masterrekan, teillatupia. Badakizu, udan berua ta neguan otza.* Ik. **guárdilla**.

TEILLÉGIN, teillégiña (d). izena. Teilagintzan jarduten duen langilea. • Tejero. *Famelixa baten igual zeren ba iru seme eta bat etxian gelditzen zan, baiña bi igual ibilliko zien udan Araban, Naparruan teillegin ero eren lanetan, beste batzuk arrantzan itxasuan. Don.* TEILLEGIN JOAN, IBILLI...

TEILLÉRIXA, teillérixia (c). izena. Tejería, fábrica de tejas. *Altos Hornosko teillerixia itxitta dago.*

TEJÁBANA, tejábania (c). izena. Etxearen kontra, teilatua luzatuz askotan, eginiko estalpea. • Tejavana, cobertizo adosado a la casa. *Ari tejabanía ta, etxeordezkua ta; izen asko orrek gauza bat esateko. Don.* Ik. **etxe-ordézko**.

TEJERÍA, tejerixía (c). izena. Ehundegia, ehulearen lantegia. •Eta tejerixan zer egiten zeben? Euskal Herri guztian oso arrunta izan zen langintza hau gutxituz-gutxituz joan zen guztiz desagertu arte. Baserri guztietan egiten zen haria. Ehundegira eraman eta han etxerako ehuna egiten zen: jazteko arropak, mortajak, ohe-arropak, toallak, zauriak garbitu eta estaltzeko trapuak, zakuak..., kotoirik ez zegoen eta. Bergarako kalean, Angiozarren eta Osintxun zeuden ehundegiak gerrate inguruan itxi ziren. Ik. **eúntegi**.

TEJÉRO, tejerúa (d). izena. Ehulea. • Tejedor. *Guk artian zazpi urte zortzi, baiña aura orientaziñua ezta ba galtzen, ta bera gizona buruko ile zuri-zuri einddako..., bai edadetua, ta aura jarritta batian, tente bestian, ara jun, ari ikutu, bestiai ikutu, ibiltzen zan. Kamiñuan ondo-onduan, guk kamiñoti begira, ta umiek ezin ba kendu kristal aurretik. Batzutan mutil koskorrei ta gogor eitte otxen, baiña geuk antxe ikusi eitte giñuan. Hil./ Da gero, arilddu esaten jakon, da matazak ein, dda gero tejerua or zeuen, Osintxun eitte zan euna, Tejerokúan. Aniz.* Honela ikusten zuen ehulea Hilarik umetan. "Tejerokúa" zan Osintxuko eulearen etxea. Sin. **éule, eungílle**.

TÉJO, téjua (d). izena. TEFO (ARAM.). Jaki baten gusto arraroa edo berea ez dena. • Dejo, regusto o sabor a algo extraño, diferente del propio de un alimento. *Okela oni tejotxo bat artzen jat, ailorbiana ero./ Kriston armaixo tejua dauka txokolate onek.* Zer baiten tejua, ia beti, zerena dakigunean, bederen. *Gaztaiak tejua dauka, ta eztaikit zerena.*

TÉKI1. téki, tékixa (d). izena. Bildostegia, ardi-kortan bildots txikiak sartzeko izan ohi den itxitura. *Goizian atzera be berriro billotxak... sartu, kortan beren tekixan. Kortan billotxendako teki bat eitten da. Luis./ Billotxak danak esniak emundakuan sartu bere tekira, da billotxak tekira sartutakuan gero ardixei pentsua emun. Enr.* **2. teki, tekixe** izena. (Leintz) Txakurraren txabola.

TÉLA1. téla, télia (a). izena. Tela.**2. téla, télia** (b). izena. Esnegaina. Nata. *Baserriko esniak tela edarra eitten dau.* Sin. **esnégaiñ, esnégoen, esnétela**.

TELEBISÍÑO, telebisiñúa (a). izena. Telebista. • Televisión.

TÉMA1. téma, témia (c). izena. Terquedad, el no dar el brazo a torcer. *Umiak eztau jan nai, ez goseik eztaukalako, temia daukalako baiño.* **téman ibílli** (c). esapidea. Eztabaidan, istilutan, ibili. *Teilatupe batian bizi tta beti teman ibilli biarra be tristia da.* **2. tema, temia** izena. (Eibar) "Egurak ebagi eta okertzeko daukan joeria." (SB Eibetno). Sin. **bízio**.

TEMÓSO, temosúa (c). adjektiboa. Tematia. • Terco, -a, obstinado, -a. *Oso mutiko temosua da. Gauza bat buruan sartze jakonian, zeñek etara...*

TÉNAZA, ténazak (c). izena. Tenazas. Sutegian erabiltzen direnak, adibidez.

TENEDÓRE, **tenedoría** (a). izena. Tenedor.

TENGOTENIAN adberbioa. (Eibar) "Zerbait orekan, baina ozta-ozta, kilikolo samar dagoenean. *Funanbulistia tengotenian zeguan alanbre gaiñian.*

TÉNKA, **ténkia** (c). izena. Asentzioko putzuan, lantegietako teilatuetan, etab. egoten den arrain mota. • Leucisco cabezudo, tenca. Batzuek gorriak eta besteak ilunak izaten dira. Gorriei **ARRAIN GORRI**xak deitzen zaie.

TENPLÁU1. tenpláu, tenpláua (d). adjektiboa. Lasaia, mantsoa. • Tranquilo, -a, sosegado, -a. *Persona tenplaua da izan, baiña dana biako dau.* Pertsona ez esana.**2. tenpláu** (c). adberbioa.

Lasai, soseguz. • Sosegadamente. *Bere katxabatxuakin tenplau asko ibiltzen dok aura./ Tenplau eitten dau berba.*

3. tenpláu (c). da-du aditza. Epeldu. • Templar. *Gaur asko tenplau dau egualdixa./ Gatzarixa bota aurretik tenplatzen laga bia jako esniai.*

4. tenpláu (c). aditza. Forjatu ondoren erreminta edo pieza bati erresistentzia eta gogortasuna eman, uretan poliki-poliki sartuz. • Templar. *Gero tenplau. Uretan tamaiñua artu biar. Orrek galtzairuzko iddetaxak peligrasuauak izate zian, denpora askuan eukitzen bozu uretan, bertan geratu, eten itte zian. Inaz./ Taillarretan-da ortxe, tenpliak emon-da, burdiñia suberatzeko-ta, kañoiak-eta peatzeko-ta. Cand. Sin. arua emon (Eib.).*

TENPLE, **tenplia** (c). izena. Temple.

tenple onekoa edo txarrekoa izan esapidea. Patxada onekoa edo txarrekoa izan.**tenple onian edo txarrian egon** (c). esapidea. Aldarte oneko edo txarreko egon.**tenplera etorri** esapidea.

Tenperatura egokira heldu, behar duen puntua lortu sutegian berotutako gauza batek. *Lau bat egun eo pasautakuan, erretakuan, geo itxain in biaakon egun batzuk; gero etaatzeko ba, bere tenplera etorri ero. CAND. Ik. tenpláu.*

TENPLE ONEKOA EDO TXARREKOA IZAN Patxada onekoa edo txarrekoa izan.

TENPLE ONEKOA EDO TXARREKOA IZAN esapidea. Patxada onekoa edo txarrekoa izan.

TENPLERA ETORRI esapidea. Tenperatura egokira heldu, behar duen puntua lortu sutegian berotutako gauza batek. *Lau bat egun eo pasautakuan, erretakuan, geo itxain in biaakon egun batzuk; gero etaatzeko ba, bere tenplera etorri ero. CAND. Ik. tenpláu.*

TENPORAK Ik. **kuartá-ténpora**.

TENSIÑO, **tensiñúa** (b). izena. **TENTSIÑO**. Tensión sanguínea. *Tensiño altukua izan da beti.*

Gerrittik gora tensiñua eta gerrittik bera intenziñua (c). esaera. Zahartzaroko ajeen ondorioak modu umoretsuz azaltzen dituen esaera. *Da Benitxo, diñuenez emakume kontuan-da ondo egon biar jok Frantzia, e?* Behin gure lagun bat medikuarenean tentsioa hartzetik zetorren, eta galdetu genion:

TENSIÑO BEDAR izena. (Eibar) Centaurium erythraea. Centaurea menor. Ik. **bedár miñ**.

TENTÁU (b). du aditza. Zirikatu. • Tentar. *Etzaitte umiak tentatzen ibilli.* **TENTÁUTA EGON.** *Ameriketara joateko tentauta nago.*

TENTAZÍÑO, **tentaziñúa** (a). izena. Tentación.

TENTE1. tente (a). adberbioa. Zutik. • Erecto, erguido, de pie. *Oinddio tente dago botatzeko zien etxia./ Liburua leitzen tente jarri jat txorixa.* Ik. **tentétu, zútik**. **2. ténte, téntia** (c). adjektiboa. Zuzen eta aidoso dabilena. • Tieso. *Larogei urte euki arren gizon tentia dago.* **3. ténte, ténte** (c). adjektiboa. Inoiz "harro" edo "jaiki" zentzuan entzuten da, hauek bezain peioratiboa izan gabe. • Altivo. *Sinpatikua da, baiña tente samarra.* **4. ténte, téntia** (c). adjektiboa. Dícese de la carne tiesa. *Aragi ona bai, baiña tentia./ Aragi tentiaua dauka zapuak legatzak baiño.* **5. ténte, téntia** (c). izena. Belarrondo edo garoz kargaturiko gurdiak lotzeko gurdikada gainean sartzen den zutiko egurra. • Palo que sirve de eje para agarrotar la cuerda que ata un carro cargado. *Artu aixkoria ta tentia eñ burdixa lotu daigun.* Ik. **garróte, tenté-gárrote**.

TENTÉ-GÁRROTE, tenté-gárrotiak (c). izena. Tenteak eta garroteak. • Palos que sirven para agarrotar la cuerda del carro. *Tente-garrotiak aaztuta etorri ga basora.* Ik. **garróte, ténte**.

TENTEKO Ik. **zutiko**.

TENTÉTU1. tentetu (b). da aditza. Tente jarri. • Erguirse, ponerse derecho. *Zeukan mozkorrakin ezin zan tentetu be eñ.* **2. tentetu** (c). da aditza. Adoretu, animatu. *Baju ibili naiz aspaldixan baiña ointxe tentetu biar dot, bai.* **3. tentetu** (b). zaio aditza. Zakila tente jarri. *Orri onezkeroko etxakok tentetzen.* Ik. **jaiki**.

TERKEDÁDE, terkedadía (c). izena. Terquedad. *Terkedadiak eukitzeittu gure umiak./ Terkedadiak emote jaonian eztao aguantzatzeik.*

TÉRKO, térkua (a). adjektiboa. TREKO. Terco, -a. TREKO ere entzun izan da: *Zu treko, ba ni be treko (erdi brometan esan ohi da).* **astúa átzeraka baiño térkuaua izan** esapidea. Oso terkoa izan.

TERRAJE, térrajia (c). izena. Terraila, torlojuei haria ateratzeko tresna. • Cojinete. *Ta gero amen dau ba beste terraje zar bat, Wilburra, tornilluak eitteko-ta barilliai lenengo burua etaa, onekin roska etaa. Jen.*

TERRAL, terrala izena. (Eibar) "Terral? Oso haixe hotz eta lihorra, izotza dakarrena." (SB Eibetno).

TERRÁPLEN, terrapléna (c). izena. TERRENPLEN. Terraplén. *Eta juzgauan goixan, gaur eztakitt zela dauan, eskillerak igo ta terraplen aretan bandia. Sot. (AA BergEus, 334. o.).*

TÉRRAZA, térrazia (a). izena. Terraza. *Usoa-ko terrazan etxoingotsut.*

TÉRRENO, térrenua (a). izena. Terreno.

TERTÚLIXA, tertúlixia (b). izena. Tertulia. *Tertulixia asko gustatze jako Ximonai./ Gustora gare tertulixan.* TERTULIXAN EGON, batez ere.

TÉRZERAN1. térzeran (c). adberbioa. Trenean hirugarren kategoriako bagoian. Ik. **prímeran**. **2. térzeran** (c). adberbioa. Futboleko hirugarren dibisioan. *Aspaldixan Bergaa eztok egon terzeran.* Beste lekuzko kasuetan ere bai: *terzerako, terzeratik, terzerara...* Ik. **ségundan, prímeran**.

TESTÁMENTU, testámentua (a). izena. Testamento.

TESTÍGU1. testigu, testigúa (b). izena. Lekukoa. • Testigo. *Esaten dozuna probatzeko badaukazu*

testiguik?/ Insultau ein ziñuan, da neu naiz testigu. **TESTIGU IZAN, TESTIGU** El**testigu izan, testigu eiñ, testigu moduan juiziora joan, etab** Testigu izan, testigu eiñ, testigu moduan juiziora joan, etab.

2. testígu, testíguak (d). izena. Mugarriaren ondoan lurperatu ohi ziren gauzak, lekukotasuna emango zutenak mugarrira norbaitek lekuz aldatu ezker. • Señales que se enterraban junto a los mojones. *Testiguak; teilla-kaskuak eta iketza. Bi aldetatik teilla-kaskua, edo biña, da iketz kasko bat ero bi. Egurriketza eztok usteltzen. Don.*

TESTÍGUTZA, testígutzia (c). izena. Testigu lana. • El papel de testigo. *Juiziuian ia testigutzia eitteko prest garen preguntau dosku Paulok./ Zure testigutziak eztau ezetarako balio, mozkortuta zenden da.*

TÉTANO BÉDAR, tétano bedárria (d). izena. . anagallis arvensis. Pasma belarra. • Murajes. Sin. **pasmo bedar.**

TETE izena. (haur hizkera.) Txupetea.

TÉTXU, tetxúa (c). izena. Gela baten zerua. • Techo.

1. TI-TI-TI onomatopeia. (Eibar) TXI-TXI-TXI. "Hacer algo con cuidado, dando golpes suaves y pequeños. *Han ibiltzen zittuan grabadoriak, ti-ti-ti, kuidau haundixakin biharrian, egun osuan geldittu barik.*" (SB Eibetno).

TI-TI-TI1. ti-ti-ti onomatopeia. (Eibar) "Hacer algo con cuidado, dando golpes suaves y pequeños. *Han ibiltzen zittuan grabadoriak, ti-ti-ti, kuidau haundixakin biharrian, egun osuan geldittu barik.*" (SB Eibetno). **2. ti-ti-ti** onomatopeia. (Eibar) "Rapidez. *Batzuk dittuk kalmauauak; guria dok nerbiosia eta txi-txi-txi!: jo eta hanka eitten jok segiduan.*" (SB Eibetno)

TÍA, tía (a). izena. Tía. *Zer esan dotsu tiak?/ Gure Eibarko tiak (plurala) asko nai doskue.* Ik. **izéko, tío.**

TÍGRE, tígria (a). izena. Tigre.

TÍJERA1. tíjera, tíjeria (d). izena. Etxegintzan, gailur-egurra eta goi-hagak eusteko erabiltzen den triangelu formako egitura. *Tijeran montauta egoten dok egurra tiriai eusteko, ta tjeria, guk oixe esateotsau. Don.* Tijeraren zapatari alboetan hagin bana ateratzen zaio, tjerak alde banatara dituen tjeria-besoak kateatuta gera daitezten. **tíjera-beso, tíjera-besúa** (d). izena. Tijeraren egitura sendotzeko erabiltzen den habea. *Gero besuak ifintze jakoz, ueko aundixak beera eiñ ezteixan. Sebas.* Besoak ez dira tjeraren zapata gainean ipintzen, tjeria-postean egindako kaxetan sartzen dira. **tíjera-poste, tíjera-póstia** (d). izena. Tjerak erdian duen zutikoa. Goian bi hagin izaten ditu tjeria-besoekin bat egiteko.

tíjera-zapata, tíjera zapatía (c). izena. Tijeraren azpiko egurra. *Ori tjerian zapatia. Sebas.* **2.**

tíjera, tíjeria (b). izena. Oholak zutinik ipintzeko era, euriak garbi ditzan. Oholak elkarren kontra jartzen dira angelu txiki batekin, hartzen duten ura erraz bota dezaten. *Ba lenengo euki biar izaten ziñuan tjeria ero esateakon; ola ipini bata bestiai zeian, da kanpuan garbittu eitten zan egurra. Martin.* **tíjeran ipini** (c). aditza. Goian aipatutako eran ipini. *Zuk aura ein biozu ebai, da tjeran ifini*

biozu ola, tijeran; eurixa artu ta sikatzia komeni jako; zerrautsa garbittu ein biejako dana. Sebas.

TIK onomatopeia. "Bapatekotasuna eta bizkortasuna. *Antzueluekin tik! urtetzen zeben. Tik!, amua kendu eta potera.*" (SB Eibetno).

TIKILI-MAKALA lk. **díngili-dángala**.

TIKILI-TOKOLO lk. **tipili-tapala**.

TIKI-MIKI lk. **kinkí-mínki**.

TIKI-TAKA TIPI-TAPA.

TILIN-TALAN lk. **dilín-dalán**.

TÍLO, -U, tílua (b). izena. . TILLO. *tilia platyphyllos*. Ezkia. • Tilo. Kerizpe ederra ematen duen arbola galanta. Tilo-lorak, zabaldu eta berehala sikatzea komeni da. Jakina denez, nerbioak sosegatzeko ez dago tila bezalakorik. Bihotzerrearentzat ere ona da.

TINKO, tinkoa izena. (Eibar) "Estaca, palo. • Erromarak, itxiturak eta antzerakuak eusten dittuen egur zatixak; baita ortuan landareri (tomatia, babak...) zuzen hazi deittian aldamenian ipintzen jakuezenak be." (SB <i>Eibetno).

</i> lk. **ésola, párra**.

TÍNTA, tíntia (a). izena. Tinta.

TINTÁU (a). aditza. Tintar, teñir. *Esku guztiak tintauta ekarrittu eskolatik*. Bergaran oihala tintatu ohi da: *Tintautako arixak ekartzen zian, baiña bestela, gero ankiña eitteko, azula eitteko, orrek danak arixa tintau barik, eta gero tintau. Josu.*

TÍNTE, tíntia (a). izena. Tinte. Besteak beste, zenbait zuhaitzi sortzen zaiona. *Beiñ gabonak ezketzio pasatze akon aitzari-txa, tintia formatze akue ipurdixan. Sebas.* Behin abenduko hilbehera pasatu ondoren tintea asko gehitzen zaio zuhaitzari; horregatik, siku dagoen bitartean, hau da, azaro eta abenduko ilbeheran, botatzea komeni da tinterik atera ez dakion.

TINTERO, tínterua (b). izena. Tintero.

TÍÑA, tíñia (d). izena. Lixibontzia, hala deitzen zitzaion etxe gehienetan. • Tina de colada. *Sukaldetan be leku askotan egote zuan tíñiandako lekua. Klem./ Erropia, berriz, lixibia; tíñia, tíñia aundixa, egurrezko tíñak..., beia estua ta gora zabala izetia, tíñia. Hil. Sin. errópa-bárrika. lk.*

lixa-pótzu, lixíbontzi.

TÍO, tio (a). izena. TIÓ-DÓMINGO. Osaba. *Tiok bizikletia erosi dost*. Berdin mugagabea zein mugatu singularra. Plurala: *San Paulotan etortze zien Eibarko tiuak. Osaba edo izeba jakin bat aipatzerakoan honela: Tl lk. izéko, osaba, tía. tio ameriketatik etorri* (c). esapidea. (eufemismoa.)

Hilekoa jaitsi. *Billurtuta najaon, oin dala iru egun zonan etortzeko tio Ameriketatik, eta etxakiñat abioia galdu-ero.*

TIÓBIBO, tióbibua (a). izena. Tiovivo. *Paskuetan etortzen die tiobibuak.*

TIPÍLI-TÁPALA1. tipíli-tápala, tipíli-tápalia (d). adjektiboa. Pertsona motela berbetan, ibiltzen, etab. • De poco garbo hablando, andando, etc. *Tipili-tapalia...*, *motela; berbetan ero, ibiltzen ero. Tipirri-taparria: salerosia, eta bestia motela. Klem.* Ik. **tipírri-táparra**. **2. tipili-tapala** (c). onomatopeia. Ibilleren motel eta baldar samarrez. • Onomatopeya del caminar despacio y con cierta torpeza. *An jetuan gizona tipili-tapala kamiñua betian.* Sin. tikírri-tákarra. tiríki-tárraka, tikíli-tókolo, tipirri-taparra, tripili-tapala... Ik. **txikili-txakala**.

TIPÍRRI-TAPÁRRA1. tipírri-táparra, tipírri-táparria (c). adjektiboa. (adierazkorra.) Ganora eta grazia andikoa; aldi berean berrikeratsua ere bai. • Persona salerosa. *Ba bat ola salerosia danian ero, tipirri-taparria. Klem./ Eztau emoten, baiña tipirri-taparria da aura.* Emakumez, batez ere.**2. tipirri-taparra** onomatopeia. Sugarren hotsa.**3. tipirri-taparra** (c). onomatopeia. Ibilleren motel eta baldar samarren onomatopeia. Sin. **tipili-tapala**. **4. tipírri-táparra, tipírri-táparrak** (c). onomatopeia. Lehen goxoki saltzaileek erromerietan saltzen zituzten kartoian itsatsitako polbora bolatxoak, harrian igurtzi eta txinpartaka hasten zirenak. • Voz onomatopeica que da nombre a unas bolitas de pólvora adheridas a un cartón que se vendían a los niños en la romerías. *Montoyai (karameleroa) tipirri-taparrak erosi eta an ibiltze giñuztan atzapar guztiak erre biarrian.*

TÍPO, típua (b). izena. Tipo. Gaztelerazko zentzu guztietan, baina batez ere "harro", "lelo" esanahian. *Ori dok tipua ori; ze uste jok pa, bera bakarrik bizi dala, ala?*

TIPÓSO, -A, tiposúa, -ía (c). adjektiboa. Tiposo, -a, de buen porte. *Gaztetan oso neska tiposia zan.*

TÍRA1. tíra, tíria (c). izena. Salgarritasuna. Gauza batek erraz saltzen denean "tira ona" daukala esan ohi da. • Demanda, facilidad de venta de un producto. *Gaur plazan lekiak eztau bape tiraik euki./ Reinetiak febrero aldera eukitzen dau tira onena.* TIRA AUNDIxa ere bai.**2. tíra, tíria** (c). izena. Itsaso edo errekek duen eramateko indarra. • Se dice de la corriente de un río o de la resaca del mar. *Errekiak tira demasa dauka./ Saturraranen tiriak ixa eruan giñuzen.* **3. tira** (c). Hainbestean ere, hainbestekoa ere. • Bueno, aún. *—Ze moduzkua zan pelikulia? —Tira; ikusi zeikien./ Eran barik dauanian, tira, baiña bestela ezin da aguentau.***4. tira!** (b). interjekzioa. Vamos!, por favor! venga ya! *Tira gizon! umien aurrian ezta olakoik esaten./ —l, lagidak milla duro. —Tira, tira! Eskatuixok amai.* **5. tira ba!** (b). interjekzioa. Venga pues. *Tira ba! Ordua da jaikitzeo./ —Noiz erosi biar dostazu fuboleko zapatak? —Tira ba! Artu bos milla pezeta ta erosi zeuk.* **6. tira eiñ** (b). dio aditza. Tirar, estirar. *Atiai tira eiñ zabaldu nai bozu.* Ik. **tirátu. tíraka** (a). adberbioa. Tira egiten. *Praketatik tíraka daukat denpora guztia ume petral au./ Zetan zebitzen goizian kable orri tíraka?/ Etzaitut txori txikixei tíraka ikusi nai.* NONDIK edo ZERI tíraka.

TIRÁGAILLU, tirágaillua (c). izena. Sutegiko auspoari eragiteko haga.

TIRÁGOMA, tirágomia (b). izena. Tiragomas. *Tiragomiakin eitte giñuan txorittan.* Gaurko umeek (zer den dakitenek), TIRÁGOMASa.

TÍRAKA (a). adberbioa. Tira egiten. *Praketatik tíraka daukat denpora guztia ume petral au./ Zetan zebitzen goizian kable orri tíraka?/ Etzaitut txori txikixei tíraka ikusi nai.* NONDIK edo ZERI tíraka.

TIRAKÁRA, tirakaría (b). izena. Tirakada, tira egiten den aldia. *Sokatiran iru tirakarara jokatzen da./ Tirakara bat eixok burdi oni./ Azelakotxe tirakarak eitten zotsan zigarruai.*

TÍRAN EGON (b). aditza. Estar tenso, en tensión, un objeto, una cuerda generalmente. *Ekilibristia ibili deiñ* *sokiak tiran egon bia dau.* **tiran lana eiñ** (d). esapidea. Trabajar a tracción un madero (etxegintza). Ik. **zutittara lana eiñ**.

TIRAN LANA EIÑ (d). esapidea. Trabajar a tracción un madero (etxegintza). Ik. **zutittara lana eiñ**.

TÍRANTE, **tírantia** (b). izena. Etxegintzan, hormatik postera botatzen den egurra. • Tirante.

TIRÁTU (Leintz) **TIRETU** (LEIN.). **1. tirátu** (b). dio aditza. Tirar, estirar. *Ezidazu praketatik tiratu.* Ik. **tira eiñ**. **2. tirátu** (b). aditza. Motor bat indartsu ibili. *Ostera tiretu, lauen zerbaitt baiñe aldatz goran bapez, astuaz be hareaz baiño aguruau.* (AA ArrasEus, 208. o.) **3. tirátu, tirétu** (b). du aditza. Tximiniak kea kanpora atera. • Tirar una chimenea. *Ze moduz tiratzen dau zuen tximinixiak?* **4. tirátu** (b). dio-du aditza. Tiroa bota. • Disparar. *Txantxangorrixei be tiratzen dotse azkenian./ Anporretatik pe tiratzen oskuen guri. Fran./ Tiratu neban ilunetara ta basurdia jo.* Sin. **tiro eiñ, tirua bota**. **5. tirátu, tirétu** (d). aditza. Errementaritzan, tresna bati ahoa atera. *Galtzairuzko llanta bat pegatze akon aixkoriai, tta a gero a tiratu mallukiakin jota, ta gero tenplau.* Inaz. **6. tiratu, tirétu** aditza. (Eibar) "Materixala zulo batetik pasau eragiñez, luzetu, mehetu edo neurrixan jarri. Hotzian zein beruan egin leike." (SB <i>Eibetno).

</i>**7. tiratu, tiratúa** (b). izena. Cansancio debido un esfuerzo intenso, matada. *Kriston tiratua artu najuan muebliak etxetik etaratzen./ Azelakotxe tiratua artu giñuan Aixkorri igotzen.* **TIRATUA ARTU**, gehienbat. **8. tiratu, tiratúa** (c). izena. Zantiratua. *Sorbaldan daukat tiratua.* Ik. **zantirátu**.

TIRÍZI, **tirizíxa** (d). izena. Ictericia, hepatitis. *Ba oixe, hepatitis; len tirizixa esaten jakuan orri. Ori-ori eindda ta, kaxkartuta ta, jateko gogoik ez, botaguria betik eta; tirizíxa. Don.*

TÍRO**1. tiro, tirua** (a). izena. Tiro, disparo, explosión. *Eskupeta tirua entzun da./ Azelako tirua etara bia daben puxika orrek.* **TIROBATEKO**. **TIROBAKAR**. Tiro bateko eskupeta. **TIROBIKO**. Tiro biko eskupeta. Eskupeta bi jaukaraz: tirobakarra eta tirobikua. (SB Eibetno). **tiro eiñ** (b). Disparar. *Sasi artera ein najuan tiro.* Sin. **tirua bota, tirátu. tíroka** Tiroak botatzen. *Bentanatik tíroka asi zan.* **tirua bota****1. tirua bota** (a). aditza. Disparar. *Ikusi orduko tirua bota najotsan erbixai.* Sin. **tiro eiñ, tirátu**. **2. tirua bota** esapidea. "Gezurra edo exagerazio bat esan. *Orrek botatze jittuk tiruak!*" (Lar Antz). **3. tírua bota** esapidea. "Hizkuntza baten gaizki esaten den hori eta horrek sortzen duen belarriko mina, 'dundurixua'. *Gure mutikuak botatze jittuk tiruak, euskeraz aaztu in bi jaku, ze da baiña au.*" (Lar Antz) **tírua eiñ****1. tírua eiñ** (a). aditza. Explotar.

Tirua ein ddau kubiertiak. **2. tirua eiñ** (a). aditza. Disparar. *Zeiñek ein ddau etxeaurrian tirua?* **3. tirua eiñ** (c). esapidea. Kirolari batek pot egin azkarregi hasteagatik. *Amargarren kilometruan tirua ein najuan./ Mindegiak tirua ein juan azkenengo tronguan./ Tiro galantak egon zittuan azkenengo maratoian.* **2. tíro, tírua** (b). izena. Tximiniako kebidea zabaldu eta itxi egiten duen burdina. • El tiro de la chimenea. *Ainbeste ke botatzeko, itxitta daukazu ala tirua?* Tximinia batek tiro ona edo txarra daukala esan ohi da, segun eta nola tiratzen duen. **tirua artu** esapidea. Txondorrak edo tximiniak indarra hartu ondo tiratzen duelako. *Gero nola demaseko tirua artzen daben orrek... Mateo.*

TIRO EIÑ (b). **TIRUA EIÑ**. Disparar. *Sasi artera ein najuan tiro.* Sin. **tirua bota, tirátu**.

TÍROKA Tiroak botatzen. *Bentanatik tíroka asi zan.*

TIROTS, **tirótsa** (c). izena. Tiro hotsa. • Ruido de disparo. *Gaur goizaldera tirotsa izan da etxaburuan.* **TIRO OTSA**, bi hitzetan ere bai.

TIRRI, tírrixa (d). izena. TÍRRIXA, -IA. Gogo, asmoa. *Gure soziedadian sartzeko tirrixa daukenak, merke ipintzen bajakuek, sartukoittuk./ les eitteko tirrixa darabill. (AAG Eibes)*

TIRRI ETA TARRA onomatopeia. (Eibar) Uzkerra dariola. *Sutonduan daukagu tirri eta tarra gure mutilzarra. (AAG Eibes)*

TIRRIKI-TARRAKA lk. **tipili-tapala**.

TIRUA ARTU esapidea. Txondorrak edo tximiniak indarra hartu ondo tiratzen duelako. *Gero nola demaseko tirua artzen daben orrek... Mateo.*

TÍRUA BOTA**1. tirua bota** (a). aditza. Disparar. *Ikusi orduko tirua bota najotsan erbixai. Sin. tiro eiñ, tirátu. 2. tirua bota esapidea. "Gezurra edo exagerazio bat esan. *Orrek botatze jittuk tiruak!*" (Lar Antz).**3. tírua bota** esapidea. "Hizkuntza baten gaizki esaten den hori eta horrek sortzen duen belarriko mina, 'dundurixua'. *Gure mutikuak botatze jittuk tiruak, euskeraz aaztu in bi jaku, ze da baiña au.*" (Lar Antz)*

TÍRUA EIÑ**1. tírua eiñ** (a). aditza. Explotar.

*Tirua ein ddau kubiertiak.***2. tirua eiñ** (a). aditza. Disparar. *Zeiñek ein ddau etxeaurrian tirua?***3. tirua eiñ** (c). esapidea. Kirolari batek pot egin azkarregi hasteagatik. *Amargarren kilometruan tirua ein najuan./ Mindegiak tirua ein jua azkenengo tronguan./ Tiro galantak egon zittuan azkenengo maratoian.*

TITÁRA, titaría (b). izena. TITERA (ARAM.). Dedal.

TITI, titíxa (b). izena. Teta. *Titi polittak dauzka neska orrek. titíxa artu (a). du aditza. Mamar. *Oso ondo artzen dosku titíxa.* lk. **petxúa artu, bular. titíxa emon** (a). dio aditza. Amamantar. *Ez i dotsa titirik emon biar.* lk. **petxúa artu, bular. titíxa émutiai laga** (b). Destetar. Sin. bularra emutiai laga.*

TITÍARRO, titíarrua (d). adjektiboa. Titi tenteak dituen emakumea. • Mujer de tetas tiesas. *Alako titiarro batekin ikusi najuan.*

TITÍAUNDI, titíaundixa (b). adjektiboa. Titi handiak dituen. *Mutillak pe izaten die titiaundixak.*

TITI-BÚRU, titi-burúa (d). izena. Pezón de persona. lk. **tití-púnta**.

TITIJÓRRA, titijorría (c). izena. (lagunartekoa.) Titi ikuketa edo azterketa. • Acción de palpar o magrear tetas. *Ze, atzo naikua titijorra eiñ eban rubixa arekin?* Inesiboan, batik bat.**titijorrán****1. titijorrán** (c). adberbioa. Titiak ikutzen. *Dantzan baiño geixao titijorran ein giñuan. 2. titijorrán (c). esapidea. Kolpe zorrikerik jo gabe emakumea. *Egun guztia titijorran egonda eztago ezer.* lk. **potrojóra**.*

TITÍKO UME, titíko umía (b). Niño de teta. *Titíko umia ziñan gerriak urten zebanian./ Titíko umia emoten dozu.*

TITILL, titillak izena. (Eibar) "Mollejas de cordero." (SB <i>Eibetno).</i>

TITI-MÚTUR, titi-mutúrra (c). izena. Pezón de persona. Sin. **tití-púnta**.

TITÍ-PÚNTA, **tití-púntia** (b). izena. Pezón. *Titi-puntak erre zotsen kuartelían*. Taberna giroan, adar-puntak ere esaten zaie nesken titi zorrotzei. *Egongo dok Miuraren bat San Ferminetan adar-punta txikixauekin*. Sin. **titi-mútur**.

TITIRRI, **titirrixa** adjektiboa. (Eibar) "Pazientzia, egonarririk gabekoa. • Impaciente. *Titirrixa danetik ezin geldik egon*.

TOALLA, **tóallia** (a). izena. Toalla.

TÓBERA, **tóberia** (d). izena. Ermentariaren sutegira auspoak edo haizegailuak sortzen duen haizea eramaten duen tutua. • Tobera. *Auspua eraitteko toberia, bai toberia. Gero emen zulotik urtetze otsan aixia; zenbat eta bizkorrau eragin dda aixe geixau. Inaz*.

TO BERBA EIÑ esapidea. (Leintz) Hika berba egin. *Orrek to berba itten dau*. Ik. **íka**.

TOITX interjekzioa. "Ardiei deitzeko modua. *Toitx, toitx, toitx... ta etorri itte zien*." (Lar Antz) Sin. **toz**.

TÓKA, **tókia** (d). izena. Toka jokoa. • El juego de la toca. *Amatiñon be bazuan tokia; orduko sardantei geixenetan izete zuan. Klem.* Ik. **doke joku, tokera**.

TOKÁMEN, **tokaména** (d). izena. Herentzia partea. Ik. **senipárte**.

TOKÁMENTU, **tokámentuak** (d). izena. Dokumentuak; hitzak oker aditzeko erraztasuna duen zenbait erabilia. • Documentos. Llamábanle así algunos por confusión y por ser la palabra castellana que les sonaba más parecida. *Maltzako* Klementak esana zesteroaren hitzak ekarriz; "anderiñia" andena da, hau ere zesteroak asmatua. Antzerakoa gertatzen da beste zenbait hitzekin: alikante, antomoill, dronillo, barbantzu, kalamonika...

TOKATORREKA (d). adverbioa. **TOKOTORREKA** (ANTZ.). Ume jolasa. *"Toca y corre"tik dator hori, tokotorre./ Tokotorreka aurreko pala bixak apurtu nittuan*. Ik. **mórroka**.

TOKÁU (a). da-zaio aditza. Tocar, corresponder. *Zeiñi tokatze jako fregaua eittia? Bestalde, Ari tokau eitte jako esan ohi da, batzuetan ironiaz, honako honetan bezela: Gizon aberats batekin ezkondu ei zan Eibarko neska bat, eta andik puntuko joan ei jakon amai negarrez, gizonorrek keridia zeukala ta. Amorek esan ei zotsan: "Badakizu ba, ari tokau eitte jako ta".* **bai tokáu be**

astuái pólaiñak esapidea. Dagokiona baino jazkera dotoreagoa eramateagatik edo halako gauzengatik norbaitez adar-soinuan esan ohi den esapidea.

tókatzeko be aundixá izan (c). esapidea. Ezusteko txarra edo zelebrea gertatu.

TOKERA (Eibar) "Juego de dinero que se hacía con monedas de cobre. El que más cerca de la pared o de un cuchillo clavado en el suelo dejaba la moneda se llevaba el resto." (SB Eibetno). Ik. **doke joku**.

TÓKETA, **tóketia** (d). izena. Musika pieza. *Eta gero Bidekutzian bi, toketak esaten gontsan, bi pieza, toketak zien orduan. Sot. (AA BergEus, 334. o.). Erdarazko "*

TÓKI, **tókixa** (a). izena. Lekua. • Sitio, lugar. Sin. **léku. tokittan** esapidea. Ik. **lekútan**.

TÓKILLA, **tókillia** (b). izena. Toquilla, chal. *Gero asi zien tokilla batzuk; aura abrigo aundixa izete*

zan, tokillia, gerriraiño zera. Aniz.

TOKILLO, tokillua izena. (Antzuola) "Ganbara bazterrean egoten zen toki itxia; bertan txitak ateratzen ziren edo mizpirak gordetzen ziren. *Erautzan txorixuak tokilluan eote zien.*" (Lar Antz) Etim.: toki+illun. Bada Oñatin Tokillo izeneko baserria.

TOKITTAN esapidea. Ik. **lekútan**.

TOKOTORREKA Ik. **tokatorreka**.

TÓLBA, tólbía (d). izena. Tolva de molino.

TÓLDO, tóldua (a). izena. Toldo.

TOLÓSA BÁBA, tolósa babía (b). izena. . Babarrun gorria, batzuentzat, "pinttana" beste batzuentzat. Sin. **tolósana**. Ik. **baba**.

TOLÓSANA, tolósania (d). izena. . Tolosa-baba. Ik. **tolósa bába**.

TOLÓSTU (b). **TOLÓSTAU, TOLÉSTAU**.1. **tolóstu, tolóstau, toléstau** (c). du aditza. Tolestu. • Plegar, doblar. *Prakak kendutakuan, tolostu ta armaixora*. 2. **tolóstu, tolóstau, toléstau** (c). du aditza. Txukun eta hutsarterik gabe jarri bata bestearen gainean, gehiago kabitu dadin. Apilar *Bandixuan sartzen dou, da gero tolostau*. Don.

TOLOSTÚRA1. **tolostura, tolosturía** (c). izena. Pliege o marca de doblado de una ropa. *Tolosturatik ero joskuratik apurtzen die frakak*. 2. **tolostura, tolosturía** (c). izena. Gauzak bata bestearen gainean hutsarterik gabe jartzea. • Apilamiento.

Tolosturía lapúrra dala (d). esaera. Gauzak tolostutakoan gutxitu egiten direla dirudiela.**tolosturán ipini** (c). esapidea. Tolostuta jarri. *Ta gero aura lixibia jabondu, tolosturan ipini eta sutako autsakin egosi*.

TÓMA1. **toma!** (c). interjekzioa. Txakurrari hurbildu dadin esaten zaion hitza. • Palabra con la que se llama al perro. *Toma txitxi...! Etorri bia danian noberagana*. Klem. Don.k berriz dio **T2. tóma eiñ** (c). esapidea. (lagunartekoa.) Premina denean kasorik egin ez. • Desentenderse. *Tio aberatsa jeuken, baiña eske joan jakuenian toma ein jotsen./ Abadiak pe, erei dirua eskatu ezker, toma*. **Toma**, beso-imintzio adierazkor batez laguntzen da inoiz, **izurrairen** (jódete) berdina.

TÓMATE1. **tómate, tomatia** (a). izena. . solanum esculentum. Tomate.2. **tómate, tomatia** (d). izena. Antzinako karta-jokoa. Kulapea, Don.ren ustez.

TÓNGO, tóngua (b). izena. Tongo. *Bista-bistako tongua egon zuan atzo Atotxan*.**tongo eiñ** (b). aditza. Hacer tongo. *Polipasok tongo ein zebala aixkol-jokuan entzun zan*. Sin. **irutxur egin**.

TONGO EIÑ (b). aditza. Hacer tongo. *Polipasok tongo ein zebala aixkol-jokuan entzun zan*. Sin. **irutxur egin**.

TONGOLÁRI, tongolaríxa (c). izena. TONGÍSTA. Tongo egin zalea.

TONK lk. **trínk eiñ**.

TONTÁMENTIAN (b). adberbioa. (lagunartekoa.) Tontamente. *Tontamentian asi nitzan zigarruai tirakara batzuk eitten da gero ziero biziaiu.* Sin. **tonto abarrian**.

TONTO, -A, tóntua, -ia (a). adjektiboa. Tonto, -a.

Tonto-faltia dago esaera. TONTO-FALTIA dagola edo datorrela esan ohi da, umorez; honekin adierazi nahi da tontoak beharrezkoak direla, bestelakoak ondo bizi daitezen. *jatok demasa. Emen sekulako problemia etorri biok laster: tonto-faltia jatok demasa.* **Tontua izeteko eztao estudixau biarrik** esaera. (Lar Antz). **tonto abarrian** (c). esapidea. Tontamente. *Tontoabarrian asi ginuztan alkarri adarra joten eta azkenian asarretu.* lk. **abarrian, tontámentian, tonto-plantak egin** (b). esapidea. Tonto-itxurak egin. *Ezik tonto-plantaik ein, bajakixat eta nun gorde doken nere erlojua.* Sin. **tontoburu egin** (Aram.). **tontó-usaiñak kendu** (b). esapidea. *Quitar o írsele la tontería a alguien. Ikusikok, soldauxkara joate aizenian an kendukoske tonto-usaiñok.* lk. **zoró-úsaiñ**.

TONTÓARRO, tontóarrua (b). adjektiboa. Tontoa eta harroa aldi berean. • Tonto y arrogante. *Kazari ori tontoarro majua dok./ Petrikillo, Sakabitxa, Trukuman ta arek zittuan medikuak, arek, eta ez beste tontoarro onek. (SM Zirik).*

TONTOKERÍXA, tontokerixía (a). izena. Tontería.

TONTÓLAPIKO, tontólapikua (b). adjektiboa. (adierazkorra.) Borono, tonto (gehienetan ez zaio zentzu iraingarriegirik ematen). *I tontolapiko, kendu ari ortik, kotxia etara bia juat eta./ Dana sorgiña zan orduan. Personak zien, tontolapiko pilla bat. Da gero pistola jarri zanian dana ziero amendau. Mertz.*

TONTÓLISTO, tontólistua (c). adjektiboa. (adierazkorra.) Espabilado, aprovechón, que se hace pasar por tonto, -a o despistado, -a. *Etxok ez rondarik pagauko, tontolisto ederra dok ori.* lk. **listopasáu**.

TÓNTOR, tontórra (a). izena. Cima, cúspide, prominencia. *Tontorretik gertu dago iturrixa./ Tontortxo bat dago zelai erdixan.* lk. **mendi-tóntor**.

TONTORTU aditza. "Tontorraren forman pilatuta. *Gaztaiña saldu biar izate zanian saldu biar izate zuan tontortuta./ Platera tontortuta etaa, bestela gosiak geatuko ga.*

TONTÓTU (a). da-du aditza. Tonto bihurtu. *Ze, tontotu eiñ aiz, ala?*

TONTUENA ERLOJERUA (c). esapidea. Tontorik ez dela gelditzen adierazten duen esapidea. *Gure auzuan tontuena erlojerua.*

TOPALAN (Leintz, Oñati) Pilan. *Umiak be ortxe gustora topalan.*

TOPÁU (a). du aditza. Aurkitu. • Encontrar, topar. *Topaittuzu giltzak?* lk. **billáu**.

TÓPE1. tópe, tópia (b). izena. Hel daitekeen azken muga, bai gauza materialetan, bai bestelakoetan. • Tope, límite. *Errekazuluai segiduz toperaiño aillegau giñan./ Tope bat jarri jotsat atiai./ Amak ordubatak jarri dost topia etxera joateko.* **tópe(ta)raiño beteta1. tope(ta)raiño beteta** (b). esapidea. Guztiz beteta. *Autua topetaraiño beteta ekarri giñuan.* **2. tope(ta)raiño beteta** (c).

esapidea. Mozkortuta. *Inazio topetaraiño beteta zeuan. tópia jo arte* (c). esapidea. Lehertu arte, parrandan, batik bat. *Karnabaletan topia jo arte ibilli giñan. tópián ibilli* (a). esapidea. Dena emanda ibili. *Motorrian topian ibiltzen da./ Bart topera ibilli giñuztan. tópián egon* (c). esapidea. Oso momentu onean egon, kirolari bat, adibidez. *Marino orduantxe zeuan tope-topian. 2. tope eiñ* (c). aditza. Traba bat jo. • Encontrarse con una dificultad que impide el paso. *Koxka batekin tope eitten dau eta ezin dda pasau. 3. tope eiñ* (c). aditza. Txoke egin, elkar jo. • Chocar. *Bi autok tope ein ddabe San Juango rektan. Sin. txóke eiñ. 4. tope eiñ* (c). aditza. Topo egin. Ik. **trínk eiñ**.

TÓPEKA1. tópeka (b). adberbioa. Buruakin elkarri kolpeak emanaz; ahariez batik bat. • A testarazos. *Eztittut aspaldixan ikusi adarixak topeka. 2. tópeka, tópekia* (c). izena. Pelea a testarazos. *Laster asiko da politikuen arteko topekia*. Irudizkoetan, batik bat. Bestela, abere adardunez, ahariez, gehienetan. Ik. **adári tópeka**.

TOPEKALARI, topekalarixa (c). adjektiboa. Topeka egiten duen aberea. Sin. **adarkári**.

TOPEKÁRA, topekaría izena. Topekada, burukada. • Testarazo.

TOPINO Ik. **pando**.

TOPIÑ (Antzuola) **TUPIÑ** (ANTZ.).1. **topiñ, topiña** (c). izena. Beheko suan jarri ohi zen metalezko ontzi ipurdi-zabala. • Marmita de hogar. *Topiña. Anka barekua. Babalapikua gertatzeko be bai... astiros gauzia eitteko zan ori. Astirosao eitten dok or gauzia. Don. 2. topiñ, topiña* (c). izena. Bi eskulekudun lurrezko ontzi ipurdi-zabala, txorixoak oliotan gordetzeko eta balio duena. *Oni, motz oni, asta biko topiña. Onen formia, ipurdia zabala zebalako biribillian. Don. Ik. lurrézko pítxar*.

TORIADORE, toriadoria (c). (Eibar) **TORIATZAILE, TORERO**. Torero. **TORERO** gehiago gaur egun.

TORÍAU (b). du aditza. Torear. *Ze pentsau jok pa orrek, gu toriatzia, ala?*

TORNÍAU (c). du aditza. Tornear, cilindrar. *Berandutu ein jat, pieza bat torniau biarra euki dot eta. Sin. biribildu (Eib.)*.

TÓRNILLO1. tórnillo, tórnilua (a). izena. Tornillo. Garai baten zenbaitek DR Ik. **tokámentu**. **tornilladie emon** (c). esapidea. (Leintz) Lehenago egiten zena: umeei burutik heldu, hatz koskorrekin sakatu eta bueltak eragin.2. **tórnillo, tórnilua** (c). izena. Sarjento txikia; bi pieza edo gehiago elkarren kontra estutzeko erabiltzen den tresna. • Sargento pequeño. *Orrek sarjentuak, da bestiak tornilluak. Martin. Sarjentoa baino txikiagoa da, baina funtzio bera daukate. Ik. sárjento*.

TÓRNU, -O1. tornu, -o, tornúa (c). izena. Gauzei forma emateko den lantegietako makina. • Torno; máquina industrial. *Tornuan eitten dau lan. Ik. dórnu. 2. tornu, -o, tornúa* (c). izena. Landu beharreko gauzak inobilizatzeko tresna. • Torno. *Tornuan estutu ta limiakin zorroztu dot. Arotzak, errementariak, mekanikoak, etab. erabilia. Sin. tornuzill. 3. tornu, -o, tornúa* izena. Hilarik "garrote vil" delakoaren zentzuan darabil Angiolilloren urkamendiaz aritzerakoan. *Ordenia emun otxanian borrreruak, tornuan uela ipiñi leptik, tornuai emun buelta, zela itto-ben. (AA BergEus)4. tornu, -o* Ik. **dornu**.

TORNUZILL, tornuzilla (d). izena. Torno. Ik. **dornu**.

TÓRPE, tórpi (a). adjektiboa. Torpe. Ik. **trópe. astua atzeruzka baiño torpiaua izen** esapidea. Oso baldarra izan.

TORRADA, torr (a). izena. Esnetan eta abar bustitako ogiz egiten den Aratuste goxokia. • Torrezno de pan. *Karnabalak etortzeko desiatzen egote naiz torrada jakete*. Askok izen hau ematen dio orez eginikoari, "pella-ri ere. Azen.: torrada, -ía ere bai. Ik. **pélla**.

TÓRRE1. torre, torr (b). izena. Torre. *Pisako torria baiño okerraua da./ Elizako torrera igo giñuan.*
2. torre, torr (d). izena. Casa torre. *Leengo etxejaunen —etxejauna esate jakuen—, da etxejaunen etxiak, torriak, armaarrixakin da. Don./ Len esan doun torre ori, etxejaunak, maiorazko etxiak, torriak... Don. Gutxi erabilia etxe-izenez kanpo. Lehen torretxeak izandako baserri-izen batzuk badira: **Arregi-torre, Irala-torre, Torrekua...***

TORRÉTU (b). du aditza. Pilan ipini. • Amontonar, apilar. *Azugarra torretuta botatzen dotsa esne-zopei./ Egurrak ondo torretu, sikatu daittien./ Garixa rasiauta izeten da imillaunian, eta bestia torretuta. Don. Ik. **tontortu**.*

TÓRTA, tórt (d). izena. Torta, rosquilla. *Gero txakurraundi bat santuandako, santuai botatzeko, beste txakurraundi bat tortiandako. Sot. (AA BergEus, 335. o.).*

TORTA-SALTZÁILLE, torta-saltzaill (d). izena. Erroskila saltzailea. Sin. **tortéro**.

TORTÉRO, torter (d). izena. Torta saltzailea. *Torta-saltzailliak beste atso bat ero bi tta. Gero Priñ-én tartekuak zien torteruak. Cel. Sin. **torta-saltzáille**. Ik. **tórta**.*

TORTÍKA, tortik (c). izena. Itsatsita dagoen zikinkeria. • Sociedad formando costra, adherida a la superficie. Mugre. *Gaur baiñua artu biozu, belaunetan tortikia eindda daukazu ta./ Uran tubuak barruan tortikia eindda dauke eta etxakue urik pasatzen. Troska-urak tuboetan uzten duena, hagineta sarroa, etab. *tortika dira. Sinonimo da zetaka, baina "mugre", "zikin-kostra" zentzuan bakarrik. Ik. **zetáka**.**

TÓRTILLA, tórtill (a). izena. TORTILLA UTSA. Tortilla. TORTILLA UTSA esaten zaio Udalan «tortilla francesari».

TÓRTO, tort (c). izena. Zuztar edo adar inguru beretik irteten den landare edo fruitu multzoa. *Segia apurtu dot torto bat jota./ Melokotoi-torto arek eukiko zittuan dozena bat ale./ Zelaattan be torto batzuk eta agertzeittuk, eta “bedarbeltza” esaten jotsau. Don. Ik. **sostrópo**.*

TORTOKA, tortok adjektiboa. (Antzuola) "Izakeraz emakume sinpatikoa eta atsegina ez dena, eta gainera fisikoz haundi eta baldar samarra dena." (Lar <i>Antz</i>).

TORTOLA1. tortola, tortol (b). izena. Usatortola. Sin. **usátortola**. **2. tortola, tortol** (d). izena. (eufemismoa.) Prostituta. *I, Basarri, Orrek ee...* Sin. **neskatxiki**.

TÓRTOLOS, tórtol (c). izena. Taba. *Ardi-azurrak die tortolosak. Sin. **sakapon. tórtoloska ibilli*** (c). aditza. Jugar a tabas. *Neguan tortoloska ta txikilleronka, da sokasaltoka. Klem.*

TOTAL1. total (a). Berdin da. • Total. *Etara nai dozuna, total orri igual dotsa, ardaua izan ezkeror./ Alperreko lana da erregatzia, total gabian eurixa eingo dau ta. 2. **tótal** (c). adberbioa. Zeharo. • Totalmente.*

*Lengo fubola eta oingua total diferentia dituk. Gutxi erabilia. **total eginda** (c). esapidea.*

Mozkor-mozkor eginda. *Goizeko amarretarako total eindda zeuan.* Zoramenaz edo gaixotasunaz ere entzun daiteke. **totaléko, totalekúa** (c). izena. (lagunartekoa.) Neurritik gorako mozkorra. *Totalekuakin jeuan Txanbolitterokuan.*

TÓTO (a). izena. (haur hizkera.) Txakurra. *Fuera toto!/ Badator toto.* Ik. **txitxi**.

TOTÓLO, totolúa (d). adjektiboa. Kokoloa, tontoa. • Tontorrón. *Ona emote jok baiña totolo samarra.* Ik. **kokólo, -a**.

TÓTXIKITXI (d). interjekzioa. Voz con la que se llama a la oveja para que se acerque. *Totx, ganauen antzera. Totxikitxi. Bai, ganauei 'toz' bakarrik esate jakuen eta ardixei* Aho-sabaiko hots busti gutxi artikulatu bat da "txikitxi" hori, transkribatzen zaila. Ik. **toz**.

TOTXO, totxua (b). izena. Lingote de hierro. *Axkorak itten daue Patrizio Etxeberriak, totxuei zuluata araten dotsa da gero orreik zuluekin martilluan tiratu ta preparau ta itteittu.* Bix. Sin. **trosko**.

TOZ (c). interjekzioa. TOITX, TOTX. Abereei, behiei batik bat, etor daitezen esaten zaiena. • Voz con la que se llama al ganado para que se acerque. *Toz, toz, ala, goazen, toz, etxera...* Etim.: "hatoz", ziurrenik. *Ardiei totx! edo totxikitxi! esaten zaie.*

TRA onomatopeia. "Bizkortasuna eta indarra. *Hartu eta tra! kendu zetsan eskutik.*" (SB Eibetno)

TRÁBA, trabía (a). du izena. Estorbo, traba. *Kendu ari trabatik./ Trabia daukat eztarrixan.* **TRÁBA Eltrabán egon** (a). aditza. Estar estorbando. *Zure kotxia traban dago.*

TRABÁU (b). da aditza. Trabarse, tropezarse. *Arantza baten trabau ta muturrez aurrera.* Hizketarakoan ere bai: *Trabau eitten da berbetan.* Ik. **arbi-atala trabau**.

TRÁBES1. trabes, trabésa (c). izena. Bola-jokoan, pelotan, etab. egiten den apostua beste batzuen jokoari buruz. • Apuesta en los bolos y otros deportes rurales, con un contrincante acerca del juego de unos terceros. *Orri asko gustatze jako trabesa./ Patxik milla duro irabazi jostan trabesian.* Frontoian korredoreen bidez egiten dena ez da trabesa; ostera aldamenekoari dirua jokatzen badiozu bataren edo bestearen alde, orduan bai. **trabesian** (c). adberbioa. Trabesak eginez, aipaturiko joko sistiman. *Trabesian jokatukostat: bi baietz Patxik.* Ik. **ezarríxan, kontrafabóre jokatu. 2. trabes** Ik. **trábesetara**.

TRABESAIÑO, trabesaiñua (c). izena. Trabes jarrita doan egurra. • Travesaño.

TRÁBESETAKO, trábesetakua (c). izena. Muturrekoa. • Bofetón. *Geldik egon ari trabesetako bat artu nai ezpok. Besoaz trabesetara, zeharka, emandako kolpea edo.*

TRÁBESETARA (c). adberbioa. TRABES, TRABESKA. Zeharka. • Horizontalmente, de lado a lado. *Zure kotxiak enbellezedoria dauka trabesetara./ Trabesetara bajau giñuan aldapia./ Patinau ta trabes jarri jatan kotxia.* Sin. **zárretara, ziarka. trabes edo kurtzez** (c). esapidea. (Leintz) Ondo edo gaizki, zela edo hala. *Ta oin ba trabes edo kurtzez ba moldau eitten jittuat [bertsoak].* (AA ArrasEus, 199. o.).

TRAGÁU (a). du aditza. Tragar. *Jan ez, tragau ein ddau.* Sin. **irúntsi**.

TRÁGO, trágua (a). izena. Trago. Ik. **dangára, zurrutára**.

TRÁILLA1. tráilla, tráillia (c). izena. Abaila. • Honda. *Guk beti traillia esaten gontsan baiña, gure zaarrei entzuten notsen ori e. Gerrako kontuak ibilli tta “len abailliakin juten zittuztan” da. Don.* Sin. **ábaila**. **2. tráilla, tráillia** (c). izena. (Oñati) "Cuerda de lana para abarcas y el yugo." (Izag <i>Oñ</i>).

traillan adberbioa. (Eibar) En cabestrillo. *Eskuturra ausi dabenetik besua traillan daroia.* (AAG Eibes).

TRAJÉBAIÑU, trajébaiñua (a). izena. Bainujantzia. Traje de baño. *Trajebaiñua aaztuta joan nitzan plaiara.*

TRAK! (b). onomatopeia. TRAK. Hausturaren onomatopeia.**trak eiñ** onomatopeia. Gauza gogorren bat hautsi. *Eskuturrak trak ein desta.* (AAG Eibes)

TRAKA-TRAKA (c). Zaldi hanken eta trenaren hotsaren onom.

TRAKATZ lk. **trangal**.

TRAKETA, traketie adjektiboa. (Aramaio) "Pertsona gogorra, bihotz gutxikoa. *Pertsona gogorra da ori, traketa galanta*". (Orm Aram)

TRÁKETS, trakétsa (c). adjektiboa. Baldarra, moldakaitza. • Torpe. *Dantzan ni baiño traketsagoik topatzia ezta erreza.* Sin. **moldékaitz, baldar, aldrebes. akerra baiño traketsaua izen** esapidea. Oso traketsa izan. (Lar Antz)

TRAMÁNKULO, -U, tramánkulua (c). izena. Traste edo makina handia. • Se dice sobre todo de objetos y herramientas muy aparatosas y grandes. *Tramankulua, erremintta bat ero; egundoko tramankulu zarra da. Klem./ Ganbaran jak gari-joteko makinia; azelakotxe tramankulua.* Baba, artoa, garia... garbitzeko edo xehetzeko esku-makinei esan izan zaie, batik bat.

TRÁMO1. trámo, trámua (d). izena. Habeartea, postetik postera dagoen tarte. • Tramo, luz. *Tramuandako egurra dok ori” orduan esaten da, baiña bestela ba poste bittartiak, postetik postera: poste bittartiak. Don.* Sin. **abélarte, posté-bíttarte**. **2. trámo, trámua** (d). izena. Tramo, capa. Txondorak duen egur-ilara bakoitza, adibidez. *Lantzian tramo bat; a kendu, da bardindu, da atzea bota lurra, a lur-sikua. Cand./ Ori karobixoi zan ba, lelengo tramo bat egurra da geo arrixa, da atzea gaiñian egurra ta arrixa. Cand.***3. trámo, trámua** (a). izena. Tramo en general. *Iru tramotan eingo dabe autopistia.*

TRANBIL, tranbilla izena. (Eibar) TRONBIL. "Rulo apisonador, molón de labranza." *Tranbilla esaten jakon soluan erpilak zapaltzeko ibiltzen zanari. Alper-arrixa porlanezkua izaten dan moduan, egurrezkuak izaten ziran, haundixak.”* Zurezkoa, beraz. lk. **erpíllarri**.

TRÁNGA1. tránga, trángia (b). izena. Atea kanpotik ezin zabaldu ahal izateko barrutik jartzen den egurra. • Tranca de puerta. *Atia zerratzeko trángia. Sebas.* Tranga biko atea ere izaten dira.**2. tránga, trángia** (d). izena. Linuaren kanpoko azal gogorra apurtzeko erabiltzen zen zurezko tresna, guraize handi batzuen tankera duena. • Agramadera. *Trángia esate jakon, ola miiña barrura sartze jakon zer bat. Aniz./ Ta trangak izeten zien, ola kanala daukan..., arekin artu ta traska-traska kentze jakon azala. Juana.* **3. tránga, trángia** (d). izena. Errotaren tolbako klaketa.

TRANGÁBEL, trangabéla (d). izena. TRANGEL. Supin txikia, sukaldean eta erabiltzen zena,

arotzeria lanerako batik bat. • Pequeño picador (tronco) de madera que se utilizaba para trabajos de carpintería doméstica. *Sukaldian da neguan eitten zuan, arotzerixan da, orduan ibiltzen zuan trangabela, olako kurioso samar bat. Sukaldian igual, epelian antxe, zepilluakin eskubara burua eitten da. Baiña kanpuan bazeuan, egurra txikitzeuak supíña. Don.* Harakinaren oholari ere berak trangabel edo supíñ deituko liokeela. Ik. **súpiñ**.

TRANGAL, trangala adjektiboa. (Antzuola) TRANGALOTA. "Baldarra, zakarra. (Lar Antz). Sin. trakatz, trauskill." Sin. **tráuskill**.

TRANGÁU1. trangáu (d). du aditza. Linua jo haren azal egurtsua apurtu eta askatzeko. • Agramar el lino. *Liñua ereindda be bai, baiña arek joten da trangatzen ibilitta nao ni. Trangatzia ba, bittartiakin sartzen zan, da olaxe dra-dra-dra-dra, da kentze jakon azala gaiñekua, ta barruan euan arixa, ta geratze zan an trangauta. Juana./ Ta gero trangau, trangau jo ta azixa kendu; bueno azixa aurretik kentze i otsen, potzuan sartu baiño len. Hilari.* Ik. **tránga. 2. trangau** aditza. (Aramaio) "Machacar. Ota puntak batzen ziren eta gero etxean maspildu egiten ziren ganaduari emateko. Ekintza horri trangau esaten zitzaion." (Orm Aram).

TRANGETA, trangetia (d). izena. TRÁNGATZE, -IA. Linua trangatze lana. *Liñua trangetan, trangatzen-da ezaututa nao, baiña ereitten ez; eraitteko kontuik eztaukat. Trangetia olgetia... Juana./ Bai, trangetia gizonak. Hil.* Lan hau egiteko auzokoak biltzen ziren; leku batzuetan emakumeak egiten zuten, beste batzuetan gizonak. Ik. **olgeta, trangáu**.

TRANGETIA OLGETIA, TA AILKETIA NEKETIA esaera.

TRÁNGO, trángua (c). izena. Bidetan, basabideetan, gehienbat, egon ohi diren oztopoak, harriak, ur-erretenak, etab. • Escollo en un camino o pista, piedras, zanjas, etc. *Tranguan ixa iduli jaku burdixa./ Trango baten azpixon beia jo dou./ Trango galantak egongo zittuan San Martzialen baiña jentia dantz eitten juan. Klem.*

TRANGOIÑ, trangoiñe izena. (Aramaio) Tranga-astoa. Caballete.

TRANKÍLDDU (a). da-du aditza. Lasaitu. *Zeu ikusi arte enaiz trankilddu.*

TRANKILIDÁDE, trankilidadía (a). izena. TRANKILLIDÁDE. Lasaitasuna. Tranquilidad *Emen dagon trankilidadia ezin da diruakin pagau.*

TRÁNKILL1. trankill, trankilla (a). adjektiboa. Lasaia. • Tranquilo, -a. *Oso neska trankilla da.* Ik. **nasái. 2. trankill** (a). adberbioa. Lasai. • Tranquilamente, tranquilo. *Trankill egon.* Ik. **nasái**.

TRÁNPA1. tránpa, tránpia (a). izena. Trampa, engaño. *Ezizu tranpaik eiñ. tránpetan arrapau* (b). esapidea. Coger haciendo trampas. *Diabruoi alakuoi; berriz be tranpetan arrapau aut. tránpetan ibilli* (a). aditza. Hacer trampas. *Gure neskatillia tranpetan dabill.2. tránpa, tránpia* (b). izena. Piztiak eta txoriak harrapatzeko tresna. • Trampa, artefacto para coger pájaros y alimañas. *Mutikotan tranpekin ibiltze giñan txoritan.* Ik. **arrátoi-tránpa, erbí-tránpa, sagú-tranpa, satór-tránpa, txorí-tránpa, zépo. 3. tránpa, tránpia** (b). izena. Goiko pisutik behekorra gauzak botatzeko zuloa. • Trampilla, agujero utilizado normalmente para echar heno, helecho, etc. al piso inferior. *Tranpatik bera jausi nitzan bedarrondo ta guzti.*

TRANPÓSO, -A, tranposúa, ía (a). adjektiboa. Tramposo, -a.

TRÁNSITTU, -O, tránsittua (c). izena. TRANTZITTU, -O. Etxeko pasabidea. Zenbait etxetan logela partean dagoenari esaten zaio, beste batzuetan behien askaurrekoari. • Pasillo. *Gure aittajunak trantsittua esate zotsan goiko pasilluai.* Ik. **kárrajo, -u, pásillo**.

TRÁNTZE, trántzia (c). izena. Trance. *Ez giñuan trantze ederra pasau karteria arrapau zoskuenian./ Trantze txar bat pasatzen dabill.*

TRÁPU1. trapu, trapúa (a). izena. Trapo.

trapu samarra izan (c). esapidea. Ijitoa, tranposo samarra izan. *Ez ari sartu negoziotan orrekin, trapu samarra dok eta.* **2. trapu, trapúa** (d). izena. Abarkak janzteko, oinak batuaz galtza modura erabiltzen ziren oihal karratuak. *Bestela trapuak izete zien. Lau kuadroko trapu bat izete zan, da aura ipini kurioso, galtza moduko posturan. Mart.* Sin. **txapiño**.

TRÁPUZAR, trápuzarra (b). izena. Trapo viejo. *Trapuzarrak batzen asi tta oiñ aberastuta dago.*

trápuzar batzéille, trápuzar batzeillía (c). Trapuzarrak biltzera dedikatzen dena. *Etxeik etxe ibiltze zan trapuzar batzeillía.* **trápuzarrak etára** (c). esapidea. Istilu edo arazo zaharrak berpiztu. *Asarretu ta trapuzar guztiak etara zotsen alkarri.* **trápuzarran moduan erabili** (c). esapidea. Modu txarrean erabili. *Beiñ zaartu ezkerro trapuzarran moduan erabiltzen gaittue.*

TRASKA Ik. **tróska**.

TRASKA-TRASKA (d). Azala kentzearen onom. *Ta trangak izeten zien, ola kanala daukan..., arekin artu ta traska-traska kentze jakon azala. Juana.* Ik. **dra-dra-dra, tránga**.

TRÁSTE1. tráste, trástia (a). izena. Trasto. *Eztakitt nun sartu ainbeste traste.* **traste zar, traste zarra** izena. Trasto viejo. *Traste zarrez beteta dauka etxia./ Antziñako traste zarrak gustatze jakoz.* **2. tráste, trástia** (c). izena. Okerra, bihurra. *Mutiko ori traste xamarra da./ Neskatilla ori traste majua da.*

TRÁTANTE1. trátante, trátantia (b). izena. Tratante de ganado. *Txutxurra da emen inguruko tratantía.* **2. trátante, trátantia** (b). adjektiboa. Tranposo edo ijito samarra. *Tratante majua eindda ago i.* Ik. **merketári**.

TRÁTU1. tratu, tratúa (b). izena. Trato. *Ze moduzko tratua emon dotsue Frantzia aldian?/ Tratu ona emon nere kotxiai.* **trátu txar, trátu txárra(k)** Maltrato.

Etxian tratu txarrak emote zotsen./ Basuan trongotan tratu txar asko artutakua da./ Oittuta dago tratu txarretara. Pluralean, batik bat. **tratua artu** (c). esapidea. Esaldi adierazkorretan, tratu txarra hartu edo eman (lanean, nekeagatik, esate baterako). *Nik artu dot tratua kotxiai bultzaka.* **2. tratu, tratúa** (b). izena. Harremana. • Trato, relación. *Traturako balio dau./ Tratu onekua da./ Nik eztaukat tratuik orrekin./ Tratuan oso andra korrientia da.* **3. tratu, tratúa** (b). izena. Baserritarrak plazara salgai eramaten duena. • El género que lleva el baserritarra a la plaza. *Biarko tratua gertatzera noía./ Oso tratu ona eukitzen dau.* **4. tratu, tratúa** (b). izena. Akordioa, salerosketakoa, batik bat. • Trato, acuerdo, sobre todo comercial *Tratua eindda gero atzeraka ein jostan./ Uste juat neska orrekin eztagola tratuik.* Ant. **tratúa itxi. tratúa trátu** (c). esapidea. Behin tratu bat eginez gero bete egin behar dela adierazten duen esapidea. **tratúan ibilli** (b). Salerosketa edo akordio tirabiran jardun. *Denpora askuan tratuan ibilitta gero etzien konpondu.*

TRÁUSKILL, trauskílla (c). adjektiboa. TRAUKILL. Arlotea. • Desarrapado, -a, de modales torpes. *Zela izan leike ain trauskílla.*

TRÁZA, trázia (b). izena. Antza, itxura. • Traza, parecido. *Tion traza demasa daukazu. zerbaitti traza txarra artu* esapidea. Itxura txarra hartu. *Traza txarra artzen dotsat asunto oni*.

TREATO lk. **téatro**.

TRÉBERA, tréberia (c). izena. Beheko suan ontziak jartzeko erabiltzen den hiru hankako euskarri burdinazkoa. Gelatzetik zintzilik dagoena edo lurrean jartzekoa izan daiteke. • Trébede.

TRÉBOLA, trébolia (c). izena. . trifolium. Zelaietan berez datorren sekula belarra. Trebola moltzoka hazten denari esaten zaio, batik bat. Erortzen denean elkarren gainean lehortzen da eta zelaiari kalte egiten dio. Ebakitzeko ere petrala jartzen da. Dendan trebola-hazi mota ezberdinak, sekula belarra baino orri txikiagokoak, erosi ohi dira zelaian botatzeko. lk. **sekula-bédar, irúkotx**.

TREKO lk. **térko**.

TREMENDO, tremendue (b). (Leintz) **TREMÉNDAKO** (OÑ.). Oso handia. *Konpetentzia tremendue eukitten juen eta gure aitek Arrantxeroi ein jutzan hor Kurtzetxikin txabola bat. (AA ArrasEus, 203. o.) / Tremendako zartaria artu xuan. Oñatin asko erabiltzen da tremendako*.

TREMÉS1. tremes, tremésa (d). izena. Artirina eta ogirina nahastuz, eta azkarriarekin, egiten zen ogia. *Tremesa artuai. Artua ta garixa puxkat naastuta, ogiiriña ta zeakin eiñ, da jaikitta, azkarrixakin gaiñea; ari tremes-artua esate jakuan. Don. lk. arto. 2. tremes, tremésa* (d). izena. Bere jaiotetxean <i>basillora</i>ri esaten zitzaiola uste du Klem.k. lk. **basíllora**.

TREN, tréna (a). izena. Tren.

TRENBÍDE, trenbidía (a). izena. Vía del tren. lk. **kárrill**.

TRÉNTZA, trentzía (d). izena. Trenza. *Sokak pe trentzak eiñaz eitteittuk. Burukoei kopeta ia beti. Baina inoiz esaten da: Zelako trentzatxo polittak dauzkan gure neskatilliak. Klem. lk. kópeta. trentzak eiñ* esapidea. lk. **trentzáu**.

TRENTZAK EIÑ esapidea. lk. **trentzáu**.

TRENTZÁU (d). du aditza. Trentzak, kopetak egin, ilez, berakatzez, etab. • Hacer trenzas de pelo, ristras de ajos, etc. *Artu berakatzak eta joan trentzauaz./ Lenengo ondo orrazixa pasau ta gero trentzau. Sin. trentzak eiñ*;. lk. **kópeta, kordátu**.

TREPÉTXU, -O, trepétxuak (d). izena. Eginkizun baterako behar diren gauzak. • Pertrechos. *Soldauak ies ein zeven trepetxu guztiak bertan lagata./ Eztakizu triatloia korritzeko zenbat trepetxubia dan./ Trepetxu danak artuta jun zaizte emendik. Don. "Pertrecho"-ren metatesia dirudi. Izagirrerren definizioa: "Instrumento raro y complicado".*

TRESNA, tresnia izena. "Herramienta, pero no de corte." (SB <i>Eibetno.</i>.)

TRÉZEBA, trézebía (d). izena. Ganadu-askaren leiho ateduna. Zenbait baserritan oraindik ere badira. *Guk trezebía orri. Zela ola zabaltzekuak zien, bat zabaltzen zanian bestia itxi. Zabaldue etzien itten (korrederak ziren). Don.*

TRÉZEÑO, trézeñua (d). izena. Mena (Aiaratik hurbil, Burgos partean) aldeko ganadu mota, txikia eta gogorra. Sin. **persiáno**.

TRÍBULI, tríbulixa (d). izena. Zalpardi txikia. • Tilburí, carro pequeño tirado por un caballo, antaño auténtico signo de distinción. *Nik emen ezautu dittutenak karro motxak, tribulixak esate jakuan. Pare bat iru bat lagunendako ero. Lujokuak, ferixarako ta. Aixkarko Manuelek pe euki jua ola karro motx bat, tribulixa esate jakuan. Klem./ Karrua zan lanerako, da beste bat, ari tribulixa. Estalpe ta guztiko karruak. Don.* Etim.: gaztelerazko «tilburí». Ik. **zálpurdi**.

TRIKÍMAIÑU, trikímaiñua(k) izena. TRIKÍMAILLU, TRIKÍMAIÑA, TRIKIMONTAÑA. Artimaña, treta. *Gaurko umiak trikimaiñu asko dauke./ Aspaldittik ezautzeitugu orren trikimailluak.*

TRIKITILÁRI, trikitilaríxa (b). izena. Trikitria dantzatzen duena. *Trikitilarixen konkursua dago frontoian.* Gaur egun soinu txikiaren jotzaileei deitzen hasi zaie, baina ez da hemengo erabilera zaharra.

TRIKITÍXA, trikitixía (b). izena. Euskal dantza solteari ematen zaion izen generikoa. *Atsalde guztia trikitixan emun giñuan./ Trikitixia besteik ezta entzuten Arrateko radixuan.*

TRILL Ik. **trínk eiñ**.

TRÍLLU izena. **1. trillu, trillúa** (d). izena. Arearen antzeko laborantza tresna, oholtza bati hortz motz samarrak itsatsita dituen. • Apero de labranza que se utilizaba para dar la primera pasada a la tierra arada. *Gure mutikotan be trillua baztartuta zeuan./ Trillua be lurra apurtzeko; lur erpiltsua zeuanian. Goldatuan. Au (area) bigun xamarra bazan, gogorraua bazan orrekin (trilluarekin). Don.* Zenbait lekutan *grada* deitzen omen diote tresna honi. **2. trillu, trillúa** (d). izena. Goikoaren moduko oholtza duen tresna, baina azpian hortzak beharrean sukariak itsatsita dituen. Abereek tiraturik larrinean garia jotzeko erabilia. • Apero que se utilizaba para trillar en la era. *Trilluakin baldin bazan, gari-joteko lekua larraiña esate jakon. Ori e etxe gertuan nunbaitten lautaratxo bat, lauuna bat, euzkixak joteko lekuan, al bazan beintzat. Don.* **3. trillu, trillúa** (d). izena. Triskantza. **4. trillúa eiñ** (c). du esapidea. Soroan edo ortuan lurra oso bustia dagoelarik ibiltzeagatik lurra trinkotu eta eskastu. • Apelmazar la tierra labrada por pisarla cuando hay mucha humedad. *Etzaittez berakatz jorrara joan, trillua eingo zu ta./ Obe giñuan etxian egon izan bagaña. Eurixa ein berri zeuan da trillua ein ddogu ortuan.*

TRIMOTOR-EGUALDI, trimotor-egualdixa izena. (Eibar) "Tiempo soleado. Gerran jaixotako esapidia. Egualdi onakin agertzen ei ziran trimotorrak Eibar eta ingurura bonbak jaurtitzera. Hortittik egualdi eguzkitsu eta argixari <i>trimotor-egualdi</i> esatia." (SB Eibetno).

TRINGAU Ik. **tringótu**.

TRINGILI ETA TRANGALA (c). onomatopeia. "Ruido que hace el carro cuando está flojo." (Izag Oñ)).

TRINGO, tringúa (c). adjektiboa. Trinkoa. • Compacto, -a, denso, -a. *Negu-madarixak oso tringuak izaten die./ Udabarrizan lurra oso tringua egoten da.* Arro antonimoa da gehienetan. Ik. **arro**.

TRINGÓTU (c). da-du aditza. TRINGAU. Trinko bihurtu. • Hacerse compacto, denso, apelmazar(se). *Bizkotxua, arrotu biarrian tringotu ein jat./ Lur guztia tringotu dozu ortuan ibilita.* Ik. **zepátu**.

TRÍNK EIÑ (c). du aditza. TRILL EIÑ (LEIN., OÑ.), TONK EIÑ (EIB.). Topo egin, norbaitekin pasadizoan aurrez aurre aurkitu. • Encontrarse con alguien. *Kalian trink ein ddou ta eztozt begiratu be eiñ./ Bein Donostiako taberna baten Bergako alkatiakin trink ein neban.* Sin. tope eiñ.

TRINTXA, trintxia (c). izena. Zura lantzeko tresna. • Formón. *Lizarra erremintta-kertenetaako ona. Baitta zeerako be, esku-erreminttia, formoe, trintxia ero.* Sebas. Sin. **formóe, zur-zintzel**. Ik. **biribil-trintxa, gubi**.

TRÍPA, tripía (a). izena. Sabela. • Tripa, vientre.

tripa-trúke (c). esapidea. Mantenuaren eta ostatuaren truke lanean. • Dícese del trabajar a cambio de la manutención y el alojamiento. *Anguan iru urtian egon nitzuan kriaui, tripa-truke.* **tripak bota**

(b). esapidea. Barrez lehertu. *Atzo tripak bota giñuzen Pistokin Uberan.* **tripak estu euki** (c).

esapidea. Kezka batengatik urduri egon. *Gescarteran inbertidu dabenak tripak estu eukikoittue.*

trípak játen (b). esapidea. "Consumiéndose de impaciencia, de indignación o por algún otro motivo moral." (Etxba Eib). *Tripak jaten egon naiz gau guztia, zeeze pasau ete jatzun pentsatzen.*

tripetatik ibili (b). esapidea. Beherakoa izan. Ik. **trípetako**.

TRÍPAKI, trípakixak (b). izena. Callos, tripicallos. *Tripakixak tomatiakin preparatzen die.*

TRIPAKI-LAIÑO Ik. láíño.

TRIPÁKOMIÑ1. tripákomiñ, tripákomiñak (a). izena. Dolores de vientre. *Sagar berdiak jan ezkeru tripakomiñak eingo jatzu.* **2. tripákomiñ, tripákomiñak** (c). izena. Kezkek, arazo handiak. *Tripakomiñ galantak pasau giñuzen taillerra itxi zoskuenian.*

TRIPA-ÓRRU, tripa-órruak (d). izena. Gose denean tripak ateratzen dituen hotsak. • "Rugidos" de estómago ocasionados por el hambre. *Uste dot eskola guztian entzuten ziela nere tripa-orruak.* Ik. **tripa-zórri**.

TRIPÁUNDI, tripaúndixa (b). adjektiboa. Tripa handia duena. • Barrigón, -a. *Tripaundi bat da diretoria.*

TRIPÁZILL, tripazílla (d). izena. Ombligo. Don. Sin. **zil**.

TRIPA-ZÓRRI, tripa-zórrixak (c). izena. Gose denean tripan sentitzen diren kili-kiliak. Lit.: "piojo de vientre". *Bueno, tripa-zorrixak asi jatazek eta obe juau bazkaltzera joatia.* TRIPA ZORRIXAK ASI, EUKI, SENTIDU... Ik. **tripa-órru**.

TRÍPETAKO, trípetakua (c). izena. Tripetako gaitza, beherakoa. • Diarrea. *Aste osuan tripetakuakin nabill. Tripetakuakin ibilli, batik bat.* TRIPETATIK gaizki IBILLI: beherakoarekin ibili. Ik. **beráko**.

TRIPONÉRO, triponerúa (c). adjektiboa. (adierazkorra.) Tripazaia. • Amante del buen comer. *Zuen aittajuna triponero majua zuan.* Sin. **tripóso, -a**.

TRIPÓNTZI, tripóntzixa (c). adjektiboa. (adierazkorra.) Glotón, -a. *I, tripontzi, laga bestiendako be zerbaitt.* Apelatibo gisa, batik bat. Ik. **triponéro**.

TRIPÓSO, -A, triposúa, -ía (c). adjektiboa. Tripazaia. Sin. **triponéro**.

TRÍPOTX1. trípotx, trípotxak (b). izena. Jaki ezaguna. • Sangrecilla y tripas de cordero. *Gozuak die tripotxak tortillan*. Pluralean. Ik. **frikátxa**. **2. tripotx, tripotxa** izena. (adierazkorra.) Tripatxoa. *Zelako tripotxa bota dozun*.

TRISKA, triskia (d). izena. TRIXKA. Botatako egurren adar ebatea, apainketa. *Lenengo botatzen dozu, da geo arek apainddu ein biar, apainketia, trixkia*. Jose. Sin. **apainketa**.

TRÍSKANTZA, trískantzia (c). izena. Destrozo, escabechina. *Beixak ortuan sartu ta egundoko triskantzia ein ddabe*. Sin. **triskaziño**.

TRISKAU (d). aditza. TRIXKAU. Botatako egurrari adaxkak kendu. *Egurra bota eitte giñuan guk lenengo, eta gero esate giñuan trixkau, “trixkau dittuu”, eta orduan ia aste zan batzia*. Mateo. Sin. **soilddu, apainddu**.

TRISKAZIÑO, triskaziñúa (d). izena. Triskantza. • Destrozo. *Plazan jausi zan bonbiak triskaziño demasa ein zeban*. Sin. **trískantza**.

TRISKÍLLAU1. triskíllau (d). du aditza. Ilea zela-hala ebaki. • Trasquilar. *Triskillau, ebagi ero; illia triskillau*. Klem. **triskillau bat emon** (d). esapidea. Nola-halako ile ebakialdi bat hartu edo eman. *Guk noizian bein triskillau bat artu ezkerro naikua izeten juau*. **2. triskillau** (d). du aditza. Apurtu, harriak uzta, adibidez. • Destrozar, por ejemplo el pedrisco la cosecha. *Arrixak jota triskillauta lagaittu artuak*.

TRÍSTE1. triste (a). adberbioa. Triste. *Triste nago*. **2. triste, tristía** (a). adjektiboa. Triste. *Egualdi tristía dago*.

TRISTETU (a). aditza. Triste jarri edo triste bihurtu. *Asko tristetu giñan zu ola ikusitta./ Aspaldixan mutil ori tristetu ein da*.

TRISTÚRA, tristuría (b). izena. Tristeza, melancolía. *Etxe arek tristuria emuten dost*. Ik. **barrúko tristúra**.

TRIÚNFO1. triúnfo, triúnfua (b). izena. Triunfo.**2. triúnfo, triúnfua** (b). izena. El triunfo, en los naipes. Ik. **árrasto**.

TRÓBALKO, tróbalkua (d). izena. Oihal dotore baten izena. *Zeuan orduan tela bat, batak eta arekin eitten zian, dotore jaztekua, trobalko, oso tela politta zan*. *Perkala lakotxia, baiña dibujo polittak zeuzkan, estanpaua, txikixa, aundixa, kolore danak, kuadrak pe bai*. Maria.

TRÓJA, trojía (d). izena. Gari-kutxa handia, leku baten fijo ezarrita dagoena. • Arca fija grande donde se guardaba el trigo. *Trojia izeten da leku baten fijo eindda; olakin fijua, ikaraik eraitteke, bere apartamentuekin, bi ero irukuak o, segun*. *Da kutxak perriz, ba kutxa bat gaur amen eukikozu ta biar an*. *Batai kutxia esate jakon da bestiai trojia*. *Jeneralian trojak aundixauak zien*. *Gurian iruko zer bat zan, iru apartamentuko bat eindda, eta bakoitzak ogeiña anea zeuzkan*. *Eta kutxak pa amar anea, zortzi...; amalaukua aundixa izeten zuan*. Don. Agarreko garaixari, horreo famatuari, Agarrekoek *trojia deitzen zioten lehenago, ziurrenik bertan troja bat zegoelako*. Ik. **arka, gárai, gari-kútxa**. **Gari ona trojatik saltzen da** esaera. "Gauza bat ona bada, ez dago asko erakutsi beharrik..." (Lar <i>Antz</i>) **Urdaixa kakuan gora eta garixa trojan bera** esaera. "Neguan baserrian gertatzen zena: urdaia eta garia gastatuz joaten zirela neguak aurrera egin ahala." (Lar Antz).

TROKAU aditza. (Eibar) Hezurren bat okertu. *Armailla igotzerakuan ankia trokau jata. (AAG Eibes).*

TRÓNGO, **trongúa** (b). izena. TRONKO. Enborra. • Tronco. *Miñ artuta dago tronguak ankia arrapauta.* lk. **ánpor**, **gerri**.

TRONGÓTA, **trongotía** (c). izena. Trongo garraioa. • Acarreo de troncos. *Trongotia darabille Narbaizan.* TRONG

TRÓNPA1. **trónpa**, **trónpia** (b). izena. Haur jostailua. • Trompo, peonza. *Umetan artistak giñan tronpia botatzen.* **2. trónpa**, **trónpia** (b). izena. Mozkorra. • Borrachera. *Kriston tronpiakin zeuan eguardiko amabixetan.* Agian sinonimoen artean adinekoek gehien darabiltena. Sin. **melokotóe**, **-i**. lk. **atal**, **atxur**.

TRONPIL, **tronpilla** adjektiboa. (Antzuola) "Pertsona haundia, potoloa, takarra. Sin. **potril**, **tronpil**, **tronpota**.

TRONPO lk. **okela-trontzo**.

TRONPÓILLO1. **tronpoillo**, **tronpoillúa** (d). izena. Nahas-mahas korapilatutako zerbait. • Revoltijo; de cuerdas, etc. *Olako... sarrittan sokia ola zertuta dagonian e, tronpoillua. Klem.* **2. tronpoillo**, **tronpoillua** adjektiboa. (Antzuola) "Pertsona lodi samarra." (Lar Antz).

TRONPOTA lk. **tronpil**.

TRONTXAL, **trontxala** (c). izena. Egurra bere gainean xehetzeko erabiltzen den baldoa. Sin. **báldo**, **súpiñ**.

TRÓNTZA, **trontzía** (c). izena. TRONTZA-ZERRA, TRONSADORA. Bi aldetatik tiratzen den zerra handia. • Sierra grande de mano que se usa entre dos. *Motozerria sartu zanetik sopra dare trontzak./ Trontzia. Botata gae makina bat arbola orrekin. Len, motozerriak urten aurretik, orretxekin danak botatzen zien. Sebas.* Hortzak bere entrama behar dute eta ondo zorrozuta egon.

TRONTZALÁRI, **trontzalaríxa** (c). izena. Trontzarekin lan egiten duena basoan zein plazetako apostu edo erakustaldietan.

TRONTZIL, **trontzilla** (d). izena. Baldoa, egurra txikitzeko azpian jartzen den enbor zatia. Sin. **báldo**, **zupin**.

TRÓNTZO, **trontzúa** (c). izena. Okela edo arrain zati eder eta lodia. • Dícese de la parte más hermosa y gruesa de la carne o del pescado. *Trontzoik ederrena beretako artu zeban da neri gizenak eta girixak besteik ez. Alavés, para tí el cabés; alemán, para tí el buztán; gipuskuano tonto, para mí el erdiko-tróntzo.* (c). esaera. Gure umetako esaera, gipuzkoarren azkartasuna azaltzen duena.

TRÓPE1. **trópe**, **trópia** (d). adjektiboa. Gauza handi samarragatik esan ohi zuen gure aitajaunak. *Arri bat ero, gauzia aundi xamarra danian: tropia, erabiltzen juan, bai; normala baiño aundixuaua danian ero, tropia. Baita personengaittik pe etxakixat etzeban esaten, aundi samarra ero zera*

zarian, tropia. Klem. **Torpe**-ren metatesia. **2. trópe, trópia** (d). adjektiboa. Torpe. *Trope xamarra da.* lk. **tórpe**.

TRÓPEL, tropéla (c). izena. Ibili dabilen jende edo abere pila. • Grupo de gente o animales en marcha. *Ardixak danak tropelian etorri die./ Gaur karreran egundoko tropela pasau da.*

TRÓSKA, troskía (c). izena. Traska ere bai zenbaitek. Zenbait ur motak duen kare-sustantzia, denari itsatsia geratzen dena. • Caolín, sustancia caliginosa que portan algunas aguas y que se adhiere a todo. *Kangrejuak troskaz forrauta ez-tittuzu ikusi?/ Tuberixa barruan be troskia formatzen da./ Troskia da kolorez marroixkia, nabarka ortakua.* Don.

TROSKAUNA, -E lk. **tróska**.

TROSKÁ-UR, troska-úra (c). izena. Troska duen ura. • Agua que contiene mucho caolín. *Iruerrekako ura troska-ura da.*

TRÓSKO1. trosko, troskúa (d). izena. Zerbaiten lodiunea, soka batena adibidez. • Bulto, por ejemplo de una cuerda. *Soka-korapillo bat pe bai, trosko bat, sendo-unia. Zeoze pasau ezin dozunian-da, troskua parian-da, troskaunia.* Klem./ *Gure aittajunak eitte eban [artilezko haria] bape trasko barekua, bape korapillo ero pelota barekua.* Egur bat ekonomikan sartu ezinda jardun daiteke *troskuak edo troskauniak oztopo egiten duelako.***2. trosko, troskúa** (d). izena. Lingote de hierro. Sin. **totxo**.

TRÓTE, trótia (c). izena. Antxixika-saioa. • Trote. *Polizia atzetik giñuala, guk eruan giñuan trotia.*
trote eiñ (b). du aditza. (adierazkorra.) Escapar corriendo. *Laga poltsia ta trote ein zeban mutikuak eskolatik./ Txakurra!, trote ortik!* **trote!** (c). interjekzioa. Alde! *Ale mutikuak, trote emendik!***trótia emun** (c). esapidea. Asko erabili. *Egundoko trotia emun dotsat jertse oni.* **trótian** (b). adberbioa. Al trote, al galope, corriendo. *Ez ibilli trotian etxe barruan./ Trotian zoian astua.* lk. **laukúan, pausúan.**

TROZO, trózuak (d). izena. Txikitan sarri entzuten genuen hitza, adibidean ikusiko denagatik. Zera dio Toribio Etxebarriak: "Forma de explotación de minas en Vizcaya a la que acudían temporalmente algunos aldeanos, que introdujeron la voz para designar las minas." (Etxba Eib) *Beti entzun izan dou etxian gure Tio Domingo gaztetan trozuetan ibilli zala Leonen, da bibotiekin etorri zala andik./ Ei zebillen e, Bilbo aldian, Portugalete ta badie or, trozuan. Trozua ba, jornalian irabazten, kanteretan da, arri-etarutzen da. Trozua esaten jakon. J.Jp.* Azken honek singularrean darabil, baina osterantzean pluralean entzun izan dugu.

TRUK1. truk, trúka (d). izena. Karta-joko bat. *Len truka be asko zuan, baiña oiñ ez-tittut somatzen.* Don. **trukían1. trukían** (d). adberbioa. Truk jokoan. *Andrak atsalde osua pasatzen zeben trukian./ Jokaturkou trukian?* **2. trukian** (Eibar) Trabajo al trueque. • Lana diruz beharrean beste nolabait ordaintzen den sistema**2. truk eiñ** (c). du aditza. Trukatu, truke egin. • Trocar, cambiar una cosa por otra. *Nai bok zapatak truk eingo jittuau gure zapatak.* Sin. **trukáu.**

TRUKAITZ, trukaitza adjektiboa. (Antzuola) "Pertsona torpea, eskulanetan traketsa eta takarra." (Lar <i>Antz</i>).

TRUKÁU (c). du aditza. Trucar, cambiar una cosa por otra. *Autua trukaukostat zaldixagatik.* Sin. **truk eiñ.**

TRÚKE1. truke, trukía (c). izena. Cambio, truque. *Mutikotan sarri izate giñuan kanika trukia./*

Konforme nagok trukadiakin, baiña gero agiña be euk atara nere orde. (SM Zirik). truke emon edo artu (b). esapidea. Dar a cambio de. Eskerrikasko ta laztana emun zostan trukian (edo truke)./ Zer emungostak orren truke? ZEREN TRUKE. Ik. tripa-trúke. 2. truke eiñ (b). aditza. Trukatu. Ik. trukáu, truk eiñ.

TRUKE-EZKONTZA, truke-ezkontzie (Leintz) "Igualmente existió la llamada 'truke-ezkontza': doble matrimonio entre hermanos de dos casa o caseríos. Algunos indicaban que la razón de ser de estos matrimonios era fundamentalmente económica, ya que suponía un ahorro de gastos y de molestias, pues en estas ocasiones ambas bodas se celebraban el mismo día con un único ceremonial litúrgico-gastronómico. Sin embargo, la verdadera razón parece radicar en la dificultad con la que los padres tropezaban a la hora de 'colocar' a sus hijos, especialmente, segundones." (Aran Gatz, 145. o.).

TRUKÚMAI, trukúmaixa (d). izena. "Mesa de billar." (Izag <i>Oñ</i>).

TRUMÓE, -I, trumóia (a). TRUNBOE, -I. Trueno. *Trumoia da ta jaso esegittako erropak. Trumoia da, batik bat; diardu ere bai. trumóiak jo* (b). du aditza. Tronar. *Bart trumoia jo dau baiña eztau euririk eiñ. Trumoia jotzen duenean, San Pedro —edo «Goiko Manuel»— boletan dabilela esan ohi da. Eibarko lekuko batek dionez, errezu hau egiten ei zen: Santa Barbara, Santa Kruz, Jauna balixo zakiuz; iñuzentien ogixa, Jauna miserikordixa. (SB Eibetno).*

TRUMOI-ÉURI, trumoi-euríxa (c). izena. Lluvia de tormenta. Ik. **ode-éuri**.

TRUMOI-LÁIÑO, trumoi-laiñúa (c). izena. Trumoia dakarren lainoa, hodei-lainoa. Ik. **ode-tóntor**.

TRUMÓI-OTS, trumoi-ótsa (b). izena. TRUMONOTS (EIB.). Ruido de trueno. *Bart oerakuan trumoi-otsa zan./ Atsaldian entzun die trumoi-otsak baiña eztau euririk eiñ.* Singularrean gehiago. Sin. **trumoi-zaráta**.

TRUMOI-ZARÁTA, trumoi-zaratía (c). izena. Ruido de trueno. *Iru trumoi-zarata entzun jittuat gabian. Don.* Trumoi-zartada ere bai handia denean. Sin. **trumói-ots**.

TRUNBOE Ik. **trumóe, -i**.

TRUXAL, truxalak (Eibar) Chaparrón, lluvia torrencial. *Truxalak ein zittuan araiñegun, eta etxetik urten be ezin izan genduan ein. (SB Eibetno)*

TTIR-TTIR onomatopeia. (Eibar) "Sonido que produce el afilador." (SB <i>Eibetno</i>).

TTURRUKUNTTUN, tturrukunttuna izena. (Antzuola) "Zopa mota bat." (Lar Antz).

TÚERTO, -A, tuértua, ia (a). izena. Tuerto, -a. Sin. **begíbakar**. Ik. **ítxu**.

TÚKUR, tukúrra (d). adjektiboa. Terkoa eta takarra. • Terco y rudo. *Etzuan giro aren inguruan. Auraxe zuan personia tukurra.* Ik. **Turkúa**.

TÚLANKO, túlankua (c). izena. Kantabria aldeko basaganadu mota. • Ganado de raza tudanca. Adarزابala eta kolorez grisa. Ik. **trézeño**.

TÚNANTE, túnantia (b). izena. Alproja eta nagi xamarra. Gazteez, eta batik bat ikasleez, esana. • Se dice de los jóvenes, sobre todo de los estudiantes que son algo pícaros y vagos. *Tunante majua ago i aspaldixan eindda./ Listua zuan baiña tunantia.* Uberako Mari Justa famatuak gogoan dut zer esan zidan behin mutikotan gerezi lapurretan harrapatu gintuenean: *Artizko Bálbiñon semian semia (ni), estudiante tunante! kapapian gitarria joten!*

TÚNIKA, túnikia (c). izena. Alkandora itxurako jantzi luze eta zabala, antzina gizonak erabiltzen zutena. • Túnica, blusa. *Orduan tunikia eballi ixen dot. Oiñ tunikaik ezeutu be ezta eitten, baiña tunikia da aurrian emon koapillo bat eta... Cand.* Sin. **brúsa**.

TÚNIKADUN, túnikaduna (d). izena. Tunika jazten duena edo jantzita daramana. Herri xehearen ezaugarria. Ik. **gabándun**.

TUNTUNA ARRAPO(TA) interjekzioa. (Oñati) Umeak haserretu eta tematan ari direnean esan ohi da. *Gure neskatillia tuntuna arrapota dago.*

TUPI, tupixa (c). izena. Arotzerian formadun piezak lantzeko erabiltzen den makina. *Gero makinak ipini giñuazengan, orduan tupixan eitten giñuzen. Angel Zurginek erabiltzen duten makinarik arriskutsuena da.*

TUPIÑ Ik. **topiñ**.

TÚRBIÑA, túrbiña (c). izena. Indarretxea. • Pequeña central hidroeléctrica. *Matxitxeiko turbiña izan zuan Algodonerako zeroi. Klem.* Matxitxei: Matxiategi, orain Poligonoa dagoen lekuan zegoen baserria. Sin. **indarrétxe**.

TURKO1. túrko, túrkua (d). adjektiboa. (Oñati) "El que es muy suyo y no hace caso de nadie." (Izag Oñ). Ik. **túkur**. **2. Turkúa** (c). izen propioa. Lehenengo karretero eta gero transportista famatua izan zen baten gaitzizena. Umeei beldurra sartzeko, <i>Zintzua ezpaza izeten, Turkua etorriko da,</i> esaten zen. • Nombre de un famoso carretero y transportista bergarés, que fue para los niños de cierta época sinónimo de "el hombre del saco". *Turkua zuan karretero bat, eta Antonio Zabala zuan alako zerrari brusko bat, eta Turkuak: "«Etarai txikito bat Turkuandako eta bestia terkuandako»;" Klem.*

TURTUKIÑA, turtukiñie izena. (Aramaio) Alua. *Andrie andrie danak belaunek junto eta turtukiñie tapauta. (Orm Aram).*

TÚTE, tutía (b). izena. Karta joku ezaguna. • Tute. *Felix gogorra da tutian.* Inesiboan ia beti.

TUTIK PE Ik. **tautík pe**.

TUTILIKLASE (lagunartekoa.) "Denetarik. *Tutiliklaseko jentia junta giñan.*" (Lar Antz).

TÚTU1. tutu, tútua (c). izena. (haur hizkera.) Ipurdia, genitalak. • "Las partes obscenas del hombre y de la mujer." (Izag Oñ). *Zer zabitz Ander tutua bistan dozula? Gutxi erabilia.* **2. tutu** izena. (haur hizkera.) Bocina. **3. tutu** izena. (haur hizkera.) Coche. **4. tutu, tutua** izena. (Eibar) Tubo.

TUTULU MENDI, tutulu mendixa izena. (lagunartekoa.) (Eibar) Alua. *An zeuan anakak zabal-zabalik, tutulu mendixa bistan.* Ik. **potxótx**.

TXABERA, txaberia izena. "Gancho para haces." (SB Eibetno). Sin. azaoketarako ziri . Ik. **azaoketa**.

TXÁBETA1. txábeta, txábetia (c). izena. Burdinazko zirria, bizikleta pedalaren ardatza eta bielaren arteko lotura egiten duena, adibidez. • Chaveta. *Pedalai txabetia urten eta muturrez aurrera jausi nitzuan./ Txabetiak olgoria dauka. txábetatik izúrrauta egon* (d). esapidea. Burutik gaizki egon. *Txabetiak faillatzen jotsak./ Txabetako faillua jaukak.* **2. txábeta, txábetia** izena. Perrak, animaliarene kaskuan asentatuta gera dadin, duen belarri antzeko zatia. *Kaskuan perria ola ipintze zan, au urtetze zan, da au okertu itte zan olako tenaza batzuk artu, ta kaskua jaso, ta azpittik gora zea itte zan au txabetia, belarrixa. Roman.*

TXABETÁDA, txabetadía (c). izena. Kasketada, burutazio zoro antzekoa. • Venada, ocurrencia caprichosa. *Txabetadiak emon joskuan da artu kotxia ta Bilbora joan giñuztan./ Asieran pentsau najuan nausixan txabetadan bat zala.* TXABETADIAK EMON, batez ere. Ik. **kasketada**.

TXÁBILLA, txábillia (c). izena. Bihurra emanez artilezko haria iruteko karretea. • Carrete para hilar retorciendo la lana. *Txabillia dok e artilliakin pastoriak-eta bueltaka erabiltzen daben aura, karrete aura. Klem./ Gorutan eitte zien [artilezko eta linuzko haria], baiña artillia senduao askoz e. Gizonak e bai txabillan, txabillia esate jakon. Txabillia da, eztakizu e, ola umiak eta gora-gora jaurtitzeko eukitzen daben zer bat, auraxe da txabillia. Aniz. Tresna hau, normalean, gizonak erabiltzen zuten. Erdian ardatz kakoduna izaten du, egin ahala artilea txabilan bertan biltzeko.***txábillan** (c). adberbioa. Txabilarekin artilezko haria egiten.

Neguan txabillan jarduten dau jota sua./ Txabillan ikusi dot etxeaurrian. TXABILLAN EI

TXÁBOLA, txábolia (a). izena. Chabola, cabaña. *Arraozko txabolan ein giñuan bazkaixa.* Ik. **etxábola, txósna**.

TXAFLERO TXAPLERO. Ik. **etxáflero**.

TXÁKAL, txakála (d). adjektiboa. TXANKAL. Insustancial. Ik. **txáldan**.

TXAKALÁLDI, txakalaldíxa (c). izena. Makaldia, ahulaldia. *Gure amak egundoko txakaladixa pasau zeban joan dan udan.*

TXÁKETA, txáketia (a). izena. Chaqueta. Ik. **jáke**.

TXAKIL, txakílla (d). adjektiboa. Ganorabakoa.

TXAKILLÉTAN (d). adberbioa. Narrutan. *Atzo narrutan ein najuan, ero txakilletan ero, ainbeste izen emuten jako. Don. Gutxi erabilia. Sin. narrútan.*

TXAKÓLIÑ, txakolíña (b). izena. Chacolí. *Gure mutiko denporan txakoliñ ona eitte zan Artizen.*

TXÁKUR1. txakur, txakúrra (a). izena. Perro. Ik. **jan-txákur, txakurrán sálara joan, perru**.

Txakurra egon esaera. "Zital edo haserre egon, edo halakoa izan. *Atzo ni etxea jun nitzanian ama zeuan txakurra! Ik. ganau ona egon."* (Lar Antz).**an be txakurrak ortosik** (c). esapidea. Han ere gauzak hemengo antzera. *Alemaniarra joan zuan, baiña an be txakurrak ortosik.* Sin. **an**

be bábak lekátik. txákur jokátu (c). esapidea. Zitalkeriaz edo gogorkeriaz jokatu. *Patronatuak txakur jokatu dau UNEDekin.* **txakur zarra izan** (c). esapidea. Ser perro viejo. *Retegi txakur zarra da.*

txakúrra puzten ibilli (c). esapidea. Aurpegi zikina duten neska-mutikoei zera esan ohi zaie: *Zer, txakurra puzten ibilli aiz ala?* **txakurrai be emuten etxakuenak jan** (c). esapidea. Gauza eskasak jan.

txakurrai be ez opa (c). esapidea. Inori ez opa gauza txar bat. *Txakurrai be etxat opa nik orduan pasau nittuanak.* Sin. otsuai be ez opa. **txakurrak dauzka buztanpian!** (c). esapidea. Kopuru hori ez dela diru gutxi adierazten duen esapidea. *Milloi erdi gutxi pentsatzen jak? Txakurrak jauzkak buztanpian.* **txakurrak pe jan ezinddakua** (c). esapidea. Janezina. *Saldia, txakurra(k) pe jan ezinddakua.* Mertz. **txakurrán buztanán modúan beti atzian** (c). esapidea. Beti atzean gelditzen direnei esana.

txakurrán fláutia! (b). interjekzioa. (arrunkeria.) Un jamón con chorreras. «Txakurraren txilibitua»; alegia. **txakurran moduan jan** (c). esapidea. Presaka eta aho betean jan.

txakurran putza! interjekzioa. "Y un cuerno! Sin. txakurran zaunkia!" (Lar Antz). Sin. . **txakurrána eñ** (c). esapidea. Hitzik esan gabe sartu jende artera, sukaldera adibidez.

txakurrának eñ (c). esapidea. Hacer perrerías. *Txakurranak ein jotsen komisarixan.* **txakurrának esan** (c). esapidea. Decir perrerías. *Txakurranak esan zittuan neregaittik./ Txakurranak esan jostan kotxia markau notsalako.* **2. txakur, txakúrra** (c). izena. Policía, guardia civil. *Manifestaziñua asi baiño len an zittuan txakurrak.* **3. txakur, txakúrra** (c). adjektiboa. (adierazkorra.) Oso ona, bikaina. • Excelente. *Pelotarixa txakurra da Oreja./ Kotxe txakurra da Audixa.* Baina eguraldiari buruz ari garenean alderantzizko zentzua du, oso txarra, alegia. *Egualdi txakurra ein juan Erramu-zapatu egunian.* Ik. **egúaldi.** **4. txakur, txakúrra** (c). adjektiboa. Izakera zital eta gogorreko pertsona. • Déspota, persona intransigente y de mal carácter. *Guk lenengo euki giñuan maixua, txakur bat./ Urtetan egonda najak enkargau txakur baten mendian da bajakixat ze dan ori.*

5. txakur, txakurra (Eibar) "Gatillo de armas de fuego. *Eskopetian txakurrak sakatuta* Ik. **katu.**

TXAKUR-MÚTUR, txakur-mutúrra (c). adjektiboa. Aurpegi zital eta serioa. Baita halakoa duen pertsona. • Cara de perro. También persona que la tiene. *Fijau aiz? kartero barrixak jaukak txakur-muturra./ Detenidu nindduan guardazobilla, alako txakur-mutur bat, joka asi jatan.*

TXÁKUR AMORRATU, txákur amorratúa (b). izena. Perro rabioso, hidrófobo. *Txakur amorratuak ainka eindda il zan./ Txakur amorratuan modua kontestau zotsan.* Don.k amorraren gaitzari **txakur amorratúa deitu dio** (?). Ik. **amorro, -u.**

TXAKUR-AMÓRRO, txakur-amorrúa (c). izena. Rabia canina, hidrofobia. Ik. **txákur amorratu, amorro, -u.**

TXAKUR-ÉTXE, txakur-etxía (d). izena. Txakur-txabola. Sin. **txakúr-toki, txakúr-txabola.**

TXAKUR-ÉZTUL, txakur-eztúla (d). izena. Eztul zakarra. • Tos fuerte. *Txakur-eztula, eztul zakarra dagonian; katarro-eztul normala.* Klem.

TXAKUR-GAITZ, txakur-gáitza (c). izena. Pertsonen gaixotasunen bat. Tumore bat, dirudienez *Txakurgaitza esan eitte jako beste bat, tumorren batzuk urtetzen dabela.* Don.

TXAKURKERÍXA, txakurkerixía (c). izena. Pertsona "txakurraren" jokabidea. • Actitud déspota.

TXAKURKÚMA, txakurkumía (b). izena. Cachorro de perro. *Txakurkumia eskeiñi doste.*

TXAKUR MÍNGAIÑ, txakur mingáiña (d). izena. . cinoglossum officinale. Lengua de perro. Lur karetsuetako landare luze xamar honek kirtena eta hostoak ile latzez estaliak ditu eta lore urdin

txikle. Li samarrak. Borraja eta larrosarekin batera, hau ere bihotz suspertzailea da, batez ere ardoaz lagunduta.

TXAKÚRRAUNDI, **txakúrraundixa** (b). izena. 10 zentimoko txanpona. • Perra gorda. *Zure kotxiak eztau txakurraundi bat balio.* Ik. **díru**.

TXAKURSURZILLO

TXAKÚR-TOKI, **txakúr-tokixa** (b). izena. Txakurraren txabola. • Caseta de perro. Sin. **txakur-étxe**, **txakúr-txabola**.

TXAKÚRTU (c). da aditza. Lotsagabetu, jenio eta jarrera txarreko bihurtu. • Volverse insolente y malhumorado. *Len etzan alakua baiña juiziua sartu zotsenetik ziero txakurtuta dago.*

TXAKÚR-TXABOLA, **txakúr-txabolia** (b). izena. Caseta de perro. Sin. **txakur-étxe**, **txakúr-toki**.

TXAKÚRTXIKI, **txakúrtxikixa** (c). izena. 5 zentimoko txanpona. • Perra chica. *Aspaldi ezkutau zan txakúrtxikixa.* Ik. **txánpon**. **txakur txikixak poltsikuan baiño gutxiao irabazi** (d). esapidea.

Landare bat edo abere bat gutxi hazi. *Keixa arbola orrek txakúrtxikixak poltsikuan baiño gutxiao irabazten jok.* Hau esan ohi zuen gure amak pinupean geratutako gerezi-arbola batez.

TXAKUR-ZÁUNKA, **txakur-zaunkía** (b). izena. Ladrido. *Etenbako txakur-zaunkia izan da gaur gabian./ Txakur-zaunkak eztoste lotan laga.*

TXAL, **txála** (a). izena. Txahala. • Ternero, -a. Arra denean IXKO, emea denean BIAE. Txikiari TXALTXO. **bosgarren txala izan** esapidea. "Behiak lau erro izaten ditu. Bost txal izaten baditu, bosgarrena goseak. Zerbait banatu eta ezer gabe geratzen bada esaten da, edo, oro har, sobra dagoenarengatik. *Ze, bosgarren txalan moduan ni ala?" (Lar Antz).* **txala eiñ** (c). (lagunartekoa.) Botaka egin. Sin. **bótaka**. **txala eitteko egon** Behia ernari egon. Ik. **ernári**.

TXALA EIÑ (c). (lagunartekoa.) Botaka egin. Sin. **bótaka**.

TXALAN-TXALAN Sin. **txortxor**.

TXÁLDAN, **txaldána** (d). adjektiboa. Txepela, ganorabako samarra. • Insustancial. *Persona inseguru ero txepel samarra danian.* Ik. **txákal**.

TXALÍLL, **txalílla** (c). izena. Txahal hila. • Feto de ternero abortado.

txalílla bota (c). aditza. Abortar una vaca. Don.

TXALIN Ik. **txóliñ**.

TXÁL-ÍXKO, **txál-íxkoa** (c). izena. Txahal-idiskoa. Urbete bat arterakoa. • Novillo, ternero de hasta un año. *Bigantxia txikixaua, ta aundixauai esate jako biaia. Porrejenplo txal txiki bat bigantxia ero txal-íxkoa da. Don. Gero íxko, soilik.* Ik. **bigántxa**, **íxko**.

TXÁLMA, **txálmak** (d). izena. Asto-txalma. Astoari edo zaldiari ganajatekotarako bizkarrean jartzen zaion egurrezko garraia gailua. *Onek txalmak dia, ganajatekotarako ta. Don. Asto-banastak saskiak dira eta hauek, berriz, egur makilazkoak eta bitarte zabalekoak.*

TXÁLO, **txálua** (a). izena. Aplauso. Ik. **bélarri**. **Txalo pin txalo, txalo ta txalo, katutxuá mizpillán gáñian dago** (a). esaera. Haur kanta.

*Txalo pin txalo, txalo ta txalo, katutxuá mizpillán gáñian dago.***txáluak jo** (a). aditza. Aplaudir. *Karreristak agertzen dienian jo txaluak./ Txalo ein zotsen Monzoni kalian pasatzerakuan.*

TXÁLTXA, **txaltxía** (b). izena. . TXALTXAPERRETXÍKU. cantharellus cibarius.. Perretxiku txiki guztiz horia, polita, saltsei botatzeko edo eta beste batzuekin nahasi tortillan jateko erabiltzen dena. Rebozuelo.

TXÁLTXIKI, **txáltxikixa** (b). izena. Ternerito, ternero lechal. *Guazen basarrira txaltxikixa ikustera.*

TXÁLUPA, **txálupia** (a). izena. Lancha, chalupa. *Txalupan ibili giñan Ondarruan.*

TXÁMARRA, **txámarría** (a). izena. Zamarra, chaquetón. Gure gazte denboran,, gurean behintzat, ez zen hitza erabiltzen. JAKE edo TXAKETA esaten genuen

TXANBOLIN-TXISTU, **TANBOLINTTERO** Ik. **danbólin-txístu**, **danbolintxéro**.

TXÁNBOLIÑ1. **Txánbolin** (c). izen propioa. Tamborilero. Se usa como apodo a los de la profesión. *Bitorixan bizi da Antzuelako Txanboliñ.***2. txanbolin** Ik. **danboliñ**.

TXÁNBRA, **txánbria** (d). izena. "Chambra. Vestidura interior, no ajustada, de mujer o de niño, que cubre la parte superior del cuerpo." (M. Moliner). *Gero agiñik pez, buruko emendaixa jantzitta, erropa luze-luze gona aundi batzuk, beste... txanbria esate jakon, beste amantal aundi bat. Mertz./ Guk erabiltzen giñuzen ba, txanbra zurixak ero. Jjp.*

TXÁNDA, **txándia** (a). izena. Turno, vez. *Artu dot medikuandako txandia.***txándaka** Alternándose, por turnos. *Anai-arrebak txandaka zaintzen dabe ama.*

TXÁNDAKA (a). Alternándose, por turnos. *Anai-arrebak txandaka zaintzen dabe ama.*

TXÁNDAKA Alternándose, por turnos. *Anai-arrebak txandaka zaintzen dabe ama.*

TXANDAPÁSA EIÑ (c). esapidea. Txandan norbaitek norbaiti aurea hartu edo norbere txanda galdu. • Adelantarse en una cola o perder la vez en la misma. *Aldamenera begira nagola txandapasa ein ddoste./ Amarretarako ezpaza presentazen txandapasa eingotsue./ Medikuana joan bia neban, baiña txandapasa ein dot; urreguan joango naiz.*

TXÁNDORRIKA (d). adberbioa. TXINDURRIKA, TXINDURRIZKA, TXINTXURRIZKA. Hanka bakarka harri bati kuadroz kuadro bultza egitean datzan antzinako neska jolasa. • Juego de niñas consistente en empujar de cuadro en cuadro una piedra a la pata coja. *Txandorrika ero txindurrika, ola kuadro batzuk itte zittuan, una-dos-tres, eta gero bi alde banatan, da ankiakin, arraian eztailla geratu, arritxo bat erabiltze zuan, arraia ikutze zebanak galdu itte zeban da. Gure gazte-denporan ume danak itte juen. Klem.* TXANDORRIKA IBILI. Klem.k dionez **txínbili!** esaten zen jolasa hasterakoan eta **txónbolo!** onez burutzen zenean. Sin. zelamiñetan (Os.).

TXÁNGAL, **txangála** (d). izena. Pertsona, maxkala, indargea. • Se dice de las personas débiles, sin energía. *Ondo txangala dago ba Beketxeko Maria be.* "Gangal" zentzuan ere agian entzun daiteke. Ik. **gángal**.

TXANGÁLDU (d). da aditza. Pertsona maxkaldu, indargetu, gaixoagatik, adinagatik edo edozergatik. • Debilitarse, perder la energía una persona. *Gaixua pasau zebanetik ziero txangalduta dago.*

TXANGET lk. **txánket**.

TXÁNKA1. txanka, txankía (b). izena. Sota, en los naipes. *Lau txanka batera eukittut eskuan. Txanka-kopia, txanka-urria, etab.* Sin. **txota. 2. txanka, txankía** (c). izena. Hanka mehea. *Palilluan lakotxe txankak zeuzkan.* lk. **txánkame**.

TXÁNKAME, txánkameia (d). adjektiboa. Txanka mehea; hanka meheak dituen. • Persona de piernas delgadas. Utilizado sobre todo como apelativo. *I, txankame, baloia joik eta ez nere ankia./ Badator gure txankame.* lk. **ankálaru, ánkamee**.

TXÁNKET, txankéta (d). izena. TXANGET. Gari jotzeko sistema zaharra: arlauza batzuk jarri zeharretara (banku baten gainean edo), azaoa hartu eta jo aletu arte. Garia oso igarra egotea komeni omen zen. • Sistema rudimentario que todavía usaban algunos cuando desapareció el trigo: se colocaba una losa horizontalmente y sobre ella se golpeaba el trigo. *Txanketian ba, arri-lozak ipiñitta. Arri-lozak ipintten zien banku baten gainian, illaran. Da garixa ipintten zan euzkittan igartzen. Da an auts galantakin jo biar. Jota aliok kendu. Aniz./ Len, makinaik etzanian, garixak txangetian jotzen zien.* TXANKETIAN JO, gehienetan. Arlauzari ez omen zitzaion "txanket" esaten, lanari txanketian jo, baizik. **txanketian jo, gehienetan** Txanketian jo, gehienetan. Arlauzari ez omen zitzaion <i>txanket</i> esaten, lanari txanketian jo, baizik.

TXÁNKULU, txánkulua (d). izena. TXÁNGULU, TXONKOLO. Zurezko oinetakoa. • Zueco, madreña. *Gure mutikotan ate onduan egote zien txankuluak.*

TXÁNO, txánua (a). izena. Capucha, gorro. *Otz eitten dau ta jantzi txanua.* lk. **kafé-txáno**.

TXANPIÑOE, -I, txanpiñóia (a). izena. . agaricus campestris. Champiñón.

TXÁNPNON, txanpóna (c). izena. Antzina, bi zentimoko moneta, Don.k dionez. Gaur, metalezko dirua. • En cierta época, alguna moneda de dos céntimos. Hoy, moneda. *Lengo zarrak kostunbre aundixa jeuken txanpona esateko. Diru klasen bat izan bia juan, lenaokua, nik enajuan ezautu. Klem./ Txanpona ei zan denporan baten txakurtzikixa baiño txikixaua. Bi zentimokua. Txanpona bi zentimokua. Zentimokua, bi zentimokua ta txakurtzikixa, da bi zentimokuai txanpona. Don.*

TXANTÍLLOI, txantillóia (d). izena. TXANTXILLOI. Arotz-lanean, forma bereko piezak egiteko erabiltzen den eredua. • Escantillón, plantilla. *Txantilloia oni esate xakon, au da ze esangotsut pa, kalibrian bezela, onek eukiko dabe lau milimetron aldia batetik bestera. Jen.*

TXANTXÁNGORRI, txantxángorrixa (a). izena. erithacus rubecula.. Petirrojo. **txantxangorrixak baiño buru gutxiago euki** (c). esapidea. Buru gutxi izan.

TXANTXAR, txantxarra izena. "Caries." (Lar <i>Antz</i>).

TXÁNTXETAKO, txántxetakua (d). izenlaguna. Brometakoa. lk. **txántxetan**.

TXÁNTXETAN (d). adverbioa. Brometan. • De broma. *Txantxetan ibiltzia gustatze jako*. Lehengo zaharrek erabilia; gaur egun **brometan**.

TXÁNTXIKU1. txantxiku, txantxikua (a). izena. (Oñati) Igela. Ik. **ugaríxo**. **2. Txántxiku** (b). Oñatiar askori beste herrietan jarri ohi zaion ezizena. • Apodo de muchos oñatiarras residentes fuera. *Famosua zuan Txantxikuneko dendia./ An, bajatok Txantxiku*.

TXANTXÍKUAR, txantxíkuarra (b). izena. (adierazkorra.) Oñatiarra. *Bajarduek txantxikuarrak xik eta xok. Bergarako esaera*.

TXANTXILLIKOT Ik. **kukúbala**.

TXANTXURKILLO Ik. **buztánurkill**.

TXAPA1. txapa, txapía (a). izena. Chapa, en general.

txapapera bota esapidea. Eiekulatzeko orduan atzera egin. "Coitus interruptus", alegia. *Txapel barik genbiztan eta azkenian txapapera bota biar*. **2. txapa, txapía** (a). izena. Sukalde gaineko burdina.

txapan erreta (a). Txapa gainean erreta.**3. txapa** Ik. **ikatz-txapa**.

TXÁPARDO, txápardua (d). izena. Gaztaina mota bat, basto samarra. *Txapardua bizkeixa ta baiño bastotxuaua zala uste juat, enajak gogor itteko baiña. Bastokotia, ipurdi aundixakin da. Klem./ Txapardua esaten jakon erreta jatekuai. Domusantutatik aurrera erreta. Erreta, ez kixkartuta e. Malutz-malutzak itxi tta oso ederrak. Aniz*. Ik. **gaztáiña**.

TXAPARRÓTE, txaparrotía (c). adjektiboa. Mozkotea, txikia eta zabala. • Achaparrado, -a, pequeño y regordete. *Gazte txaparrote bat zan gure maixua. Pertsonen, batik bat*. Ik. **mozkóte**.

TXÁPEL1. txapel, txapéla (a). izena. Boina.

Txapel aundixa ta buruik ez esaera. (Lar Antz).**Txapela buruan eta ibilli munduan esaera**. (Lar Antz).

2. txapel, txapéla (c). izena. (eufemismoa.) Kondoia.**3. txapel, txapéla** (d). izena. Ginbela.

Etxegintzan, zutikoaren sekzioak lazoa egiteko adina leku ez duenean, zutikoaren gainean jartzen den osagarria bere sekzioa handitzeko. *Ori txapela; zutikuan gaiñian txapela esateako, eta txapelan gaiñian bigia ero frontala. Sebas*. Sin. **gínbel**.

TXAPÉLGORRI1. txapélgorri, txapélgorrixa (c). izena. Txapel gorria daramana.**2. txapélgorri, txapélgorrixa** (c). izena. (eufemismoa.) Carlista. *Plazentzian txapelgorri asko zan*.

TXAPÍAU (c). dio aditza. (eufemismoa.) Lehiaketa bat edo dirua irabazi norbaiti; inoiz, lapurretan egin. Testuinguruak argitzen du. • Birlar; ganar una competición o dinero a alguien; a veces, robar. *Milla duro txapiau zoskuen kartetan./ Spriñian txapiau jotsan karrera*. Sin. **linpíau**. Ik. **miáu eiñ, txápío**.

TXAPIÑO, txapiñuak izena. Hankatrapuak. Abarkak janzteko oinak batuaz galtza modura erabiltzen zen lau puntako oihala. (Berrio-Elorrio). *Anketan al dan moruen txapiñuak-eta erute zittuen. Txapiñua da tela bat, kuadrua bat; ankia batze zan txapiñuaz. Berrio*. Bergara aldean **trapuak**.

TXÁPIO (c). aditza. (lagunartekoa.) Irabazi, lapurtu. *Ikusikok, Retegi atzetik joangok partidu osuan*

da azkenian txapio./ Komunian neuan bittartian karteria txaketatik txapio. Normalean esaldiaren azkenean jarria, inolako aditz laguntzailerik gabe. TXAPIO El Ik. **txapíau, línpio**.

TXAPÍTULA, txapítulia (d). izena. Kartoi, txapa, egur... zatia, zuloa estaltzeko-eta erabiltzen dena. • Cualquier pedazo de cartón, chapa, madera, etc. que sirve para tapar efímeramente un agujero, etc. *Txapitulia, txapitulatxo bat sartzia zulo baten ero. Txapitula bat ipiñi ero, leku txiki baten ero. Klem. Ik. txaplata*.

TXAPITXULA, txapítulie izena. (Leintz) Teilatuko leihatila.

TXAPLÁTA1. txaplata, txaplatía (c). izena. Adabakina. Egurrezkoa, gomazkoa, narruzkoa... • Petacho. *Gomazko txaplatatxo jarri dotsat abarkiai, zulu zeukan da. Arroparenari ere bai: adabakiñ, handia bada. Sin. txátal. Ik. adábakiñ, txapítula. 2. txaplata, txaplatía (c). izena. Zerbaiten pusketa txiki eta zapala. *“Busti ala siku”; ori arrixa zanian —dirua etzan egoten betik— eta orduan arrixa, bota txistua ta botatzen zan gora, arri-txaplata bat: “busti ala siku?”;. Don. 3. txaplata, txaplatía (c). adjektiboa. Lotsagabe samarra. (Emakumeez; neskatilez, batik bat). • Impertinente. Dícese, sobre todo, de las niñas traviesas y contestonas. *Txaplatia? Lotsagabe antzeko barritu samarra ero. Klem./ Belarrezkiñako batekin kendukotsut kontestatze gogua, txaplatioi alakuo.***

TXAPLIGO Ik. **etxáflero**.

TXAR, txárra (a). adjektiboa. Malo, -a. **lupuá baño txárraua** (c). esapidea. Oso txarra, gaiztoa. Pertsonaz, batik bat. *Orren aittajuna be lupua baño txarrauan zuan. Ez dakigu esapide hau lupu-ren lau adieretatik zeini dagokion. sarnia baño txarrauan izan esapidea. Oso txarra izan. txarraorik ez euki esapidea. 1. txarraorik ez euki* Okerrago ez egon. *Fernandok eztauka txarraorik. (Lar Antz). 2. txarraorik ez euki esapidea. Itxura txarrik izan ez. Aspaldian ikusteke nenguan, da eztauka txarraorik. (Lar Antz). txarréra artu (c). esapidea. Gaizki hartu. *Brometan “fraille”; esan notsan, txarrera artu ta burrukarako plantau jatan. txarréra jo esapidea. 1. txarrera jo (b). esapidea. Eguraldia txartu. *Egualdixak txarrera joko ei dau. 2. txarrera jo (c). esapidea. Ir a malas (por la via judicial, etc.) *Jente orrekin onian konpontzia obe dozue. Txarrera jo ezkerro galtzekuak daukazue. txarrián* (c). adberbioa. A malas. *Ni onian ona naiz baiña txarrián oso txarra./ Etxera ekarrikou, onian ezin bada txarrián. Sin. gogorrían. Ant. .****

TXÁRA, txaría (c). izena. Berez sortutako pago, haritz, arte... basoa. • Jaral. *Urrupaingo txaran ezkutau jat erbixa. Sin. txaraka. txarako egur, txarako egurra* izena. Berez hazitako zuhaitziko egurra. *Au da txarako egurra, ta orrek zuk esan dozun orrek dia subil-txendorrak. Jose.*

TXARA-BEDAR, txara-bedarra izena. "La clase de hierba mala de raíces largas." (Izag <i>Antz</i>).

TXARAKA, txarakía (d). izena. Txara. • Jaral. *Urriz-txarakia-ta; zerraua dagonian, txarakia. Txaria aitzai tta geixao esango jakok, baiña urritz-txarakia esan izan jakok. Bueno, ez; urritz-txaria be esate zuan. Txaria eta txarakia bat izangoittuk. Klem. Hitz konposatuetan, batik bat. Sin. txára.*

TXARKI (b). adberbioa. Gaizki. • Mal. Sin. **gáizki, txárto**.

TXARLÁTAN1. txarlátan, txarlatána (b). izena. Ferietan etengabeko berriketaz txutxeriak saltzen

dituena. • Charlatán de feria. *Txarlatanai erosittako abrelatasak eskaxa urten dau.* **2. txarlatan, txarlatána** (b). adjektiboa. Berritsua, jarduntsua.

TXAROL1. txarol, txarola izena. (Eibar) Piezak txarolatzeko taillarra. Pavón.**txarola emon** aditza. "Pavonar. • Galtzairuzko piezen gaiñazala ugartu ez dein oxido-kapa mehe urdin illunez tapatzia." (SB Eibetno).**2. txarol, txarola** (c). izena. Charol. *Txarolezko zapatekin dotore asko joaten giñan Paskuetara.*

TXARÓLES, txarolésa (c). izena. Ganado vacuno de raza charolesa. *Bost txal ekarrittu, txarolesak.* Ik. **umeskétu.**

TXARRAKA-TXARRAKA Ik. **txírriki-txárraka.**

TXARRÁMA, txárramia (c). izena. Cerda con crías. *Kortan zeuan txarrama bost umekin.* Azen.: txarráma, -ía ere bai.

TXARRÁNKA, txarrankía, -ak (c). izena. Txerri hankak; plater ezaguna. • Patas de cerdo. *Gaur txarrankak dauzkau bazkaltzeko.* Pluralean batik bat. Ik. **txarrí-bélarri.**

TXARRÁNTXA1. txarrantxa, txarrantxía (d). izena. Carda para limpiar y suavizar el lino antes del hilado. *Gurian be bazien artaiko aparatuak: txarrantxia. JJP./ Oiñ adornu moduan ikusten die txarrantxak.* Zurezko laukia, burdinazko punta zorrotz, luze eta ugarikoa. Txarrantxaren hortzetan gelditzen zena zen harigai finena. Txarrantxak hanka-leku bat izaten du, hanka bertan sartu eta eusteko. Ik. **karda.** **2. txarrantxa, txarrantxía** (d). izena. Alanbre eztakaduna. Ik. **alánbre-eztáka.** **3. txarrantxa, txarrantxia** (d). izena. Etxearen egiturari, zurajeak gogortzeko erabiltzen diren besoak. Normalean postetik frontalera botata ikusiko ditugu. Baina andaminoak gogortzeko ere erabiltzen dira. *Andamiñua ein da, tak, txarrantxak ipini, da zertze giñuzen. Txarrantxia izaten da josi besua* Sin. **áspa.** Ik. **beso, saiets.**

TXARRÁPO, txarrapúa (c). izena. Verraco. *Txarrapuan letxe gizenduta dago.* Sin. **apo.**

TXARRÁRTO, txarrartúa izena. Ale gabeko artaburua (?). • Mazorca de maíz al que no se le han formado los granos (?).

TXARRÁSKA, txarraskía (d). izena. Txarri aska. • Comedero de cerdo, generalmente tallado en piedra. *Posturia ein zebe txarraskia bixkarrera jaso baietz eta ezetz.*

TXARRA-TXARRA Ik. **txirri-txirri.**

TXARRÉME, txarremía (c). izena. Txerri-emea. • Cerda. *Txarreme gazte bat erosi dabe.*

TXÁRRI1. txarri, txarríxa (a). izena. Zerria. • Cerdo. Don.k dioskunez, hil bezperan ez omen zaio jaten ematen. Hilberan hil ohi da. Hiltzen zen egunari txarri iltze eguna. Hemen ez da egin izan ospakizun berezirik, txarribodarik, Bizkaia aldean bezala.**2. txarri, txarríxa** (a). adjektiboa. Cerdo, puerco, cochino. *I neska bikin da guretako bapez; txarrixa galanta i.* Askotan ez da hain iraingarria lagun artean elkarri «txarri» deitzea. Behin baino gehiagotan entzun dugu faboreak horrela eskertzen: *Portau aiz txarrixoi, datorren urtian be i etxerako.txárrri urdíá!* (d). Antzina insulto bezala erabilia. *Txarri urdia; gauza zatarra esan bia zanian: txarri urdia! Gaizki esateko. Klem. Klementak*

ez daki zer esan nahi duen "urdia" hitzak. Bakarrik modu honetan entzun du.

TXARRI BÉDAR, **txarri bedár**ra (d). izena. . *sanicula europaea*. Sanícula. Sin. ur bedar (Eib.). Sin. ur bedar.

TXÁRRI URDÍA! (d). Antzina insulto bezala erabilia. *Txarri urdia; gauza zatarra esan bia zanian: txarri urdia! Gaizki esateko. Klem.* Klementak ez daki zer esan nahi duen "urdia" hitzak. Bakarrik modu honetan entzun du.

TXARRI-ÁGIÑ, **txarri-agiña** (c). izena. Beste baten gainetik irteten duen hortz okerra. • Diente torcido que sale encima de otro. *Ola iñoiz gaiñetik eta urten izan dabe, orrek txarri-agiñak. Klem./ Iñoiz ortzak okerrak izateittuk, ola albotik berai gaiñetik urten beste batek: txarri-agiña ori. Don.* "Letagin" zentzuan esaten duenik ere bada.

TXARRI-BANKU, **txarri-bankua** (c). izena. Txerria zatitzeko egurrezko banku luzea.

TXARRÍ-BÉLARRI, **txarri-bélarrixak** (c). izena. Orejas de cerdo, plato típico de Carnavales. *Ondo gertau ezkerro gozuak izateittuk txarri-belarrixak eta ankak. Karnabaletan jate zittuan lenao. Tipikua arek eta torradak. Txarrankia be ondo gertau ezkerro gozua dok. Klem.* Ik. **txarránka**.

TXARRÍDUN, **txarridúna** (c). izena. Txerri saltzailea. • El que se dedica a la compraventa de cerdos. *Gure mutikotan Julen-txarri zan inguru onetako txarriduna.*

TXARRI-ÉGAL, **txarri-egala(k)** izena. Hirugiarrea duen txerriaren alboetako haragi zatia. *Egaletan eukitzen jok, txarri-egalak, arek apartauta ia jateko preparatzen danian: irugiarria. Don.*

TXARRI-ERREGALO, **txarri-erregalua** (c). Txerria hildakoan familiartekoei edo auzokoei egiten zaien txerrikerri erregalua.

Aurten be txarri-erregalua bialdu dabe, odolostiak eta urdaixa. Sin. **errégalo, -u**.

TXARRI-GALDARA, **txarri-galdaria** (c). izena. Txerri-jana gertatzen den galdara.

TXARRI-GÁNTXU, **-O**, **txarri-gantxúa** (c). izena. Txerria hiltzeko gantxu bikoitza, punta bat alde batera eta bestea bestera duena. • Gancho de matar el cerdo. *Txarrixa iltzeko txarri-gantxua. Lepotik sartu aura, ta karnazeruak iztarrian katiatze jok ies eiñ eztaixon txarrixak, bata lepuan da bestia iztarrian; alde bittatik eukitze jok arek; alde baten eukitze jok aundixa, bestian zorrotza; da zorrotzakin txarrixai eltze jakok eta bestia iztarrian katiatze jok karnazeruak, kutxillua sartzeko ies eiñ eztaixon. Klem.*

TXARRI-GÁNTZ, **txarri-gántza** (d). izena. Txerriaren saihetsetan izaten diren koipe multzo lodiak. • Manteca.

TXARRI-ILTZE, **txarri-iltzia** (b). **TXARRIBODA** (EIB.). La matanza del cerdo.

TXARRI-JÁN, **txarri-jána** (b). izena. Comida para cerdos, bazofia. *Kuarteleko bazkaixak txarri-jana emute zeban.*

TXARRIKERÍA1. **txarrikerixa**, **txarrikerixía** (a). izena. Zerrikeria, ekintza edo jokaera zikina. •

Cerdada, acción o comportamiento sucio. *Olako txarrikerixaik ezidak neri eiñ.* **2. txarrikerixa, txarrikerixía** (a). izena. Zikinkeria. • Porquería. *Etxe aretan jeuan txarrikerixia.*

TXÁRRIKI, txárrikixa (b). izena. Txerri gauza. • Carne u otro alimento derivado del cerdo. *Kastilla aldian txarrikixa ta ardikixa jaten dabe ugari.*

TXARRI-KÓIPE, txarri-koipía (c). izena. Manteca derretida de cerdo.

TXARRÍKORTA, txarríkortia (b). izena. (Ubera) Pocilga. *Onek txarríkortia emute jok.* Sin. **txarrítoki.**

TXARRIKÚMA, txarrikumía (b). izena. Cría de cerdo, cochinito. *Txarrikumia jan giñuan labian erreta.*

TXARRI-KURRUXKA lk. **kurrúxka.**

TXARRÍTOKI, txarrítokixa (b). izena. Zerritegia. Pocilga. *Txarrítokixa emute juan etxe arek.* Sin. **txarríkorta.**

TXARRÍTTA, txarrittia (c). izena. Piper egitea, eskolara ez joatea. • El hacer novillos. *Makiña bat txarritta einddakuak gaittuk mutikotan./ Txarrittia besteik ezkeunkan buruan. txarríttan eiñ* (b). esapidea. Piper egin. • Hacer novillos. *Txarríttan eiñ; da bein baiñ; o geixaotan joate giñ; uztan Mari Justai keixak arrapatzera.* Sin. eskuela martxando eiñ; (Elg.), kalba eiñ; (Oñ;.). Sin. **pípar eiñ.**

TXARRÍTTU1. txarrittu (c). da-du aditza. (adierazkorra.) Zikin-zikin egin. • Ensuciar(se) mucho. *Ziero txarríttuta etorri die ikastolatik.* **2. txarríttuta** (d). adberbioa. (eufemismoa.) Lafiauta, atxurtuta, mozkortuta. Don.

TXÁRTEL, txartéla (c). izena. Paskuazkoa egiteko, apaizarekin elkarrizketa egin ondoren, urtero lortu behar zen papeltxo. • Cédula que había que conseguir cada año del cura para poder cumplir con el precepto pascual. *Dotriña buruz jakiñ arte etzozkun emuten txartelik.* lk. **paskuazkúa eiñ.**

TXÁRTO (b). adberbioa. Gaizki. • Mal. *Txarto dago bidia.* Ubera aldean gehiago. Sin. **gáizki, txarki.**

TXÁRTU (b). da-du aditza. Empeorar. *Asko txartu da gure arteko girua./ Egualdixa txartu ein ddau.*

TXARTXA izena. (Eibar) "Estructura de madera que forma la prensa en el lagar. *Aurten sagardaua eitterakuan jota txartxak be apurtu dittue gurian.*" (SB Eibetno).

TXASTA EIÑ (b). aditza. (haur hizkera.) Indizioa sartu. • Poner una inyección. *Ez ibilli ortosik arri gaiñian, bestela medikuak txasta eingotsu.* Etim.: zast egin.

TXASTARTU aditza. (Antzuola) ZASTARTU. "Txikitu, gastatu, zartartu... *Gizon asarria izen da, baiña oin ziero txastartuta dao.*" (Lar Antz).

TXÁTAL, txatála (d). izena. Petacho de cualquier tipo. *Egur puxketa bat ero, beste erozer gauza, txataltxo bat.* Klem. lk. **txapítula, txaplata.**

TXÁTAR, **txatárra** (a). izena. Chatarra. *Txatarraz betetako kamioi bat iduli da.*

TXATARRÉRIXA, **txatarrérixia** (b). izena. Chatarrería.

TXATARRÉRO, **txatarrerúa** (b). izena. Chatarrero.

TXÁTO, **-A**, **txátua**, **-ia** (a). adjektiboa. Chato, -a. lk. **súr-motz**.

TXÁTXALA, **txátxalia** (c). adjektiboa. TXATXAL. Txotxoloa (emakumea). *Zetan abill or, txatxalioi alakuoi./ Neska ori txatxal samarra da.*

TXATXALKERÍXA, **txatxalkerixía** (c). izena. Txatxalaren ekintza.

TXÁTXAR, **txatxárra** (b). adjektiboa. Txiki-txikia. • Diminuto, -a, pequeño, -a. *Meloi txatxar bateaittik ogei duro kobrau jostan.* lk. **záztar**.

TXÁTXARA, **txátxaria** (c). izena. Despreocupación, pachorra. *Au da daukazuen txatxaria, goizeko irurak eta oinddio barriketan./ Txatxaria bia da dagon izotzakin minifaldia jazteko.*

TXATXARKERÍXA, **txatxarkerixía** (c). izena. (adierazkorra.) Gauza ezdeusa, huskeria. • Nimiedad, nadería *Txatxarkerixatan ibiliko aiz ba? Erosik Mercedes bat./ Orrek etxaukek txatxarkerixaik, orrek angulak pe aundixak jate jittuek./ Iru milloi tokau jakon loterixan; txatxarkerixa bat.* Gisa honetako esaldi umoretsuetan, batik bat; TXATXARKERIXETAN IBILI, sarri. lk. **uskeríxa**.

TXATXILIPURDI lk. **txilípurdi**.

TXÁTXU, **txatxúa** (c). adjektiboa. Lelo, -a, imbécil. *Etzoskun atia zabaldu nai txatxu arek alaku arek.*

TXATXUÁLDI, **txatxualdíxa** (c). izena. Norbait txatxu dagoeneko aldia. • Temporada de necesidad que pasa una persona. *Txatxualdixak emute zotsanian etzan giro izaten aren inguruan.*

TXATXUR, **txatxúrra** (c). izena. (haur hizkera.) Hagina. • Diente. *Txatxurtxuak miñ emuten dotsue ezta, biotza?/ Ointxe dauzka txatxurrak urtetzen.* TXATXURTXO, batik bat.

TXATXÚTU (b). da aditza. Txatxu bihurtu. • Volverse idiota o ligero de cascos. *Len ain majja zan da oiñ ziero txatxututa dago.* Emakumeez, batik bat.

TXELDOR lk. **txíldor**.

TXENDOR, **txendórra** (c). izena. TXONDOR. Txondorra. • Pira para hacer carbón. *Bestela txendorra dana erretzea faten da egosi barik.* Cand. lk. **ikaztoi**, **ilentxa-txendor**, **subill-txendor**.

txendorra egosi aditza. Ikatza egin txondorrean. *Egosi esate ako; goitti bera faten da a egosten, barrenea.* Mart. **txendorra kargau** aditza. Txondorra egin. *Eta nik atzenengo ei naban txendorra kargatzen-da zuen aittitakin, Posakua, Jose; aetxekin ementxe Pagatzakuei ni ibili nitzan kargatzen laguntzen.* Cand.**txendorra sutu** aditza. Txondorrari su eman. *Urrengo eunian sutu eitte zan txendorra.* Jose.

TXENDORGILLE, txendorgillia (d). izena. TXONDORGILLE. Ikazkina. *Aizia zeñ aldetati jotzen daben iarri ein bijao txendorgilliek. Jose.* Sin. **ikazgille, ikázgiñ.**

TXENDOR-ZÚLO, txendor-zulúa (d). izena. TXONDOR-ZULO. Txondorra egiten den lautadatxoa. *Txendor-zulua ero ikaztei-zulua, guk bixetaa. Cand.* Sin. **ikaztei-zulo.**

TXÉPA, txépia (b). izena. Chepa, giba. Sin. **jíba, kórkoba, kórkotx.**

TXÉPEL1. txepel, txepéla (a). adjektiboa. Ganora gutxikoa. • De poco fuste, bobo, -a. *Eziozu kasoik eiñ, txepel utsa da ta.* Emakumeez, batik bat. **2. txepel, txepéla** (c). adjektiboa. Epela, beroa edo hotza egon beharreko edari bat. Ardoa edo beste edari bat makaldu edo eskastu denean ere esaten da txepela dagoela. **3. txepel, txepéla** (c). adjektiboa. Gatzik gabea. Janariaz, adibidez. • Soso, insípido. *Txepela dagola aura, gatzik eztaukala. Don.* Ik. **sóso.**

TXEPÉLDU1. txepéldu (b). da-du aditza. Txepel bihurtu. • Volver(se) necio, -a. *Ziero txepelduta ikusten dot aspaldixan dendari ori.* **2. txepéldu** (b). da aditza. Bero edo hotz egon beharreko edaria epeldu. *Eraizu ori ziero txepeldu baiño len.* Ik. **txepel.**

TXEPEL-JARDUN Ik. **jardun txepel.**

TXEPELKERÍXA, txepelkerixía (b). izena. EPELKERÍXA. Necedad. *Oin be txepelkerixan batekin etorriko jaku.* EPELKERÍXA (leunagoa).

TXÉPETX, txepétxa (b). izena. troglodytes troglodytes. Chochín. *Txepetxa ei da emengo txoririk txikiña.*

TXEPÓSO, txeposúa (b). adjektiboa. Giboso. Sin. **jibóso, kórkobadun, kórkotx.**

TXERREN, txerrena (c). izena. TXARRAN (OÑ.). Deabrua. Ik. **infarnuko txerren.**

TXERTÁKA, txertakía (d). izena. Gaztaina mota bat; txertatu gabea, agi denez. Baliteke beste txertatu gabeko fruta-arbolez ere erabiltzea. Ik. **gaztáiña.**

TXIBA izena. "Tronpa (jolasa)." (Lar <i>Antz.</i>.</p></div>
<div data-bbox="48 653 954 705" data-label="Text">
<p>1. TXIBATO, txibatua izena. clitopilus prunulus. Perretxikoa. "Molinera. <i>Txibatua esaten jetsagu onguak nun dagozen esaten dabelako, txibatuan atzetik beti ongua agertzen dalako inguru berian.</i> " (SB Eibetno).</p></div>
<div data-bbox="48 721 490 740" data-label="Text">
<p>2. TXÍBATO, txíbatua izena. Salataria. • Chivato</p></div>
<div data-bbox="48 755 944 807" data-label="Text">
<p>TXIBATO1. txibato, txibatua izena. clitopilus prunulus. Perretxikoa. "Molinera. <i>Txibatua esaten jetsagu onguak nun dagozen esaten dabelako, txibatuan atzetik beti ongua agertzen dalako inguru berian.</i> " (SB Eibetno). 2. txíbatu, txíbatua izena. Salataria. • Chivato</p></div>
<div data-bbox="48 821 930 857" data-label="Text">
<p>TXIBIXA, txibixia izena. (Eibar) TXIBI, -XA. "Chipirón. Hitztunen arabera, amaierako /a/ berezkua da edo ez." (SB Eibetno). Sin. txipiroe, -i.</p></div>
<div data-bbox="48 871 947 923" data-label="Text">
<p>TXÍDAR, txidárra (c). izena. . vicia sativa. Veza, arveja. Hosto ugariko landare honek lore bioletak eta lekatxoak ditu. Soroan erein izan da ganajatekotzat ebakitzeko. Gure informante batek TXIDAR TXIKIxa, TXIDAR AUNDIxa eta TXIDAR GAIZTUa bereizten ditu.</p></div>

TXÍFLO, txíflua (c). izena. Silbato. *Lizarrakin eitten genduan guk txiflua, lizar madalaz.* Ik. **píto, txilíbittu, txístu.**

TXÍKI (Leintz) TXIKIÑ (OÑ., LEIN.). **1. txiki, txikíxa** (a). adjektiboa. Pequeño, -a.

txiki-txiki eiñ (c). esapidea. Triturar, despedazar. *Liburua galtzen bostak txiki-txiki eingo aut.* Amenazu gisa erabilia. **txikíttan** (a). adberbioa. Umetan. • En la infancia. *Diabru galanta intzan i txikíttan.* Asko erabilia. **txikíttatik artu** (c). esapidea. Umetatik hasi trebatzen. *Dantzari ona izateko txikíttatik artu bia da personia./ Txikíttatik artzeittue Bergan igerilarixak.* **2. txiki** posposizioa. Zenbait santu izenen atzean jarrita, herri edo auzo festa baten hurrengo eguna. <i>San Paulo-txiki, San Roke-txiki,</i> etab. Meza, salda, eta antzina zenbait lekutan erromeria ere egin ohi zen festa biharamunean. *San Paulo-txiki egunez izan zan edurte aundi aura.*

TXIKI-TXAKA onomatopeia. (Eibar) TIKI-TAKA. "Pelotan egin, indar barik, suabe. *Txiki-txaka esaten da iñoiz, hola pelotan-edo umien moduan dabizenian.*" (SB Eibetno)

TXIKÍ! TXIKÍ! TXIKÍ! (d). interjekzioa. Grito para llamar a los cerdos. *Baldia jo ta, “txikí! txikí! txikí!... Oixe esaten jakon, bai. Don.*

TXIKIKERÍXA, txikikerixía (b). izena. Huskeria. • Pequeñez. *Erosteotan Audi bat; ez gaittuk txikikeritxetan ibiliko.* Sin. **uskeríxa.**

TXÍKILI-TXÁKALA **1. txikili-txakala** (c). onomatopeia. Poliki, baina seguru; zaharren moduan edo (ibili). *An ibiltzen da etxe inguruan txikili-txakala, ortuko lantxuak eiñ, arrautzak batu, eta ola.* **2. txikili-txakala** (c). Sexu-jolasean, txortan. *Neska-mutillak ohe baten, aiton-amonak beste baten, txikili-txakala egiten. (Kanta zahar zatia).*

TXIKILLEROI, TXIKILLERONKA Ik. **txiríkill.**

TXIKIMEN, txikimena izena. "Apurtzea, suntsitzea. (Lar Antz). *Emen daon txikimenak eztauka akaberaik.*" (Lar Antz).

TXIKIRÍXO Ik. **zikiríxo.**

TXÍKITA, txíkitia (c). izena. Balio gutxiko txanpona. • Chiquita. *Ez zotan txikitaik pe emon./ Txikita bategatik saldukosk.* Forma mugatuan ez da entzuten. Ik. **xémeiko.**

TXIKÍTEO, txikíteua (a). izena. Tabernaz taberna txikitoak hartzen ibiltzeko ohitura. • Chiquiteo. *Ari txikíteua kendu ezkerro akabo.*

TXIKITÉRO, txikiterúa (b). izena. Txikiteo zalea. • Poteador, chiquitero. *Txikitero amorratua da Bandako direktoria.*

TXÍKITO, txíkitua (b). izena. Baso laurden ardo. • Chiquito de vino. *Eguardiro jote jittuk dozena bat txikito.* TXIKITUA JO, sarri.

TXIKITTU **1. txikittu** (b). du aditza. Xehetu, puskatu. • Romper, despedazar. *Baloiakin eskaparate kristala txikittu giñuan.* **2. txikittu** (b). da aditza. Txiki bihurtu. • Empequeñecer. *Jostunak txikittu ein ddosta prakak.*

TXIKO, txikue izena. (Leintz) Moxala. Ik. **móxal.**

TXIKOL, **txikola** izena. (Leintz) Txirikila. Ik. **txiríkill**.

TXIKOTE, **txikotía** (d). izena. TXIKOTA. Ganaduak ostikoka egin ez zezan hanka lotzeko erabiltzen zen tresna. Uztau bat bere ziriarekin. *Txikotía esaten jakon, ganauai ankia jaso, ola sartzen jakon, da amen ziri bat, aurreko ankia doblauta, ostikaka eiñ eztaixen. Txikotía esaten jakuan ari. Ganauai doblatzen jakon ola, ta aro ori sartzen zan; emen ziri bat. Orduan ezin zeban zuzendu, eziñ apoiau lurrian. Eta ari txikotía. Don* Ez dakit TXIKOTE ala TXIKOTA den.

TXIKUPLEITU TXIKÚFLAITTU.1. **txikúpleittu, txikúpleittuak** (d). izena. Eztabaida, ika-mika. *An ebitzen Miren eta Pello berotuta txikopleittu batian./ Joan zaittezte bixkor iturrira, ainbeste txikuflaittu barik.* Gure amak dio aita-jaunak esaten ziela, anai-arrebak uretara zein joan eztabaidan zebiltzanean. Bigarren osagaia "-pleitu" hitza izan daiteke. 2. **txikúpleittu, txikúpleittuak** (d). Perifollo? *Jesus... eskuz inddakua izango da. Makiña bat txikuflaittu badau beintzet.* Gure amari behin entzuna, kolore eta dibuju askoko jertse batez.

TXILBOR Ik. **zílbot**.

TXÍLDOR, **txildorra** (c). izena. TXELDOR, TXINDOR, TXINTXOR. Begi ondoan sortzen den garautxo. • Orzuelo. *Begixan sarri izate zeban txildorra mutikotan.*

TXÍLE, **txília** (d). izena. TXILLA. Listón delgado que se clava antes de aplicar el yeso del cielo raso. *Suelorrasua ipintzeko lelengo txiliak joste zien./ Txillia esaten zana len suelo rasua-eta eitteko. Oiñ eskaiolia dana ibiltzen da, baiña len dana egurra, txillia. Sebas.* Txileen artean zentimetro bateko bitartea uzten da, igeltsua bertan oratuta gera dadin. Bestelakoei, ezkinetan eta ipintzen direnei, **lístoe**. Ik. **listura**.

TXILIBITERO, **txilibitterua** adjektiboa. (Antzuola) "Pertsona arina, txoriburua, seriotasun gutxikoa. *Makiña bat txilibitero dao erri onetan.*" (Lar Antz). Sin. frantxuleta, txilibitu (Lar Antz). Sin. **kaskáriñ, txóliñ**.

TXILÍBITTU TXILIBITU.1. **txilíbittu, txilíbittua** (c). izena. Flauta. *Erregiak beiñ txilíbittu txiki bat erregalau zosten.* 2. **txilíbittu, txilíbittua** (c). izena. Silbato. *Arbitruai lokatzatan galdu jakuan txilíbittua.* Sin. **txíflo, píto**. 3. **txilíbittu, txilíbittua** (c). izena. Zakila. • Pene. *Zer eitten dozu txilíbittua bistan.* 4. **txilíbittu, txilíbittua** (c). adjektiboa. Txorimaloa. • De poco seso. *Arek edozer gauza, txilíbittu samarra dok eta.* Sin. **fláuta**.

TXILIBRÍZKAU (c). da aditza. (eufemismoa.) Mozkortu samartu. • Ponerse piripi. *Mozkortuta ez baiña puxkat txilibrizkauta gendeztan./ Puxkat txilibrizkatzen danian salaua jartzen dok.* Umorezkoa.

TXILIN BEDAR Ik. **kanpai bédar**.

TXÍLIÑ, **txiliña** (b). izena. Campanilla. *Monagilluai txiliña galdu jako.* Sin. **kanpánilla**.

TXILÍPALA1. **txilípala, txilípalia** (d). izena. Arto-kirtena luzetara erditik ebakiz lortzen den perkusio-tresna, garai bateko haur-jostailua. *Babak batzen laguntzen badostazu, txilipalia eingo dotsut.* 2. **txilípala, txilípalia** (d). izena. (Osintxu) Urte-meza ondoren bertan izandakoei tabernan ateratzen zitzaien hamarretakoa, hildakoaren familiaren kontura, jakina. *Urtia zanian, urte-mezia, ta txilipalia esaten jakon orduan, tabernan etaratzen zeбен ardao gozuak eta, pikuak eta, gailletak eta, kafiak eta. Txilipalia. Ben.*

TXILÍPURDI, **txilípurdixa** (d). izena. TXATXILIPURDI, TXITXILIPURDI, ITXILIPURDI. (LEIN.).

Burua lurrean jarrita emandako buelta. *Gola sartzen daben bakoitzian txilipurdixa* Sin. **buerda**.

txilípurdika (c). adberbioa. Dando vueltas con la cabeza apoyada en el suelo. *Makiña bat txilipurdika eitten giñuan ganauzaiñian./ Arantzan trabau eta txilipurdika jausi zuan mugan bera*. Ik. **txirrínboletaka**.

TXILÍXO, **txilixúa** (a). izena. Chillido, grito agudo. *Egundoko txilixuak etara zittuan poltsia arrapau zotsenian*.

txilixoka (a). adberbioa. Chillando. *Klasian sartu naizenian txilixoka baten zebitzen danak*. Ik. **karráxika**.

TXÍMA, **txímak** (b). izena. (adierazkorra.) lleak. • Cabellera, generalmente cuando ésta esta revuelta o mal compuesta. Greñas. *Jesus, neska orrek daroia tximak*.

TXIMÁLUZE, **tximáluzia** (c). adjektiboa. (adierazkorra.) lleluzea. • Melenudo, -a, greñudo, -a.

Mutill tximaluze batekin zebillen. Kutsu peioratiboa du. Ik. **tximoso**, **-a**.

TXIMELÉTA, **tximeletía** (a). izena. MITXELETA. Mariposa. Sin. **mitxeléta**.

TXIMÍNIXA, **tximínixia** (a). izena. Chimenea. *Orrek, ganorabako orrek, Altos Hornosko tximinixa puntatik botata be eleukek abixadaik artuko (esaera-txistea)*. Ik. **suetxe**.

TXIMIÑO, **tximiñúa** (a). izena. Mono.

tximiñuának eiñ (c). esapidea. Esfortzu edo ahalegin handia egin. *Tximiñuanak eitten ibilli tta azkenian ezetarako bez./ Elusura Otabetan. Joliin, lelengo ibilli bedarra batzen tximiñua bezelaxe... da gero oiñez dinbili-danbala izardi batian Elusura erromeixara. Cel. (AA BergEus, 336. o.)*.

TXIMIÑOKERÍA, **tximiñokerixía** (c). izena. Monería. *Ibilli tximiñokerixetan arbola puntan da gero etorri azurrak koliakin pegatzera*.

TXIMÍSTA, **tximistía** (d). izena. Oineztua. • Relámpago. Gure denporan oiñeztu eta oiñeztarri entzun izan dira ia bakarrik, baina lehengo zaharrek tximista eta tximistarri ere esaten zituzten.

Bada familia bat San Juanen "Tximistía" ezizena duena. Sin. **oiñéztu**, **tximísta**. **tximistian pare** (c). esapidea. Abiada bizian. *Berriz be, bestaldia artu nebanian, etxando tximistas jarraitu najuan arru batetik bera. (SM Ezten)*

TXIMÍSTARRI, **tximístarrixa** (d). izena. Rayo. Ik. **oiñéztarri**, **tximísta**.

TXIMO IÑ esapidea. (Antzuola) "Busti. *Dantzan ibili tta tximo indda etorri zan etxea.*" (Lar Antz).

TXIMOSO, **-A**, **tximosua**, **-ía** (b). adjektiboa. Tximaluzea. • Greñudo, -a. *Aspaldixan tximoso bat eindda zare*. Ik. **tximáluze**.

TXIMUTX, **txímutxa** (c). izena. parus sp. Txori txikia. Ik. **burúbeltz**.

TXÍMUTX TXÁKUR, **txímutx txakúrra** (d). izena. Cierta raza de perro muy común hasta hace poco, muy vivaz y de pequeño tamaño. *Tximutx txakurrakin kazan eitte zeban askok*.

TXIMUTZ, **tximútza** (d). izena. (Antzuola) IMUTX (EIB.). Chinche. Sin. **txíntxe**.

TXINBILI-TXONBOLO onomatopeia. "Umea altzoan hartu edo seaskan umeari lo eragiteko alde batera eta bestera egiten den mugimendua. Gehienek su aurrean egiten zuten. *Tiok su aurrian artu*

eta txinbili-txonbolo eraitte zoskun umore oneko zeuanian." (Lar Antz) Sin. **zinbili-zanbulu**.

txinbili-txonbolua (d). Antzinako lo-kanta baten hasiera: *Txinbili-txonbolua enok ni zorua, sardiña burua baiño obe dok oillua. Klem.* Musika aldatuz errepikatu ohi zan. Ik. **txándorrika**.

TXÍNBO, txínbua (c). izena. (Eibar) "Txinbo berbia ixa edozein txori txikintzat erabiltzen dogu Eibarren. •" (Sarasua).

Eibarren esaten da, batik bat. Ondoren datoz txinbo mota batzuk.**bigotedun txinbo, bigotedun txinbua** muscicapa striata. Papamoscas.**errekako txinbo, errekako txinbua** izena. cettia cetti. Ruiseñor bastardo. (Saras <i>Hegaz</i>).

Ik. **pikutxóri, sasitxori. txinbo burubaltz, txinbo burubaltza** izena. atricapilla sylvia. Curruca capiroxada.**txinbo egozuri, txinbo egozurixa** izena. ficedula hypoleuca.**txinbo karkar, txinbo karkarra** izena. saxicola torquata. Tarabilla.

txinbo ori, txinbo orixa izena. sylvia borin. Curruca mosquitera.

TXÍNBO TXÁKUR, txínbo txakúrra (d). izena. Perro chimbero. *Len, kazia ugari zanian, txinbo-txakurak pe bai.*

TXINDOR Ik. **txíldor**.

TXINDÚRRASKI, txindúrraskixa izena. Landare bat da. Ez dakigu zein baina txindurri bedarra izan daitekeela pentsatzen dugu Donatok eman digu izena. Etim.: txindurri+aski.

TXÍNDURRI, txíndurrixa (a). izena. TXINDDURRI, TXINDORRI, TXINGURRI (LEIN.). Hormiga. **Txindurriak erlabixuai:** esaera. Lanik egin ez eta gero eskean dabilenari esaten zaio.

Txindurriak erlabixuai: txindurriak elefantiai irabazi esapidea. "Txikia eta haundia borrokan edo lehian dabiltzanean, txikiak irabaz dezakeela adierazi nahi du." (Lar <i>Antz</i>).

TXÍNDURRI BÉDAR, txíndurri bedárra (d). izena. . polygonum persicaria. Persicaria. Sustraia etzana du eta korapiloetatik zuztar berriak botatzen ditu. Kirtena, oster, zuzen-zuzena. Hostoak melokotoiarenak bezalakoak, erdian beltzune batekin. Leku hezea gustatzen zaio eta zaindu gabeko baratzetan hazten da batez ere. Egosita hartzen da bai sikatzeko, bai zauriak ixteko. Sin. **pipar bédar górrri**.

TXINDURRIKA Ik. **txándorrika**.

TXINDURRI MADARI, txindurri madarixa (d). izena. Madari mota bat.

TXÍNDURRITU (b). zaio aditza. Entumecerse, dormirse un miembro. *Ankia txindurritu jat.* Azen.: txindúrritu ere bai.

TXÍNGA1. txínga, txíngia (b). izena. Argolla de hierro fija a la pared. *txingan— eta goiz guztia tabernan kartetan.* **2. txinga, txingia** izena. (Antzuola) "Euskaraz egitearren zigor modura ikasleari ematen zitzaion eraztun edo aro modukoa. Azkenengo izaten zuena eskolan geratzen zen zigortuta." (Lar Antz).**3. txinga, txingia** izena. (Antzuola) "Sutarako egurrak txikitzeke erabiltzen zen tresna. • Cuña de hierro." Lar <i>Antz</i>).

Txingiakin txeetze giñutzen laberako egurrak ogixa in bi giñuanian.

TXINGA-ERUÁLE, **txinga-erualía** (c). izena. Txinga-eruate kirola praktikatzen duena.

TXINGÁ-ERÚATE, **txingá-erúatia** (c). izena. TXINGA-JOKU. Bi pisu esku banatan hartuta atzera eta aurrera eramatean datzan herri kirola.

TXÍNGAR, **txingárra** (b). izena. Brasa zati bakoitza. • Ascua, cada trozo de brasa. *Txingarra jausi jatan anka gaiñera*. Ik. **brása**, **illínti**, **txinpárta**. **txingarra baiño beruaua** (c). esapidea. Oso beroa. Zentzu sexualaz, gehienbat. *Txingarra baiño beruaua ei dok neska ori*.

TXINGET1. **txinget**, **txingéta** (c). izena. Pestillo. *Atiai txingeta emon da etxaburuko atetik urteizu*. Ik. **morróillo**, **pasaéra**. **2. txinget**, **txingeta** (c). izena. Krixketa, atea kanpotik eta barrutik ixteko altzairuzko pieza. *Kanpotik izaten dana? Txingeta. Sebas*. Sin. **kriskéta**.

TXÍNGOR, **txingórra** (a). izena. Kazkabarra. • Granizo. *Txingorra zuri zeuan goizian*.

TXINGORRÁDA, **txingorradía** (c). izena. TXINGORRÁRA. Txingor-zaparrada. • Granizada. *Txingorrada galanta bota zeban atzo atsaldian*. Sin. **txingor-zaparrara**.

TXINGORRA-MINGORRA izena. (Eibar) "Cuatro esquinas. Harrapatze jokua. Lau, arboletan ipiñi eta bestia erdixan. Partaidiak batetik bestera pasatzen diran bittartian, katibuak harrapau egin bihar dittu. "Txutxurrutxu" esandakuan kanbixau eta katibuak harrapau. Galtzen dabenak, bera katibu." (SB <i>Eibetno).

</i>

TXINGOR-ZAPARRARA, **txingor-zaparraría** (b). izena. Granizada. Sin. **txingorráda**.

TXÍNGUAN (d). adberbioa. Hanka bakarka. Sin. anka txuntxurrian. Sin. **anka bakarrian**. Ik. **txándorrika**.

TXINPÁRTA, **txinpartía** (b). izena. Sutan dagoen egurretik, eztanda egitean, sortzen den txingartxo. Baita argindarrak edo igurtzidurak sortua ere. • Chispa.

txinpartak dárixela (c). esapidea. Oso haserre. *Txinpartak darixela dago kasetara arrapau dotselako*.

TXINTXA, **txíntxia** (d). izena. Asto-albarden lokarria. • Cincha.

TXINTXARRI Ik. **íntxarri**.

TXINTXAU (a). aditza. (haur hizkera.) Zirikatu. *Enara beti neri txintxatzen ibiltzen da*. Berri samarra dirudi.

TXINTXAUN, **txintxauna** (Eibar) Columpio. Sin. **zíburu**, **zínbilu-zánbulu**.

TXÍNTXE1. **txíntxe**, **txíntxia** (c). izena. Zomorro txikia. • Chinche. Sin. **tximutz**. **2. txíntxe**, **txíntxia** (c). adjektiboa. Norbait gauzak epaitzen oso zorrotza denean, <i>txintxe samarra </i>dela esan ohi da.

TXINTXÍLIKAIXO, **txintxílikaixua** (b). izena. (Oñati) "Cosa que está pendiente como la araña de la iglesia." (Izag <i>Oñ</i>).</p></div>

TXÍNTXILIZ (b). adberbioa. Zintzilik. • Colgando. *Azur aundi bat zaroian lepotik txintziliz.* Sin. **txíntxilizka**. Ik. **eségi**.

TXÍNTXILIZKA (b). adberbioa. TXINTXILIZ, DINDILISKA (LEIN.). Zintzilik. *Trolebusetik txintxilizka joaten da jentia.* Sin. **txíntxiliz**. Ik. **pitxí lora**.

TXINTXIN BEDAR

TXINTXIN BEDAR Ik. **pitxí lora**.

TXINTXÓE, **-11. txintxóe, -i, txintxóia** (a). izena. Chichón. Ik. **aundítu**. **2. txintxóe, -i, txintxóia** (a). izena. Karta-jokoa. El chinchón. *Txintxoian jokutzen dou Gabonetan.*

TXÍNTXOR, **txintxórra** (d). izena. Orzuelo. Sin. **txíldor**.

TXINTXUR Ik. **anezka-ziri, ipurtxíntxur**.

TXÍNTXURRISKA (d). TXINDURRIKA, TXINTXURRUSKA, TXINTXURRISKA, TXANDORRIKA. **1. txintxurriska** adberbioa. Hanka bakarka harri bati kuadroz kuadro bultza egitean datzan antzinako neska jolasa. Ik. **txándorrika**. **2. txintxurriska** (d). adberbioa. A la pata coja. *Karrera eingotsut txintxurriska.* Aldaera guztiak esaten zaio jolasari. Ostera, hanka bakarka ibiltze soilari *txintxurriska, normalean. la galdua. Orain, anka baten gaiñian, edo "a la pata coja" esaten da.*

TXÍO1. txío, txíua (b). izena. (Ubera) Enara. • Golondrina. *Urtero txiuak apixia eitten dabe gure ataixan.* Esaera da txioak amabirjinari begiko zamarra atera ziola eta horregatik ez direla hil behar. Beste modu askotara ere esaten zaio txori honi: **azpizuri, golondrina, kulentriña**. Ik. **beltxijoe**. **2.**

txío, txíua (d). izena. phylloscopus collybita. Mosquitero. Txori txikia. Sin. **kakátxiñ**. **3. txío, txíua** (c). izena. Piada, acción de piar. *Txiten txiuak eztozte lotan laga./ Txio ta txio dabitx apixako txorikumak.* TXÍOKA. Piando. *Txitak txioka baten ziarduen amaandik galduta.* Sin. **pío**. **4. txio-txio** (a). izena. (haur hizkera.) Txoria, haur hizkeran. Sin. **pipi**.

TXIPILI-TXAPALA (c). onomatopeia. (Oñati) "Andar en el agua. <i>Plisti plasta ibilli</i>." (Izag <i>Oñ</i>). Sin. **plisti-plásta**.

TXIPIPIPETA, txipilipetia izena. PITXILIPETA. Tximeleta. *Pitxilipeta orixa, iru egungarrengo eurixa.* (Izag Oñ). Sin. **mitxeléta, tximeléta**.

TXIPIRÓE, **-11. txipiróe, -i, txipiróia** (a). izena. Chipirón. Sin. **txibixa. txipiroia garbittu** (lagunartekoa.) Masturbatu (emakumea). *An ibili nintzonan atsaldian txipiroi garbitzen, premiña be bai gero e! (TSE Berb).* **2. txipiroe, -i, txipiroia** izena. coprinus comatus. Barbuda (perretxikua). (SB <i>Eibetno).</i>

TXIPÍTTA, txipittía (d). izena. Larruzko tira mehea. • Tira de cuero. *Idaur orri txipittia igual apurtu eitte jakon; biurrian betik joten dabela, apurtu. Orri txipittia esate jakon. Don. Batzuetan badirudi ttipitta ahoskatzen duela.* Ik. **narrutxipítta**.

TXIPRÍZTIN1. txipríztiñ, txipríztiña(k) izena. Salpicadura. *Prakak txipriztiñez beteta daukazu.* Pluralean, batik bat. ZIPRÍZTIN, -ak ere entzun daiteke, nahiz eta gutxiago.**2. txipríztiñ, txipríztiña** (c). adjektiboa. Geldi egon ezin dena, zazpikia, ipurterrea. • Persona que no puede parar, inquieta, nerviosa. *Eztost bakian laga neskatilla txipriztiñ onek.* **3. txipriztiñ, txipriztiña** adjektiboa. "Pertsona edo gauza txikia. *Orrek die mandarina txipriztiñak ekarrittuzuna.*" (Lar Antz).**4. txipriztiñ, txipriztiña** adjektiboa. "Kuttunari maitekiro deitzeko modua." (Lar <i>Antz</i>)

TXIPRIZTÍNDU (b). da-du aditza. ZIPRIZTINDDU. Zipriztinez bete. *Ixo dau mai geñera, jo ankiakin, inguruko danak txipriztinddu. Ben.*

TXIRBI, txirbixa (d). izena. TXIRPI. Arbola landara txikia, oraindik aldatu gabea. Berez etorritako arbola-landare txikia ere bai. *Landaria aundixa bada, aitz-landaria; txikixa bada, txirbixa, aitz-txirbixa, pao-txirbixa ero. Gaztaiñianak be bai, txirbixa txikixa danian, ola landaria agertuta bakarrik. Don. Txirpixa esaten dotse orri, pao-zepatza eo aitz zepatza; zepakua da, osea ke txarakua, berez etorritakua. Juantxo.*

TXIRBÍZTU XIRBIZTU, TXIBRIZTU.1. txirbíztu (d). da-du aditza. Eguzki gogorregiak landare orriak erdi lehortu, edota suaren hurbiltasunak gorputzeko ile puntak erre. • Chamuscar. *Beruak txirbiztu, sikatu itten dabenian gauzia; sikatu baiño geixao, kasik erretzeko moduko zer aura, txirbiztuta. Klem./ Atzoko euzkixak artuak ziero txirbiztuittu./ Eskuko bizarrak txirbiztu jat sutonduan.* **2. txirbiztu** (d). da aditza. Arropa lixtu, izpitu. • Deshilacharse la ropa. *Prakabarrenak eta ebaitta, txirbiztuta eukitze jittuek pa, ba oixe txirbiztu. Klem. Ik. lixtu, izpittu.*

TXÍRIBI1. txíribi, txíribixa (c). izena. Viruta. *Txiribixa ona da sua pizteko./ Len txiribi artian etortze zan frutia.* Sin. **txirlora. 2. txíribi, txíribixa** (c). izena. Madari mota bat, oso urtsua.

TXIRIGOTÉRO, txirigoterúa (d). adjektiboa. Bromazalea. *Oso txirigoterua zuan, bromosua.*

TXIRÍKILL, txirikílla (c). izena. TXIKILLÉROI, TXIRIKILLA, -IE (LEIN.). Lehen Garizuman neska-mutilek txirikilan jokatu ohi zuten. Txirikila, berez, dozena bat zmko makilatxo bat da alde bietatik zorroztua, kalderoiaz jo behar izaten dena. • La toña, juego de niños que se practicaba durante la Cuaresma. *Txirikilla sartu jata begittik.* TXIKILL Ik. **kaldéroi. txirikillán** (c). Txirikil jolasa praktikatzen. *Txirikillan pasau giñuan atsalde guztia./ Jokatukou txirikillan?/ Neguan tortoloska ta txikilleronka, da sokasaltoka. Klem. Sin. galderonka (Berg.) Ik. kaldéroi. txirikillán modúan bota* (d). esapidea. Norbait edo zerbait jo eta aidean bota. *Arek arrapatzen baau muturreko batekin txirikillan moduan botako au./ Kotxiak zuen txakurra jo juan da txirikillan moduan jaurti juan.*

TXIRIKÓRDA, txirikordía (c). izena. Mahats-korda, gerezi-korda, ile-trentza kiribilotsua, etab. • Racimo de uva, de cerezas, trenza de pelo ensortijado, ristra de ajos, etc. *Orrek dauzka txirikordak maats orrek. Maaskordak, ero beste fruta erozer gauzak pe bai; keixak eta be ba iru-lau ero dauzkanian: orrek dauzka txirikordak. Klem./ Berakatz txirikorda galantak zeren ganbaran txintxiliz./ Zelako txirikorda polittak dauzkazun illian.*

TXIRIKÓRDAU (d). du aditza. Txirikordak egin. • Hacer ristras, trenzas y cosas por el estilo. *Zeiñek txirikordau dotsu illiok?* Ik. **txirikórda.**

TXIRÍNBOLO, txirínbolua (c). izena. Se le llamaba así en mi casa a un aparato de regar que conectado a la goma daba vueltas incesantemente. *Porru-saillian txirinbolua ipiñi biako da./ Txirinboluak eztau bueltaik emoten eta egundoko potzua ein ddau. Traste edo tramankulu*

konplikatu samarrei deitzen die zenbaitek.

TXÍRIPA, **txíripia** (b). izena. Chiripa, casualidad. *Txiripaz be ezin ddau golik sartu./ Txiripa bateaittik kinielia azertauko baziñu, ze ingo ziñuke.*

TXIRIXO, **txirixua** izena. (Eibar) philloscopus sp.. Mosquitero. Ik. **paseko txirixo**.

TXIRKI-MIRKI izena. (Antzuola)**1. txirki-mirki, txirki-mirkixak** izena. (Antzuola) "Traste txikiak, baliorik gabekoak, merezi ez dutenak. *Ezer eztot erosi, txirki-mirkixa besteik etzeuan.*" (Lar Antz). **2. txirki-mirki, txirki-mirkixak** izena. "Chuchería. *Hainbeste txirki-mirki ezizu jan./ Oingo umiak zenbat txirki-mirki jaten daben!*" (Lar Antz).

TXIRKORA, **txirkoria** izena. (Leintz) TXISKORA (OÑ., LEIN.). Elur pikor gogor eta hotza.

TXÍRLA, **txírlia** (b). izena. Almeja. *Arroza txirlekin jan giñuan.* Lehenago badirudi txikiei zein handiei "txirla" esaten zitzaiela. Orain, aspalditxotik, jende gehienak handiei *álmeja deitzen die, eta txikiei almeja edo txirla.*

TXÍRLO, **txírlua** (c). izena. Bola-jokoan, jo beharreko makila bakoitza. • Birlo, pieza de madera que hay que derribar en le juego de bolos. *Emengo bolalekutan iru txirlo jartzen die zutik boliakin botatzeko.*

TXIRLORA, **txirloria** izena. Viruta. Sin. **txíribi**.

TXIRPI Ik. **txirbi**.

TXIRRIKA, **txirrikia** (d). izena. Polea, polearen errubera. *Len ikusten dozu zelan zeukan txirrikia goixan, da kate bat zeukan baldiakin, da aura botatzen zan bera, da etaatzen zan ura. Jul.*

TXÍRRIKI-TXÁRRAKA (c). adberbioa. TXÁRRAKA-TXÁRRAKA. Nahikoa lanekin, apurka-apurka; baina hala ere ibili, egin..." (Andar, hacer...) poquito a poco, con cierta dificultad. *Edade aundixa be badaukau ta... emen gabitz txirriki-txarraka./ Arek txirriki-txarraka azkenian titulua etara ingo jok.* Zaharrez, batik bat. Ik. **txirri-txirri**.

TXÍRRIN1. txirriñ, txirriña (c). izena. Timbre. *Gaur despertadoriak eztost txirriñik jo.* Ate-kanpokoari **tinbre** gehiago txirriñ baino. **2. txirriñ, txirriña** (c). izena. (haur hizkera.) Zila.

TXIRRÍNBOLA, **txirrínbolia** (d). izena. TXIRRINDOLA. Egurrezko edo burdinazko uztai, lehengo umeen jostailua. • Aro de madera o metal con el que jugaban los niños. *Txirrinbolia, banasta-esparka batekin einddako aro bat pe, txirrinbolía. Aro batzuk izete zittuan burdiñazkuak eta gero ola zer batekin ibiltzekuak, alanbre bat okertuta. Klem. Zenbaitek txirrinka edo txirringa ere deitzen dio honi, burdinazkoari, batik bat. Antzuolan txirringeleta.*

TXIRRÍNBOLETAKA (c). adberbioa. TXIRRINBOLETAN. Zilipurdika. Ik. **txilípurdika**.

TXIRRINDOLA izena. (Eibar) Antzina, bizikletaren gurpila. Ik. **txirrínbola. txirringa** izena. (Eibar) "Branle, baile en corro, sin música, típico de Cuaresma y Semana Santa. • Garizuman dantzian ordezkua. Neska-mutillak eskuak emon eta biribil bat egitten zebeñ bat barruan zeguala." (SB Eibetno)

TXIRRINDULA, txirrindulia izena. (Eibar) Bicicleta.

TXIRRINGA izena. (Eibar) "Branle, baile en corro, sin música, típico de Cuaresma y Semana Santa.

• Garizuman dantzian ordezkua. Neska-mutillak eskuak emon eta biribil bat egitten zebe bat barruan zeguala." (SB Eibetno)

TXIRRINGELETA lk. **txirrínbola**.

TXIRRINKA TXIRRINGA.1. **txirrinka, txirrinkía** (d). izena. Hala deitzen zaio gurdi zorrotzaren gurpil-uztauari, polea-gurpilari eta gisa honetako beste zenbait gauzakiri. lk. **burtxirrinka. 2.**

txirrinka, txirrinkía (d). izena. Zurezko edo burdinazko uztaua, haurrak jostailutzat erabiltzen zutena. *Txirrinkiakín kamiñuan ziar ibiltze giñan, makilla batekin manejauta.* Sin. **txirrínbola. 3.**

txirrinka, txirrinkía (d). izena. (Leintz) Rueda. Adineko zenbaitek gurpilaren adiera guztietan darabil hitza.

TXIRRÍPITIÑ, txirrípitiña (d). adjektiboa. "Un niño de mal contentar y mal humor. <i>Txirripitin
xaok: </i>está disgustado." (Izag Oñ).

TXIRRÍSKILLA, txirriskillia (c). izena. TXIRRISTILLA. serinus serinus. Txori kantari txikia. Serín *Kantari ona da txirriskillia.* Txirriskilla eta kardutxoria berdin samarrak, baina bi klase direla dio Don.k: *Kardutxorixa beti karduan da txirriskillia beti azixan.*

TXIRRÍSTA, txirristía (c). izena. Umeak irristaka ibiltzeko leku labana, eskilara baten baranda, adibidez. • Lugar donde los niños juegan a deslizarse. *Uberako elizako eskilaretan zan gure mutikotako txirristía.* TXIRRISTAKA edo TXIRRISTAN ibilLi. Txirristan jolasean ibili. Oroitzen naiz txikitan gonbidautzara Eibarrera joaten ginenean han PARRA-PARRAN ibiltzen ginela, Maria Angela kaleko eskilaretan.**txirristaka edo txirristan ibilli** Txirristaka edo TXIRRISTAN ibilLi. Txirristan jolasean ibili. Oroitzen naiz txikitan gonbidautzara Eibarrera joaten ginenean han parra-párran ibiltzen ginela, Maria Angela kaleko eskilaretan.

TXIRRISTARA, txirristaria (c). izena. (Oñati) "Isurkin apur bat. • Lo que se saca en un tirón al ordeñar." (Izag <i>Oñ</i>).

TXIRRIST EIÑ lk. **írrist eiñ**.

TXIRRISTIK lk. **txist**.

TXIRRÍSTU, txirristúa (c). izena. XIRRISTU, IRRISTO (OÑ.), ZIRRIZTU (LEIN.). Zirriztura, zirrikitua. • Rendija. *Ganbarara txirristuetatik demaseko aizia sartze zan./ Dana txirristua da etxe aura.* Sin. **txirristúra. txirristúan laga atía edo béntania** (c). esapidea. Dejar la puerta ola ventana entreabieta. *Bentania txirristuan lagaizu, bero eitten dau ta.*

TXIRRISTÚRA, txirristuría (d). izena. Zirriztua. Haizea edo zerbait pasa daitekeen bitarte estua. Saietera eta antzeko leihoxkez esan ohi da, batik bat. • Resquicio. Se dice sobre todo de las saeteras o de cualquier ventana diminuta y alargada. *Etxiak eta be, lenaoko zerak alako txirristura*

batzuk eukitze jittuen, bentanak pez, olako saietara ero..., txirristura bat. Klem./ Basarrixak bero eukitzia ezta erreza dauken beste txirristurakin. Sin. **txirrístu**. lk. **kanal**.

TXIRRITOLA, **txirritolie** izena. (Leintz) Kiribildutako argizari mehea. lk. **argízai**.

TXIRRI-TXÍRRI1. **txirri-txirri** (b). onomatopeia. Poliki-poliki. *Arek, txirri-txirri, lan ugari eitten dau./ Banoia txiri-txiri, txara txikira txoritxara. (AAG Eibes)/ An ibiltzen da txirri-txirri, txarra-txarra.* lk.

txírriki-txárraka. **2. txirri-txirri** onomatopeia. "Ardatzen, burpillen edo goruen zaratia, esate baterako.

Txirri-txirri, badabil gure ama goruetan." (SB Eibetno).

TXÍRRIXO, **txírrixua** (b). izena. TXÍRRIXUAN LAGA. Chorro de líquido. *Gure itturrixak udan txirrixo txikixa dauka./ Egundoko odol-txirrixua botaiaz eruan zeben ospitalera.* TXÍRRIXUAN LAGA. Uraren txorroa zabalik laga. *Txorrua txirrixuan laga dozu.*

TXÍRTA1. **txirta, txirtía** (d). izena. emberiza citrinella. Ormatxoriaren tankerako txoria. Escribano cerillo. *Txirtía. Oso gutxi ikusten dok emen, ota puntetan da, illuna papar gorrixakin. Don.* **2. txirta,**

txirtía (d). izena. Harri koxkor xehea. • Gravilla.**3. txírta, txírtia** (d). izena. (Oñati) Iruri xe-xehea. • "El pedacito de carbón que pasa la criba." (Izag <i>Oñ

</i>

TXIRTXIL BEDAR lk. **kanpai bédar**.

TXÍRTXILL, **txirtxílla** (a). izena. Grillo.

TXÍSKERO, **txískerua** (a). Chisquero.

TXISKERO-ARRI, **txiskero-arrixa** (c). Piedra de chisquero.

TXISKORA lk. **txirkora**.

TXÍSPA1. **txísipa, txíspia** (b). izena. Chispa. Suarenari beti txinparta.**2. txispa, txispia** izena. (Eibar) "Armería. Llave o mecanismo que provoca la ignición. *Atxa anaiak ziran onenak Ermun txispia ataratzen.* Sin. **sugiltz**.

TXISPAGIÑ, **txispagiña** izena. (Eibar) Txispak (mekanismoa) egiten dituen.

TXÍSPAS (c). izen propioa. Elektrizista edo sasielektrizistei eman izan zaien ezizena. *Txispas eta Joxeantoniokin afaldu neban.*

TXISPAU (c). aditza. Erdi mozkortu. *Txispauta etorri zien danak.*

TXIST (c). interjekzioa. Atentzio deitzeko erabiltzen den aho-hotsa. • Sonido inarticulado que se usa para llamar discretamente la atención. *Txist! Badaukazu batekoik? (kartetan).* lk. **txistara. txistik (edo txirristik) ez eiñ** esapidea. Txintik ez egin. • No decir ni pío. *Afari guztian eztau txistik etara./ Neska kontuik eztau txistik pe esaten./ Txistik etara barik jan dau zopia./ Umiak errespetua...*

txirristik pe ez e. Ben.

TXISTÁRA TXISTADA. **1. txistara, txistaría** (d). izena. Txistada; "txist" edo antzeko zerbait ahoskatuz eginiko deia. • Llamamiento con un sonido inarticulado, "tz", "ps", o similar. *Atzian txistaria entzun dot, zeñ eze zan, eta bera./ Pasatzerakuan txistaria ein ddotsat baiña ezta akordau. txistaria eiñ, batik bat* Txistaria eiñ, batik bat.

2. txistara, txistaría (b). izena. (haur hizkera.) Indizioa. • Inyección en lenguaje infantil. *Medikuak txistara txiki bat emun biotsu, baiña txiki-txikixa.* TXISTARIA EMON edo TXIST EGIN. Ik. **indiziño**.

TXISTE, txistia (a). izena. Chiste.

TXÍST EIÑ (b). dio aditza. (haur hizkera.) Indizioa sartu. *Txist eindda pasauko jatzu pupua./ Txist ein biotsut, baiña eztsut miñik emongo.* Ik. **txistara**.

TXISTIK Ik. **txist**.

TXÍSTOR, txistórra (a). izena. Chistorra.

TXISTÓSO, -A, txistosúa, -ía (b). adjektiboa. -A. Chistoso, -a.

1. TXÍSTU1. txístu, txístua (a). izena. Musika tresna. • Chistu. *Dena dela "danboliñ-txistu" deitzen dio adineko askok ohizko txistuari eta "txistu" flautari. Ondo jotzen dau txistua Iñakik. Kikio eztok sekula ikusi? Txistua aretxek jote jok. Txistua dok, eztok danbolin-txistua, danbolin-txistua instrumento diferentia dok eta. Don.* **2. txístu, txístua** (b). izena. Silbido. *Etxian banago joidazu txistua.* Ik. **fio. txístua jo** (b). du aditza. Silvar. *Zeintzuk ibilli die bart txistu-joka?/ Trenak txistua jotzen dau tunelian sartzeko.* Sin. **fíua jo. txístuka** (c). adberbioa. Txistuarekin dei egiten. *Txistuka txistuakin diar itten dabenian, "baiña “él venía silbando”," ba txistutan zetorren. Klem. txístutan* (c). adberbioa. Txistu-joka. • Silbando. *Txistutan zetorren zuen mutikua./ Ixo, zein dabill or txistutan?/ Zetan zabitz zu txistu-joka?* Ik. **txístuka**. **3. txístu, txístua** (b). izena. Pitilina, zakila. • Pene. *Zetan abill i txistua bistan?* Sin. **pitíliñ, txilíbittu**.

2. TXÍSTU, txistúa (a). izena. Saliva. *Ez bota txistuik.* Erreparatu homonimoaren desberdin duela azentua. Ik. **pasáu. txistúa bota** (a). du aditza. Escupir.

TXISTULÁRI, txistularíxa (a). izena. Chistulari.

TXÍTA, txitía (b). izena. TXITXA. Polluelo, pollita. *Txitak erosittue basarrixan. Eibarko txitia Bergako oillua* (c). esaera. Eibarren gauza gutxi asko dela, alegia. Farol fama apur bat dute Bergaran. **txitiak beste jan** esapidea. Oso gutxi jan.

TXITÁLDI, txitaldíxa (c). izena. Oilolokak ateratzen duen txita talde bakoitza. • Pollada. *Oillolokiak etaratzen daben txitaldixa; apixaldi bat. Klem./ Aurreko txitaldixan amar oillasko eta iru oillanda izan zittuan.* Ik. **ápixaldi, txitátalde**.

TXITÁTALDE, txitataldía (d). izena. Pollada. *Au da irugarren txitataldia azten dabena onek. Don.* Taldea adierazteko gehiago tanda edo txitaldia baino. Ik. **txitáldi, txitátanda**.

TXITÁTANDA, txitátandia (d). izena. Txitaldia. • Pollada. Sin. **txitáldi**.

TXÍTOKA (c). adberbioa. Eskolatik etxerakoan egiten zen jolasa, jolasa baino gehiago ia burruka zena. Ikutzen zenion bati eta "txito" esan, eta aintxintxika alde. Besteak atzetik jarraitzen zizun harrapatu eta txito egiteko. Azkenengo egiten zuenak "irabazten" zuen. Inoiz orduak pasatzen genituen txitoka, desohore handia baitzen beste batek txito eginda etxeratzea. *Txitoka kriston ekiñaldixak eitte giñuzen eskolatik etxerakuan.* Antzuolan PUTXUNKA ere esaten zaio jolas honi.

txíto eiñ (c). Goian azaltzen den ekintza egin. (Ik. txitoka) *Urrupaingo Felipek txito ein ddosta.* Antzuolan PUTXUN EI

TXITXA Ik. **txíta**.

TXITXALAPUR, txitxalapurrak (c). izena. (Eibar, Soraluze) Hegazti harraparia orokorrean. Sarasuak dio hegazti harrapari guztiendako erabiltzen dela, baina batik bat <i>arraipardoa</i> (Buteo buteo) izendatzeko. Ik. **míru, árrai**.

TXITXÁRA, txitxaría (a). izena. Lombriz. *Bi klase egoten dittuk, bata lurtxitxaria, gorrixaua; beste bat egoten dok satsetan, ori izeten dok zurikia. Tamaiñu aundixena gorrixa. Don.* Normalean txitxara soilik deitzen zaie, baina adineko baserritarrek bereizten dituzte lurtxitxarak eta sats-txitxarak.

TXITXÁARRA, txitxarría (d). izena. Bergaran, zaharrentzat, urdai edo hirugiarre prejitua. Uberan hirugiarrea, prejitua zein gabea. • Tocineta o tocino frito. En Ubera tocineta en general. *Irugiarría, baiña urdaixa be prejiduta bajak, erreta, txitxarría. Klem./ Ezta txarra txitxarría ogi bittartian.* Galdu samartua, Uberatik kanpo. Ubera mendebalean ez da irugiarre hitza erabiltzen, txitxarra esaten da. Ik. **irúgiarre**.

TXÍTXXARRO, txítxxarrua (a). izena. Chicharro.

TXITXERDI, txitxerdixe izena. (Aramaio) "Hitz-erdi? *Txitxerdi bat esatie naikue ra ekitteko ulie artzen.*" (Orm Aram).

TXITXERROPILL, txitxerropille (Aramaio) "Txitxarragaz eta opilagaz egindako opila." (Orm <i>Aram).</i>

TXITXI1. txitxi, txitxía (a). izena. (haur hizkera.) Haragia. • Carne. *Ale ume, jan txitxía.* Artikuluaz ia beti. **2. txitxi** (c). izena. (haur hizkera.) Txakurra. Nagusiek ere erabili ohi dute txakurrari deitzeko. • Perro (inf.). Usado también por los mayores para dirigirse al perro. *Unai, guazen txitxi ikustera./ Etorri ona txitxi.* Mugagabeen beti. Sin. **tóto, ua-uau. txítxi baiño asarriáo** (c). esapidea. Oso haserre. • Muy enfadado. *Txitxi baiño asarriáo jarri jatan poliza bat falta jatalako./ Realak galtzen dabengan txitxi baiño asarriáo egoten da.* **txitxo baiño dotoriago** (c). esapidea. (Oñati) Apain-apain eta harro samar doanari esaten zaio. *Fermin kalian beera etorren, txitxo baiño dotoriag.* **3. txítxi, txítxixa** (d). izena. anthus pratensis, anthus trivialis. Txori txiki bat. Bisbita Sin. **bedartxóri, larratxori**.

TXITXÍBURDUNTZI EIÑ (c). aditza. Makila zorroztu eta puntan txorixoa edo sartu sugarretan erretzeko. Burdinazkoaz egiten bada ere bai. • Operación que consiste en afilar un palo y ensartar en él por ejemplo un chorizo, para asarlo al fuego. También con asador de hierro. *Joan zan Erregenetan txorixo ederra jan giñuan Pol-poleko itturrixan txitxiburduntzi eindda.* Basoan egin ohi da jeneralean. **txitxiburduntzi eguna** izen propioa. Elgetan, adibidez, urtean behin kalean edo basoan egiten den jaia, burduntzian erretako txorixo eta enparauak janez ospatzen dena. Etim.: «txitxi» (okela) + «burduntzi». Ik. **búrduntzi**.

TXÍTIXINPE, **txítixinpia** (d). izena. Teilatu hegalaren azpia. • El espacio cubierto por el alero del tejado. *Txitxinpia da etxiak... bolautik kanpora gelditzen dana. Don.*

TXITXIÑ, **txitxiña** (c). izena. Kanpoan teilatuko urak, hodian zehar etorri ondoren, jausten diren lekua. *Amen Artizen “ittuiña”; gurian [ldurixon] txitxiña esate jakuan. Klem./ Ittogiña da barrura eitten dana, eta txitxina bere bie dan lekura doiana. Don.* Bereizketa hau egiten ez dutenek jeneralean **ittuiñ** deitu ohi diote bai kanpokoari eta bai barrukoari. Ik. **ittúíñ**, **tantán**.

TXITXIPOTXO EIÑ esapidea. "Tx-dun hitzak asko esan. Orrek txitxipotxo asko itten dau: najotxen, gontxen... Guk eztou ola itten." (*Lar Antz*). Osintxun dago txitxipotxorako joera.

TXITXI-POTXUETAN JARDUN esapidea. TXUTXU-PUTXUETAN JARDUN. "Txutxumutxuka, marmarka jardun. *Ixileko txitxi-potxuetan dira bixak gaur egun guztian.*

TXÍXA, **txíxa** (a). du izena. Orina. *Txixa analizatzeko esan dost medikuak.* TXIXA, mugagabe zein mugatu. NON kasuan TXIXÍAN.

TXIXA-ARRÁRA, **txixa-arraría** (c). izena. TXIXA-ARRASTÁRA, TXIXA-ZARRASTÁRA. Meada. *Txixa-arrara majua ein jotsan arboliai.*

TXIXA BÉDAR, **txixa bedárra** (d). izena. . Verbascum thapsum.. Gordolobo. Bi urtean hazten den landare hau oso handia egiten da. Lorea ere oso handia du, artaburu formakoa, horia. Lehortzen denean hauts handia izaten du. Lekuko batek TE, téia, deitzen dio. Beste batek beste belar klase bati esaten dio, baina ez dakigu bere izen zientifikoa.

TXIXÁ-ÉRREKA1. **txixá-érreka**, **txixá-érrekia** (b). izena. Txixa-arrasto handia. *Txixa-errekaz beteta zeuan kalía.* **2. txixá-érreka**, **txixá-érrekia** (b). izena. (adierazkorra.) Txixa-arrara. *Azelakotxe txixa-errekia bota doten.*

TXIXAGÚRA, **txixaguría** (a). izena. Ganas de orinar. *Txixaguriak nago goiz guztia.* TXIXAGURIAK EGON. *Txixaguriak nago goiz guztia.*

TXIXAÍÑAN (b). adberbioa. Txixaginan, txixa egiten. • Meando. *Txixaiñan arrapau najok aguazillak.* Eta TXIXAI Ik. **kakaíñan**.

TXIXAIÑÉRO, **txixaiñerúa** (a). adjektiboa. (haur hizkera.) Txixatia (haur.). • Meón, -a. *Andereño, txitxaiñero esan dost Gorkak.* Burla edo deiki bezala, batik bat. Ik. **kakaiñero**, **txixáti**.

TXIXÁ-PUXIKA, **txixá-púxikia** (c). izena. PUXIKA. Vejiga. PUXIKA soilik ere bai.

TXIXÁTI, **txixátixa** (c). adjektiboa. Meón, -a. Ik. **txixaiñero**.

TXIXÁTOKI, **txixátokixa** (c). izena. Txiza egiteko lekua.

TXÓKANTE, txókantia (c). adjektiboa. Chocante, raro. *Gaur egunian ezta txokantia erozein baserritarrek ingelesez jakittia./ Ori baiño gauza txokantiauak ikusittut.*

TXÓKATZEKO, txókatzekua (b). izenlaguna. Harritzekoa, harrigarria. • Anormal, extraño. *Txokatzekua da Mikel kafia artzera ez etortzia./ Ezta txokatzekua etxe aretatik alde ein nai izatia.*

TXOKÁU (b). zaio aditza. Harritu. Extrañar. *Etxata bape txokatzen ainbeste umekin zoratzia.*
Sin. **estráíñau, txokáuta egon** (b). esapidea. Harrituta egon. *Txokauta nago zela eztaben diar eitten.*

TXÓKE, txókia (a). izena. Choque.

txóke eiñ (a). aditza. Chocar. *Bi trenek txoke ein ddabe.* Sin. **tope eiñ.**

TXOKIATZAILLE, txokiatzailila izena. (Eibar) "Armerixako ofiziuetako bat. Eskopetian katua edo txakurra puntuan ipintzia zan bere zeregiña." (SB Eibetno).

TXÓKO1. txoko, txokúa (b). izena. Frontoian, ezkerreko pareta ingurua. *Dejada ederrak eittu txokuan.* Ik. **zóko**. **2. txoko, txokúa** (c). izena. Bazterra. • Rincón. *Txoko baten botata zeren traste guztiak.* **3. txoko, txokúa** (c). izena. Sorlekua, bizilekua, lanlekua, testuinguruaren arabera. *Bakoitzak bere txokua maitte dau.*

TXOKÓLATE1. txokóláte, txokólatia (a). izena. Chocolate. EITTEKO TXOKOLATIA esaten zaio urtuta hartzen denari. **Txokolatía pirri pirri, artuko neuke baneuka, eztaukat eta ezin artu...** esaera. Honela hasten zen gure umetako haur-jolas baten erretolika. **2. txokóláte, txokólatia** (c). izena. Lokatza (irudizkoa). *Zuen etxe aurrian jak txokolatía.* **3. txokóláte, txokólatia** (c). izena. Nahaste-borrastea. *Oinddio gure taillerrian urtengo jok txokolatía.* TXOKOLATIA(edo MOROKILLA) urten, gehienbat.

TXOKOLATERA, txokolateria (c). izena. Txokolatea egiteko ontzi kirtenduna.

TXOKOR-BATZE Ik. **kaskára-bátze.**

TXOLET, txoléta (b). izena. (Ubera) Antosina. Cazoleta de metal para beber agua. Sin. **antósiñ.**

TXÓLIÑ, txolíña (c). adjektiboa. TXALIN (ARAM.). Pertsona berritxu eta kaskariña. • Persona charlatana y casquivana. *Elgetan bada bat “Txoliña” gaitzizena daukana.* Emakumeez, batik bat. Sin. **burúariñ, kaskáriñ.**

TXOLO, txólúa (d). adjektiboa. (Oñati) "Hombre ligero, sin sustancia." (Izag <i>Oñ</i>).

TXOMIN BEDAR Ik. **barrábas bedar.**

TXONBOLO Ik. **txándorrika, txinbili-txonbolua.**

TXONDOR Ik. **txendor.**

TXONKOLO Ik. **txánkulu.**

TXONTA Ik. **negúta.**

TXONTA ERREAL Ik. motatxóri.

TXÓONPIO (c). izen propioa. TXORONPIO. Txoronpio edo. Ipuin zaharren bateko pertsonaia, dirudienez. Baten batek gauza "zelebreren" bat egiten badu -burua zeroan moztu, adibidez- zera esan ohi da: *Orrek pe Txoonpiona ein jok. Txoonpiok pe bere gustua ein juan. Bietza ipurdixan sartu eta txuputzen ei jemuan.* Beraz, TXOONPIONA EI Ik. **Fraixkomilíen**.

TXÓPO, txopúa (b). izena. . populus nigra. Makala. • Chopo. Ibai ondoko lurretan asko landatzen den arbola luzea. Hosto ahul hagindunak eta lore txiki-txikiak ditu. Mintza sendagai bezala erabiltzen da, bai almorranak ixteko, bai umea izandakoan esne jariora mozteko. Sin. **makal**. Ik. **txopo-karóliñ**.

TXÓPOI, txópoixa (c). izena. Txopodia, makal-saila. • Chopera. *Bolintxo txopoixan makiña bat jente egote zuan sasoe baten atsalde pasa.*

TXOPO-KARÓLIÑ, txopo-karolíña (d). izena. populus alba? populus canadensis?. Makal mota bat. Populus canadensis, ote? Edo populus alba? (álamo). Etim.: "chopo de Carolina" (EEBB) dirudi. Ik. **txópo**.

TXOPO-PERRETXIKO izena. (Eibar) agrocyebe aegerita. Seta de chopo. (SB <i>Eibetno).</i>

TXOPÓ-PLATANO, txopó-plátanua (c). izena. . (Osintxu) Plátano de sombra. Sin. **plátano**.

TXÓRI1. txorí, txoríxa (a). izena. Pájaro. TXORI-TXIKIak esaten zaie tamainu txikikoei. Ik. **txínbo**.

txorietxe geratu (b). esapidea. (Oñati) "Quedar vacío y abandonado un caserío." (Izag Oñ).

txorittara juan esapidea. "Txori billa urten, baiña gehixenetan bizirik harrapatzeko. Esate baterako likiaz kardantxilluak, tariñak edo pardilluak harrapatzera." (SB Eibetno). **txorixák baiño búru**

gutxíao éuki (c). esapidea. Zentzun gutxi euki. *Ori eingo ziñuan baiña! Txorixak paiño buru gutxiao daukazu.* **txorixán modúan ibílli** (b). esapidea. Ondo, sasoiko ibili. Makalaldi baten ondoren esan

ohi da. *Operau zebenetik txorixan moduan dabill./ Aspaldixan txorixan moduan zebillen, baiña gripiak egundoko pasaria emon jao.* **2. txori, txoríxa** (d). izena. Ate zaharrek biratzeko beheko

aldean izaten duten sistema. Batzuek TXORI deitzen diote azpiko zulotxoari: *Atia txorittik etarata sartu zan lapurra./ Ate ori txorixan sartu barik dago bia dan moduan.* Lekuko batek dioskunez, atearak biratzeko azpian duen ziri metalikoa da *txorixa, eta goian zein behean harrian dagoen zulotxoa opilla edo txori-opilla. Gero opilla eukitzen dau orrek or, da gero behetik gora sartuta burdiña bat; orri esaten jako txorixa. Jul. Goiko aldean, ardatza biltzen duen uhala eukitzen du hormari itsatsita. Galtzear dauden hitzak dira.* Sin. **ate-txóri**. Ik. **opill. txorittik urtenda egon** (c). esapidea. Burua

galduta egon. *Aspaldixan bastante txorittik urtenda ei dago Joxepa.* **3. txori, txoríxa** (d). izena.

Hezurren arteko juntura. *Ijeria esate jako, ijeria, txorixa daukana, txorixa esate jotsau guk, borobill orri, azur orri. Ijeriak ikara ein jao, ijeratik ikara eindda dao. Don.* **4. txorí, txoríxa** (c). izena.

Neskatilei ilean egin ohi zaien moinotxoa, ile-buztantxoa, etab. • Moñito u otro aderezo en el pelo de las niñas. *Amandriak ein ddotsu txoritxo politt ori?* **5. txori, txoríxa** (c). izena. Zakila. • Pene. *I, itxi eike bragetia, txorixak iges eingosk eta./ Zetan zabitz zu txorixa bistan.*

TXORI-KÉIXA, txori-keixía (c). izena. . Txertatu gabeko gerezi arbola. • Cerezo bravío. *Keixa-ale txikixa emuten dau txori-keixiak.* Sin. **keixa makatz**.

TXORÍ-ÁPIXA, txorí-ápíxia (a). izena. Nido de pájaro. *Txori-apixa billa makiña bat einddakuak ga mutikotan.* **txorí ápíxia ikasi** (d). esapidea. Txori-habia aurkitu. *Goazen txori-apixak ikastera./ Gaur*

bi txori-apixa ikasittut.

TXORÍBURU, **txoriburua** (b). adjektiboa. Buruarina. • Casquivano, -a. *Beti izan da txoriburu samarra.*

TXORIETXE lk. **txóri**.

TXORI-KÁKA, **txori-káka** (a). izena. Excremento de pájaro. *Txori-kakaz beteta dago teillatua.*
txori-káka ez izan (c). esapidea. Inportantea izan. Broma abarrean edo ironiaz esan ohi da. *—Atzo telebisiñuan agertu itzan. —Ze uste dok pa, gu txori-kaka gala, ala?/ Ez pentsau ori bere ustez txori-kaka danik.* Sin. **azián bárrenengo ostrúa ez izan.**

TXORI-KÁRDU, **txori kardúa** (c). izena. . senecio vulgaris. Hierba cana, cardo enano. lk. **zorna bédar**.

TXORI-MÁATS, **txori-maátsa** (c). izena. vitis vinifera. Berez sortzen den mahats txertatu gabea. • Uva silvestre. *Sasi-maatsa? Txori-maatsa; mentau bareko maats txikixa. Klem.* Lehengo mutikoen **basozigarruak**.

TXORÍMALO1. **txorímalo**, **txorímalua** (b). izena. Espantapájaros. *Txorimaluan galtzarpian apixia ein ddabe txorixak.* **2. txorímalo**, **txorímalua** (a). izena. (Oñati) Herriko jaietan zerri-puxika batekin haurrak jotzen ibili ohi den buruhandia. Cabezudo *Sasue batian* Oñatiko umeeek ondorengo hau kantatzen dute txorimaloak xaxatzeko: «Txorímalo, katamalo, tirikititi, taukiri, zeñiri, txorimaluari!». **3. txorímalo**, **txorímalua** (d). izena. "Máscara de carnaval." (Izag <i>Oñ</i>). **4. txorímalo**, **txorímalua** (b). adjektiboa. Bobo. *Abogaua izan arren txorímalua galanta./ Ixilik egon ari txorímaluoi alakuoi.*

TXORI-OPIL lk. **opill**, **txori**.

TXORÍPITO, **txorípitua** (c). adjektiboa. TOROPITTO, TXOROPITO. Kaskarina, txorimaloa, tontoarroa. • Bobo, casquivano. *Buru gutxi eta arro samarra danai esaten jako txoripitua.*

TXORI-SÁGAR, **txori sagárra** (d). izena. Baso-sagarra, txoriek jan ohi dutena. • Manzano silvestre.

TXORÍ-TRÁNPA, **txorí-tránpia** (c). izena. Cepo para pájaros. lk. **zépo**.

TXORI-TXIMILLO lk. **okán txímillo**.

TXORIXERO lk. **pipar-txorixéro**.

TXÓRIXO, **txórixua** (a). izena. Chorizo.

TXOROKIL, **txorokilla** izena. (Eibar) "Garandutako artaburua.
Txorokillekin su aundixaua egin genduan soluan. Sin. **artákaskara**.

TXORONPIO lk. **Txóonpio**.

TXÓRRO1. **txórro**, **txórrua** (a). izena. Grifo. *Txorrua zabalik laga dozu.* **2. txórro**, **txórrua** (b).

izena. Ur-emana. • Chorro, cantidad de agua que emana por ej. de un grifo o un caño. *Egundoko txorrua dauka Lezango itturrixak.*

TXORROKI, **txorrokixe** izena. (Leintz) Arte-orria, neguan beste jakirik ez zenean ardiei ematen zitzaiena. Ik. **orróillo**.

TXORRÓMORROKA (a). Haur jolas ezaguna. *Bixkarreko galantak artzen die txorromorroka. Txorro, morro, piko, tallo (edo kallo), ké esaten da kontatzerakoan. AMA du izena ilararen aurrean zutik dagoenak.*

TXORROSTÁRA1. **txorrostara**, **txorrostaría** (c). izena. Chorrito de líquido, de bebida, generalmente. *Kafia pattar txorrostara batekin gustatzen jat.* **2. txorrostara**, **txorrostaría** (c). izena. Txori-txioa. • Gorjeo de pájaro. *Zozo txorrostarak entzun jittuat sagastixan.*

TXORROTX Ik. **zorrotz**.

TXORTA1. **txorta**, **txortía** (c). izena. Narruta, narrutan egitea. *Ari be gustatzen jakok pa txortia.* Ondorengo formetan ia beti. **txórtan eiñ** (b). du aditza. Larrutan egin. • Hacer el amor, follar. *Gaur enajoiak etxera txortan ein barik.* Azen.: txortán ere bai. Sin. **narrútan eiñ**, **txortía jo**, **narrúa jo**, **jo**. **txortía emon** (d). dio aditza. (lagunartekoa.) Emakumeak gizonari larrutan "utzi" edo. Harkoia oso. *Kriston morreua bai, baina itxuria etxotsan txortia emon./ Ik segi or; orrek txortia emuten bosk ez aiz makala.* Ik. **txortía jo**. **txortía jo** (b). dio-du aditza. Larrua jo. *Behiñ an dagon ari jo najotsan txortia.* Basto samar jotzen du askoren belarrira. Sin. **narrútan eiñ**, **txórtan eiñ**, **narrúa jo**, **jo**. **2. txorta**, **txortía** (b). Ik. **sórta**.

TXORTABAR1. **txortabar**, **txortabarra** (c). izena. (Eibar) Abar-sorta.

Sin. **abar-sórta**. **2. txortabar**, **txortabarra** (d). (Eibar) Antzinako tabakorri klase bat. *Oillo-saldia edo dalako orrek eztarri guztia pikatzen jok, orrek aintziñako txortabarrak baiño txarraguak dittuk. (SM Zirik).*

TXORTALÁRI, **txortalaríxa** (c). izena. Narru-jolea. • Follador,-a. *Ori txortalari fiña izangok.* Sin. **narru-jotéille**, **narrutalári**.

TXORTÁLDI, **txortaldíxa** (b). izena. Narruta saioa. • Sesión de hacer el amor. *Bazkalostian txortaldi bat pe eztok txarra izeten./ Bi gaztek, geure begixen aurrian, arek ein juen txortaldixa.* Sin. **narrutáldi**.

TXORTXOR1. **txortxor** (c). Berriketa hotsaren onom. Berriketa hots horrek molestutzen duenean, batik bat. *Klase atzian jarri eta egun guztia txortxor eta txortxor.* Sin. txalan-txalan. (Eib.).**2.**

txortxor, **txortxorra** adjektiboa. Pertsona jarduntsua, berritsua, isiltzen ez dena. *Ikusiko baziñu zelako txortxorra dan gure mutikua etxian... eta kalian berriz mutua emoten dau./ Ori da gauzia txortxorra! (Lar Antz).***3. txortxor** (c). Txori-kantuaren onom. *Etxazpixon dabill bidiarrua txortxor da txortxor.*

TXOR-TXOR Ik. **txortxor**.

TXÓSNA, **txósnia** (c). izena. Txabolatxoa. Kalekoez ia bakarrik. • Caseta de feria, de estación, etc. *Txosnia ba kasetia ero; ola kale inguruko zera danian, estaziñoko txosnia ero, esan izan zan, banderistian lekua ero. Klem./ Or badare ba txosnak, arek ortuak zien len. Mertz.*

TXOST1. txost (c). interjekzioa. Pelotan, pelota txokoan sakerik ez egiteko moduan sartzen deneko onom. *Pelotia kruzau eitte jok orrek, eta batian txost eta bestian txost, zeñek jaso pelotia./ Txost ein jok, bestela jasoko najuan.* **2. txost** onomatopeia. "Meter algo en un sitio." (SB <i>Eibetno).</i>

TXOSTÁDA, txostadía (d). izena. Pelotak txokoan sakerik egiten ez dueneko jokaldia. • Jugada en que la pelota no bota por dar en el vértice del suelo y la pared. *Ogetak botatzen zittuan txostadak etxeuan eruateik.*

TXOTA, txotia (c). izena. Sota en el juego de cartas.
Sin. **txanka**.

TXOTIÑ lk. **zótiñ**.

TXOTXO (b). Muchacho, en vocativo. *I, txotxó, zeñek apurtu jok kristala?* Izen propio bezala deklinatua. Zenbait familian etxeko mutilez esan ohi da; sarri ironiaz eta errieta doinu apur batez: *Gaur be gure txótxoi aaztu jako ogixa ekartzia. Erreparatu azentuazioan.*

TXOTXO-BÉRBA, txotxo-berbía (d). izena. TXOTXOLO-BERBA. Berbetarako era txotxoloa. Mertzedesek Bergarako kalean euskaraz oso gaizki egiten dela diosku honela: *Euskera bat dago lotsagarrixa Bergan, e, lotsagarrixa, konpleto. Txotxo-berba konpletua dago Bergan. Dana olakoxe txotxolo-berbia dago Bergan. Mertz./ Txotxolo-berbak dia gaizki esandako berbak. "*

TXOTXÓLO, -A, txotxolúa, -ía (a). adjektiboa. Necio, -a, pedante. *Bere bizi guztian txotxolo aundi bat izan da.* lk. **txátxala**.

TXOTXOLOÁLDI, txotxoloaldíxa (c). izena. Norbait txotxolotuta dagoeneko aldia. • Período de necedad. *Aber noiz pasatze jakon totxoloaldixa.*

TXOTXOLOKERÍXA, txotxolokerixia (b). izena. Txotxoloaren esana edo ekintza. • Necedad. *Makiña bat txotxolokerixa esan dau.*

TXOTXOLÓTU (b). da aditza. Txotxolo bihurtu.

TXOTXOPOTXO EON esapidea. "Kontuak esaten gustora egon. *Atsalde guztian txotxopotxo eon giñan.*" (Lar Antz).

TXU, txúa (a). izena. (Leintz, Oñati) Txistua. • Saliva. Sin. **txístu**.

TXUKIRÍXU, txukirixúa (d). izena. . Lorori-xaren antzerakoa omen. (?).

TXÚKUN1. txukun, txukúna (b). adjektiboa. Limpio, arreglado. *Eztaukazu oso txukuna kuartua.* **2. txukun** (b). adberbioa. Limpio, arreglado. *Txukun-txukun dago dana. Alderantzizko zentzuko esaldietan sarri: Bestiei esan biarra jaukan, txukuna don beroi.*

TXUKUNDÁDE, txukundadadía (c). izena. Txukuntasuna. *Etxera sartu nitzan eta, jesus maria ta jose!, aura zan txukundadia!* . Sin. **txukuntásun**.

TXUKÚNDU (b). da-du aditza. Garbitu, ondo jarri. • Asear(se), arreglar. *Azkenian txukundu dabe Poligono aldia./ Txukundu zaitte puxkat kalera urten aurretik.*

TXUKUNTÁSUN, **txukuntasúna** (b). izena. Pulcritud. Sin. **txukundáde**.

TXULÉAU (a). da-du aditza. TXULÍAU. Harrokerian ibili. • Chulearse, exhibirse. *Patinete barrixakin kalian txuleatzia gustatze jako*. TXULIAU ere bai adinekoek.

TXULERÍXA, **txulerixía** (b). izena. Chulería. *Txulerixia asko eta ezetarako ganora gutxi dauke polizia barrixak*.

TXÚLETA, **txúletia** (a). izena. Chuleta. "Ortuko txuletak" esaten zaie albardatutako zarba-kirtenei.
txuléta-zíntta, **txuléta-zinttía** (c). izena. Cinta de chuletas.

TXULÉTA-ZÍNTTA, **txuléta-zinttía** (c). izena. Cinta de chuletas.

TXULIAU lk. **txuléau**.

TXUNDA-TXUNDA izena. (haur hizkera.) Musika (haur). *Zer, entzungou txunda-txunda?*

TXÚNTXUN, **txuntxúna** (c). izena. Danbolin-txistuaren soinua, eta baita musika tresna hauen konjuntua. • La música de chistu y tamboril, y también conjunto de dichos instrumentos. *Txuntxuna, danbolin-txistuan soiñua. —Eta zela esaten zan? Txuntxunian dantza ein ddou. Klem./ Batek txuntxuna jo eta bestiak dantzan eiñ*. lk. **danbólin-txístu**.

TXUPÁPERRAS, **txupáperrasa** (d). izena. Esku-zerra arkuduna.

TXURIKOTE, **txurikotia** izena. Hatxisak edo belarrak (marihuanak) eragindako ondoeza. Zuri-zuri eginda, oso gaizki sentitzen da sufritzen duena. "Blanco". *Bedar geixegi bota zotsen tartiai eta gero danak kriston txurikotiakin Mondrauera zentrora./ Txurikotiak emon zotsan eta botaka asi zan*.
TXURIKOTIAK EMON. Semeari entzuna duela gutxi. Noiz edo noiz jaiotzen dira egoki sortutako berba berriak, eta poz ematen du.

TXURÍNGA1. **txuringa**, **txuringía** (d). izena. "El interior que asoma a veces en el parto." (Izag Oñ). *Txuringia? matriza ero etxakixat pa; zer gorri bat, bulto bat urtetze jotsen da, txuringia zuan aura ta; etxakixat pa matriza zan aura ero. Umiak itteko zerela sarrixaotan, aldapa samarrian egon ezkerro, aldapiak asko ereitte jotsek. Klem.* **TXURINGIAK URTEN** ia beti. Eibarren, **BOLIA BOTA**. lk. **natúra**.
txuringiak urten biarrian egon esapidea. Txizagureak lehertu beharrean egon. *Geratu adi, txuringiak urten biarrian najaok eta*. **2. txuringa, txuringia** izena. (Eibar) Almorranas, hemorroides. *Ein bihar izan zittuan indarregaz, txuringiak urten zetsan. (AAG Eibes)*.

TXURRUMILLO lk. **zurrúmillo**.

TXURRUNPIO (c). (eufemismoa.) Zurruta, edatea. (Umomezkoa). *Ari majo gustatzen jako txurrunpio*.

TXURRUT lk. **zúrrut**.

TXURTEN, **txurtena** izena. TXORTEN. "Fruitua abarrera lotzen duen kirtentxo. *Gure aittajunak aokaran jate zeban sagar erria, txorten da guzti.*" (Lar Antz). Sin. **mútxikiñ**.

TXUTAU (a). aditza. Chutar. *Txutau zeban eta gol*.

TXÚTE, **txútia** (b). izena. Baloiari, adibidez, emandako ostikada. • Chut. *Ezetz geratu nere txutia*.

TXUTXU1. txutxu, txutxua izena. (Eibar) Arrautza, haur hizkeran.**2. txútxu, txútxua** (d). izena. (haur hizkera.) (Oñati) Oiloa, haur hizkeran.**3. txutxu, txutxua** (a). izena. (lagunartekoa.) "Pertsona polita eta erakargarria. • Bollito." (TSE Berb)
*Nor zuan hire aurrian eguana? Hori dok/n hori txutxua! (TSE Berb).***4. txutxu** onomatopeia. (Eibar)
"Onomatopeya del rumor, del cotilleo." (SB Eibetno).

TXUTXÚMUTXU, txutxúmutxuak (c). izena. Isileko kontuak. Gutxi erabilia. Ik. **áopeko, ixíl-kóntu. txutxumutxuka** (c). adberbioa. Isil-kontuetan.
Eztakit zer dauken, baiña goiz guztia txutxumutxuka dare.

TXUTXÚRRA (c). izen propioa. San Juan Errekako familia bati ematen zaion izena. *Tratantia da Txutxurra./ Elortzakuei Txutxurranekuak esate jakue.*

TXUTXÚRRUTXU EIÑ (c). du esapidea. Gurdiak atzean pisu gehiegi daramalako burpartika goratu eta atzeak behe jo. • Vencer el carro para atrás. *Burdi-garuak partikatik urten da txutxurrutxu ein zoskun.* Ik. **txutxúrrutxuka.**

TXUTXÚRRUTXUKA (c). adberbioa. Juego infantil, que generalmente se practicaba a escondidas de los padres, consistente en colocarse uno en la pértiga del carro y otro(s) en la parte trasera, y subir y bajar. *Aittajuna siestan zeuan bittartian txutxurrutxuka ibiltze giñan etxostian.* Ik. **burpartíka.**

-TZEKA (a). atzizkia. (Angiozar) Ik. **-t(z)eke.**